


Gizarte-langintzaren oinarriak eta metodologia

Julen Zabalo • Maddalen Epelde
Marina Sagastizabal • Haritz Garmendia



©man ts zabalo 2020



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Gizarte-langintzaren
oinarriak eta metodologia**

Gizarte-langintzaren oinarriak eta metodologia

Julen Zabalo
Maddalen Epelde
Marina Sagastizabal
Haritz Garmendia

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Biblioteca Universitaria

Gizarte-langintzaren oinarriak eta metodologia [Recurso electrónico] / Julen Zabalo ...[et al].
– Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua
= Servicio Editorial, [2024]. – 1 recurso en línea: PDF (105 p.). – (Unibertsitateko Eskuliburuak =
Manuales Universitarios)

Modo de acceso: World Wide Web.

Incluye referencias bibliográficas.

ISBN: 978-84-9082-932-5.

1. Servicio social – Administración. 2. Servicio social – Historia. 3. Servicio social – Metodología.
I. Zabalo Bilbao, Julen, coaut.a

(0.034)364

UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak sustatua eta zuzendua, Euskarazko ikasmaterialgintza sustatzeko
deialdiaren bitartez.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9082-932-5

Aurkibidea

Aurkezpena.....	11
1. Gizarte-ekintza historian	13
1.1. Gizarte-ekintzen bilakaera.....	14
1.2. Karitatea, filantropia eta eskubideetan oinarritutako gizarte-langintza.....	15
2. Gizarte-laguntza testuinguru berrietan.....	19
2.1. Gizarte-laguntza Aro Modernoan.....	19
2.1.1. Juan Luis Vives.....	19
2.1.2. San Bizente Paulekoa eta Santa Luisa Marillac-ekoa.....	22
2.2. Gizarte-laguntza Aro Garaikidean.....	24
2.2.1. Lana, pobrezia eta gizarte-laguntza ulertzeko modu berriak.....	25
2.2.2. Gizarte-laguntza eratua: egile berriak.....	27
2.2.3. Aurrekari bat: Thomas Chalmers	28
3. Gizarte-langintzaren bidean: COS eta <i>Settlementen</i> mugimendua.....	31
3.1. COS elkarteak	31
3.1.1. COSen lanaren balorazioa	33
3.1.2. Octavia Hill.....	34
3.1.3. Mary Richmond.....	35
3.2. <i>Settlementen</i> ildoak	37
3.2.1. <i>Settlementen</i> mugimendua eta Barnett senar-emazteak.....	37
3.2.2. Jane Addams.....	39
4. Gizarte-langintzaren garapena	43
4.1. Zientifikotasunaren bila.....	43
4.2. Ongizate-estatuak	44
4.2.1. Ongizate-estatuaren sorrera eta ezaugarriak.....	45
4.3. Gizarte-langintzaren instituzionalizazioa	46
4.4. Ongizate-estatuaren krisia.....	47
4.5. Gizarte-langintza egoera berri batean	48
5. Gizarte-langintzaren oinarri zientifikoak.....	53
5.1. Gizarte-langintza ulertzeko era desberdinak.....	53
5.1.1. Gizarte-langintza ulertzeko faseak	53
5.1.2. Gizarte-langintza ulertzeko moduak.....	54
5.2. Gizarte-langintzan eragin duten zientziak	55

5.3. Gizarte-langintzan eragin duten teoria politiko eta filosofikoak	56
5.3.1. Funtzionalismoa	56
5.3.2. Marxismoa	57
5.3.3. Teoria konprentsiboak	57
5.3.4. Gaur egungo beste teoria batzuk: feminismoa eta dekolonitatea	59
5.4. Gizarte-langintza zientzia gisa	60
5.4.1. Gizarte-langintzaren espezifikotasuna	60
6. Gizarte-langintzaren objektua	65
6.1. Gizarte-langintzaren objektuaren inguruan	66
6.1.1. Gizarte-langintzaren objektu bikoitza	66
6.1.2. Gizarte-ezinegona eta gizarte-langilea	66
6.2. Gizarte-arazoak	68
6.3. Gizarte-langintzaren helburuak	70
6.4. Gizarte-langintzaren balioak	71
7. Metodoa gizarte-langintzan	73
7.1. Zer da metodoa	73
7.2. Metodoaren faseak	74
7.3. Esku-hartze mailak gizarte-langintzan	75
7.3.1. Banakako eta familiako gizarte-langintza	75
7.3.2. Taldeko gizarte-langintza	76
7.3.3. Komunitateko gizarte-langintza	77
7.3.4. Ohiko esku-hartzeen kritika eta alternatibak: eredu generalista	77
8. Gizarte-langintzaren egileak	83
8.1. Gizarte-langilea	83
8.1.1. Gizarte-langilearen funtzioak	84
8.1.2. Gizarte-langilearen jokaera etikoa	84
8.1.3. Gizarte-langilearen arazo etikoak	85
8.1.4. Kode deontologikoak	87
8.2. Beste eragile batzuk	90
8.2.1. Administrazioako teknikariak eta zuzendariak	90
8.2.2. Politikariak	91
8.2.3. Boluntarioak	91
8.2.4. Gizarte-langileak eta gizarte-mugimenduak	93
8.3. Erabiltzaileak	95
8.3.1. Erabiltzailea eta esku-hartzeari loturiko irizpideak	96
Gehiago sakontzeko bibliografia	99

Gauerako aterpea

Bertol Brecht, 1934

*Kontatu didate New Yorken,
Broadway eta hogeita seigarren kaleen
arteko kantoian, negu gorrian
gizon batek gauero,
jendeari otoi eskatzen,
aterpea bilatzen duela
babesgabeentzat.*

*Mundua ez da era horretan aldatzen,
gizakien harremanak ez dira hobetzen,
zapalkuntza aroa ez da horrela laburtzen.
Baina pertsona batzuek gau batez ohea dute,
gau oso batez haizetik babesten dira,
eta jasan behar zuten elurra
kalean jausten da.*

*Pertsona batzuek gau batez ohea dute,
gau oso batez haizetik babesten dira,
eta jasan behar zuten elurra
kalean jausten da.
Baina mundua ez da era horretan aldatzen,
gizakien harremanak ez dira hobetzen,
zapalkuntza aroa ez da horrela laburtzen.*

Aurkezpena

Gau baterako ohea ziurtatzea, jendeari otoika eskatuta eta biharkoa ziurtatu gabe, onargarria da, edo duintasuna beheratzen dio gizakiari? Eta, bestalde, egunekoa konpontzen bada, zer ardura dio lortzeko moduari hainbeste erreparatzeak? Edo, zergatik ez baliatu gizakiek berez duten borondate ona arazo horiek, egunez egun, konpontzeko?

Beste gaietan gertatzen den bezala, «zer da gizarte-langintza?» galdera egiten dugunean, zalantzak eta eztabaidak gehiago dira ziur-ziurrean baieztatu daitezkeen baino. Baina zer besterik itxaron liteke giza edo gizarte-zientzia batetik? Gizakien arteko desberdintasunak eta jokamolde desberdinak onartzen baditugu, gizakiez ari den diziplina batetik zer besterik itxaron liteke, desberdintasuna baino?

Lan honetan, zalantzak eta eztabaidak agerrarazteari ere tarte handia eskaintzen zaio, eta, irakurlearen ezerosotasunerako agian, zalantza eta eztabaida horiei ez zaie konponbiderik edo azken hitzik ematen. Nahikoa luke irakurleak zalantza eta eztabaidaren mamiaz jabetzarekin momentuz, benetako konponbidea edo azken hitza norberak landu eta ebatzi behar baitu, lan horretarako urteak edo bizitza osoa behar badezake ere.

«Gizarte-langintza zer den» azaltzeko muga horiek aurretik ezagututa, ezagut ditzagun lan honen mugak. Izan ere, apunte itxurako testuliburua duzu hau, gehienbat gizarte-langintzako ikasleengan pentsaturik sortua, beste batzuei on egin diezaiekeen arren. Bertan agertuko diren datuak, informazioak edo galderak ohikoak dira gizarte-langintzaren barruan, eta beste testuliburu batzuetan ere ager daitezke.

Lanak zortzi atal ditu. Lehenengo lau gaietan (1-4 gaiak) gizarte-langintzaren sorrera eta bilakaera aurkeztu nahi dira. Gizateriaren joan-etorrian izan diren laguntza-formak aztertu, eta horiek denak gizarte-langintza izan ote diren pentsatu behar da. Ondoren, gizarte-langintza zein testuinguru jakinetan sortzen den begiratu behar da, eta nola bilakatzen den gaur ezagutzen dugun zientzia izan arte, ongizate-estatuari loturik.

Ondorengo hiru gaietan (5-7 gaiak), gizarte-langintza zientzia gisa aztertu nahi da, eta, horretarako, zientzia batek erantzun behar dituen galderak aurkezten dira: zer aztertzen duen, zerk bereizten duen beste zientzietatik, zer duen berezi, zelan jarduten duen, eta abar.

Azken atalean (8. gaia), gizarte-langintzaren inguruan mugitzen diren eragileak aztertuko dira: erakundeak, erabiltzaileak eta gizarte-langileak eurak, noski, baina baita beste eragile asko ere, hala nola politikariak edo boluntarioak.

Horrez gain, eta lanaren egiturari loturik hau ere, ahalegina egin da gizarte-langintzaren bilakaeran eragin duten egileen testuak jasotzeko, egile horiek zer zioten (eta baita nola eta zein testuingurutan) ikusteko. Horrez gain, beste testu batzuk ere sartu dira, bai lehenago azaldutakoa indartzeko, eta baita azaldutakoaz gogoeta egiteko ere. Zenbaitetan irudi eta eskema osagarriak ere tartekatu dira, azalpenak osoagoak gerta daitezkeen. Gai bakoitzaren amaieran erabilitako erreferentzietan aipamen egiten zaie, eta liburuaren amaieran bibliografia orokorra agertzen da, landu ditugun edo interesgarriak diren beste erreferentzia batzuk sartuta. Gai bakoitzaren amaieran, azkenik, autoebaluazio-galdera batzuk egiten dira, irakurleak berak ikasitakoa neurtu dezan.

AURKEZPENA

Apunte hauek urteetako esperientzia biltzen dute. Izan ere, 2008an ikusi zuten lehen argitalpena, eta, haiek oinarri hartuta, bigarren argitalpena duzu hau: orduko testuekin batera, beste batzuk berridatzi dira, doitu, edo berri-berriak sortu. Horrez gain, testu osoa Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak gainbegiratu eta txukundu du.

1.

Gizarte-ekintza historian

Gizakia ona edo gaiztoa da berez? Eztabaida luzea izan liteke, baina, hemen, laguntzaren inguruan eduki lezakeen ondorioaz ohartarazi nahi dugu bakarrik. Gizakia berez ona balitz, laguntza-ekimena *naturala* izango litzateke; gizakia berez gaiztoa balitz, aldiz, ez litzateke laguntzarik emango, helburu gaiztoarekin ez balitz (egoera larriago bat saihestea, adibidez).


Gizakia berez ona edo gaiztoa den eztabaida- eta gogoeta-iturri agorrezina izan da historian zehar. Gainera, gizarte guztietan ageri da behartsuari edo ezinduari laguntzeko beharra, laguntza zergatik ematen den bestelako kontua bada ere: elkartasuna batzuetan, baina arazo larriagorik ez sortzeko tresna gisa ere bai askotan (herri-matxinadak saihesteko, adibidez). Eztabaidak eztabaida, gabezia edo beharraren aurrean laguntza ematea bera modu positiboan baloratu behar da, laguntza hori era askotara eta ikuspuntu desberdinetatik egin izan bada ere. Laguntza ematea da, hain zuzen ere, gizarte-langintzaren abiapuntuetako bat, eta, horren ondorioz, gizarte-langintzaren historia gizarteek historian zehar erabili dituzten laguntza-formen kontaketa da, neurri batean.

Laguntza-aukeraren aurreko jarrerak: nahia, beharra, ahala. Laguntza-eskaera edo -aukera baten aurrean, sortzen zaigun lehenengo zalantza da ea lagundu *nahi* dugun ala ez. Lagundu nahi badut, ondoren pentsatuko dut ea *ahal* dudan, agian horretarako gaitasunik edo baliabide nahikorik ez daukat eta. Eta ez badut lagundu nahi, ondoren pentsatuko dut ea, nahi gabe ere, *behartuta* ote nagoen laguntzera, legez edo moralki.

Baina laguntza zelan eta zergatik ematen den ere axola du. Modu desberdinean baloratu behar da elkartasun hutsez edo interes berekoiez emaniko laguntza, ondorioa praktikan berdina izan daitekeen arren. Izan ere, orain arte laguntza emateaz aritu izan gara, hartzen duenaren ikuspuntuari erreparatu gabe. Haren ikuspuntua kontuan harturik, ordea, era batera edo bestera ematea modu desberdinean balora liteke, eta horrela egiten du gizarte-langintzak.

Gizarte-langintza, hortaz, laguntza-forma historikoen kontaketa da, baina zerbait zehatzagoa ere bada, eta ez gizakiaren historia osoari loturik. Ez da agertzen gizarte guztietan. Bereizi egin beharko dugu, beraz, gizarte-langintza zentzu zabalean ulertua, behartsuari ematen zaion laguntza —ekintza zaharra, ikusiko dugunez— eta gizarte-langintza zentzu estuan ulertua, ekintza modernoa, batez ere industrializaziotik aurrera garatua, eta estatu sendoei lotua. Bien artean bereizteak gizarte-langintza zer den hobeto atzematen lagunduko digu.

Gizarte-ekintzaren historian gizarte-langintzak, zentzu estuan ulertuta, duen lekuaz jabetzeko, ikus ditzagun Boris Limak (1985: 56 t. hur.) proposatzen dituen lau faseak, argi utzirik fase batetik besterako igarobidea ez dela, noski, bat-batekoa:



1. irudia. Gizarte-langintza ulertzeko faseak.

[Iturria: Lima (1985), guk moldatua.]

1. **Fase aurreteknikoa.** Antzinako gizarteetatik XVIII. mendera arte. Gizarte-ekintza karitatean oinarritzen da.
2. **Fase teknikoa.** XIX. mendetik II. Mundu Gerrara arte; estatu liberaletik estatu esku-hartzailera bitarteko aroa, alegia. Estatuak gizarte-laguntza bultzatzen du, eta gizarte-segurantza agertzen da.
3. **Fase aurrezientifikoa.** II. Mundu Gerratik aurrera, gizarte-ongizateari loturik. Gizarte-zerbitzuaren aroa da.
4. **Fase zientifikoa.** 1960ko hamarkadatik aurrera. Gizarte-langintzaren aroa da, eta gizartean agertzen diren arazoak modu zientifiko batez aztertu nahi dira, diagnostikatu, konpondu eta aurreikusi ahal izateko.

1.1. Gizarte-ekintzen bilakaera

Gaur gure testuinguruan ezagutzen dugun gizarte-langintzaren sorrera mendebaldeko Europako industrializazio aroan kokatuko dugu, baina argi eduki behar dugu horrekin ezin dela agortu behar-tsuari eman dakioken laguntza. Gizakiaren bilakaeran gertatu diren laguntza-formak asko izan dira, eta arrazoi desberdinek motibatuak, eta gizarte-langintzaren aitzindari gisa uler ditzakegu. Laburrean bada ere, horien berri xumea emango dugu ondoren.

Komunitate primitiboetan ondare-komunitasuna zegoen, eta, hortaz, ezinduarekiko laguntza era naturalean gertatzen zen. Denborarekin, ordea, diskriminazioan oinarritutako beste eraketa mota batzuk agertu ziren: ondare-komunitasuna suntsitu, eta produkzio-bideen jabetza pribatua agertu zen. Ondorioz, gizaki batzuk baliabiderik gabe geratu ziren, eta horietako batzuek laguntza eskatu behar izan zuten. Laguntza emateak, ordea, ez zuen arazoa osorik konpontzen (leundu soilik), eta ordutik ari gara arazoari irtenbidea eman nahian.

Esan dezakegu, beraz, gizarte-ekintza mota bi daudela: naturala, gizakien arteko elkartasunean oinarritua, eta selektiboa, gizakiarekiko esplotazioan oinarritua. Azken hori da, noski, nagusi, eta azkeneko mendeotan gizakiaren ibilbidea markatu duena. Baina agerpide desberdinak hartu ditu espazioan eta denboran zehar (Torres, 1987: 45-50).

Mesopotamian gizateriak aurrerapen nabariak egin zituen antolaketa-mailan, eta aurrerapen horiek gizarte-arloan ere agertu ziren. K.a. 1700. urtean idatzi zen gordetzen den historiako lehenengo kodea, Hammurabi erregeak aginduta. Hammurabiren kodea da, hain zuzen ere, behartsuari laguntza zor zaiola aitortzen duen idatzirik zaharrena. Gizaki libre eta esklaboen artean bereizi, eta, bigarrenak gizakitzat jotzen ez ziren arren, justiziazko neurriak agertzen ziren esklaboen alde.

Antzinako Egipto, bestalde, nabarmendu egiten da gizabanakoari ematen zitzaion tratamendua-gatik. Hala, emakumeek eskubide legal guztiak zituzten (leku askotan gertatzen ez zen bezala), gizonen adinakoak, eta justiziaren aurrean gizakien arteko berdintasuna aldarrikatzen zen. Horrez gain, estatuak milaka lanpostu sortzen zituen herri-lanak egiteko, eta, era horretara, nahita edo nahi gabe, gizarte-laguntzaren aurrekari bat sortu zen. Horrekin batera, miserian zeudenei laguntza ematen zitzaien, eta esklaboei eskubide batzuk onartu zitzaizkien.

Grezian oso gizarte klasista garatu zen, eta esklaboak zerbait naturaltzat hartu ziren. Hala ere, gizaki libreen artean behartsuarekiko laguntza praktikatzen zen, aberatsen, eta ez estatuaren, ardua gisa. Gainera, ongintza-sistema baten aztarnak agertu ziren, besteak beste, zahar eta ezinduen mesedetan.

Erromako inperioan, Grezian bezala, gizarte klasista garatu zen, zeinetan esklaboak, emakumeak eta haurrak *paterfamilias* (familiako aita, latinez) delakoaren agindupean baitzeuden. Hala ere, denborarekin hainbat aurrerakuntza gertatu zen, arlo teorikoan askotan. Horien arteko bat esklaboei zegokien: beren egoera juridikoa hobetu egin zen, eta nolabaiteko babeska eskaini zitzaien.

Erljio handietan ere laguntzeko ardua hartu izan da. *Konfuzionismoan* (Txinako sinesmen nagusia, Konfuzio jakintsu eta filosofo txinatarren irakaspenetatik garatua), ongintza eta elkarrekikotasuna aldarrikatzen dira. *Islamean*, hurkoari laguntzea fededunaren betebeharrak bat da. *Juduen* liburu klasikoek pobre eta behartsuekiko elkartasuna agintzen dute modu erabatekoan. Ez hori bakarrik, justizia ere aldarrikatzen da, esklaboek baldintzak hobetuz, lege bidegabeak salatuz, eta abar (Andres eta Sánchez, 2003: 26-30; de la Red, 1993: 5-7; Torres, 1987: 50-52).

Kristautasuna, juduen ildoak garaturik, elkarrekiko maitasunean eta karitatean oinarritzen da: biak jotzen dira beharrezkotzat biziaren eternala irabazteko. Hasierako kristautasunean ondare-komunitasuna aldarrikatzen zen, eta erabateko sostengua ematen zitzaien behartsuei; Eliza gero eta botere handiagoa bereganatuz joan zen heinean, ordea, aldaketak gertatu ziren. Europako Erdi Aroan biziaren asko zaildu zen leku batzuetan, eta gizarte-laguntzak berebiziko lekua hartu zuen gizartean, karitatearen bidez.

1.2. Karitatea, filantropia eta eskubideetan oinarritutako gizarte-langintza

Karitate kontzeptua oso modu zabalean erabiltzen da gure gizartean, baina, izatez, kristautasunak landutako kontzeptua da, eta esangura zehatza ere eduki dezake: Erdi Aroan eta Aro Modernoan Elizak babesgabei behar bezalako laguntza ematea agintzen zuen. *Karitatea* bideratzeko tresna *limosna* da. Limosna norabide bakarreko laguntza da, modu indiskriminatuan emana: emaileak erabakitzen du nori, noiz eta zenbat eman, bestelako azterketarik egin gabe.

Limosnak ez du emailearen eta hartzailearen arteko harremanik ahalbidetzen, garrantzitsuena ekintza bera baita. Emailearen aldetik, Elizak agindu egiten zuen karitatea, eta limosna zen agindu hori betetzeko modua. Horren saria Jainkoa poztea eta espirituaren betiko salbamena lortzea zen. Hartzailearen aldetik, limosna hartzea Jainkoaren errukiaz oihartzeko modua zen, eta, egoera hura onarturik, sari berdina zuen, betiko salbamena.


Emailearen eta hartzailearen arteko harreman urrun horretan pobrezia ulertzeko moduak ere eragiten du; izan ere, pobrezia gauza naturaltzat hartzen zen garai horretan. Naturala zen aberatsak eta pobreak egotea, Jainkoak hala erabakia zen eta. Bakoitzak bere bidea egin behar zuen salbamena lortzeko: aberatsak berarentzat kalte ekonomikoa zen limosna erabiltzen zuen; pobreak, berriz, berarentzat kalte espirituala zen pobrezia, eta limosna hartu behar izatearen beharrezkoa onartu behar zuen.

Europako Aro Modernotik aurrera, ordea, gizarte sekularizatzen hasi zen (erlijioari estuki loturiko balioek zein erakundeek indarra galdu zuten), eta karitateak utzi egin zion Elizaren monopolioa

izateari. *Pobrezia* kontzeptua aldatuz doa, eta denborarekin ez da agertuko gauza natural gisara, baizik eta, batzuetan, gizakiaren alferkeriaren ondorio modura. Pobrezia arazo bihurtu zen, eta administrazio publikoa (hiria, batez ere) hasi zen laguntzeko beharraz hausnartzen. Gizarte-laguntza arrazionalizatu egin zen.

Sekularizazio horrekin, karitate kristaua ere aldatu egin zen. Laguntzarako motibazio erlijiosoa apaldu egiten da: laguntza ez da Jainkoak agindu edo nahi duen zerbait, baizik eta beste gizakiekiko errukiak bultzaturikoa. Hori da *filantropiaren* sorrera, xviii. mendetik aurrera, batez ere. Filantropia karitatearen ikuspegi arrazionalizatua da, ongintza pribatuari lotua, eta burgesiaren pentsaera islatzen duena: pertsonak berdinak dira jaiotzez, baina batzuek erabaki okerrak hartu dituzte, eta pobre bihurtu dira. Pentsaera hori testuinguru berrian garatzen da: industrializazioak gizarte-aldaketa handiak eragin zituen, eta, haren ondorioz, gizarte-laguntzarako ikuspegia ere aldarazi zuen. Ingalaterran lehenengo, industrializazioak desoreka handiak ekarri zituen, eta egoera hark laguntza eskaintzeko beharra sortu zuen zenbait aberatsen artean. Errukian oinarrituta, laguntzea da elkarte filantropikoen helburua, baina laguntza-zeregin horretan bestelako helburuak ere sartzen dira, oker bideratutako bitzita birbideratzea, besteak beste.

Elkarte filantropiko horietatik oraingo gizarte-langintzaren ildo garrantzitsu bat sortuko da xix. mendetik aurrera. xx. mendean, teoria-mailan gorpuztu, eta ongizate-estatuari loturik, gizarte-arazoak bideratzeko eragile nagusi bihurtuko da, izugarritzko jauzi kontzeptuala eginez: esku-hartzea ez laguntza huts gisa, *eskubide* modura baizik.



2. irudia. Karitatea, filantropia eta eskubideak.

(Iturria: guk egina.)

Erabilitako erreferentziak

Ander-Egg, Ezequiel (1984): *Historia del Trabajo Social*. Humanitas.

Andres, Teodoro eta Sánchez, Gaspar (2003): «El estudio de la historia para comprender el Trabajo Social. La ayuda al necesitado en la Antigüedad de Oriente a Occidente», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 22-49 or. Alianza.

de la Red, Natividad (1993): *Aproximaciones al trabajo social*. Siglo XXI.

Geremek, Bronislaw (1998): *La piedad y la horca. Historia de la miseria y de la caridad en Europa*. Alianza.

Kohs, Samuel C. (1966): *Las raíces del trabajo social*. Paidós.

Lima, Boris A. (1983): *Contribución a la Epistemología del Trabajo Social*. Humanitas.

Moix, Manuel (2006): *Teoría del trabajo social*. Síntesis.

Torres, Jorge (1987): *Historia del trabajo social*. Humanitas.

Autoebaluazioa

- 1) **Gizarte-langintzaren historia(n)... (aukeratu zuzena):**
 - a) Gizarteek historian zehar erabiltzen dituzten laguntza-formen kontaketa da.
 - b) Idazterakoan ez da kontuan hartu behar laguntza jaso duenaren ikuspuntua.
 - c) Industrializazioak ez zuen aparteko aldaketarik ekarri.
- 2) **Zer esan nahi du gizarte-langintzak bere adiera estuan?**
 - a) Behartsuari eman izan zaion laguntza, edozein garai historikotan.
 - b) Ekintza modernoa da, batez ere industrializaziotik aurrera garatua, eta estatu sendoei lotua.
 - c) Aberatsek emandako limosnari egiten dio erreferentzia.
- 3) **Non kokatzen da gaur gure testuinguruan ezagutzen dugun gizarte-langintzaren sorrera?**
 - a) Europako industrializazio aroan.
 - b) Mesopotamian.
 - c) Grezian.
- 4) **Esan esaldi hauetako zein den okerra:**
 - a) Mesopotamiako Hammurabiren kodea da behartsuari laguntza zor zaiola aitortzen duen idatzi zaharrena (K.a 1700).
 - b) Konfuzianismoan ongintza eta elkarrekikotasuna aldarrikatzen dira.
 - c) Erroman eta Grezian gizarte ez-klasistak garatu ziren, ondare-komuntasunean oinarrituz.
- 5) **Limosna-emailearen benetako helburua da...**
 - a) Salbamen propioa lortzeko beharrezkoa den tramite bat betetzea.
 - b) Pobre eta aberatsen arteko desberdintasunak murriztea.
 - c) Hartzailearen eskubideak bermatzea.
- 6) **Honako hau da Aro Modernotik aurrera, XX. mendera bitartean, nagusitu den laguntza-forma:**
 - a) Karitatea.
 - b) Laguntza arrazionala.
 - c) Eskubideak.

2.

Gizarte-laguntza testuinguru berrietan

Euskal Herriaren testuinguru hurbilean kokatuko gara, beste kultura batzuetan bestelako erantzunak gertatu direla aitortuta. Testuinguru horretan, Europako Erdi Aroa amaitzen ari da, eta ordutik aurrera gertatuko diren aldaketek laguntza-sistema berriak eskatuko dituzte.

2.1. Gizarte-laguntza Aro Modernoan

Aldaketa nabarmen eta funtsezkoa gertatu zen Europako Erdi Aroaren amaieran, Aro Modernoarekin batera, beraz. Momentu horretan, berpizte ekonomikoa gertatzen ari zen Mendebaldeko Europan. Merkataritza kapitalismoa indartzen ari zen, eta horrek aldaketa erabakigarriak ekarri zituen gizartera:

- Politikan, aurreko egituraketa feudalaren aurrean, estatu bateratu eta absolutua hasi zen indartzen. Horrek, besteak beste, administrazio konplexuagoa eta eraginkorragoa ekarri zuen.
- Ideien eremuan, humanismoa hedatu zen. Arrazionalizazioa gorai patzen zen.
- Erligioan, kristautasunaren barruan mugimendu protestanteak izugarritzko aldaketa ekarri zuen, salbamena lortzeko moduan, besteak beste.


Zer ondorio eduki zuten ezaugarri horiek guztiek gizarte-laguntza ulertzeko moduan? Kontuan har dezagun laguntza bideratzeko kristautasunak karitatea proposatzen zuela, limosnaren bidez. Esan dugunez, limosna laguntza asistematikoa da: mundu guztiari ematen zaio, ezer galdetu gabe, baina ez dago ezelako harremanik ematen eta hartzen dutenen artean, eta ez dago eskatzailearen beharri-zanen azterketa zehatzik ere.

Testuinguru berriak, ordea, laguntza arrazionalizatzea eskatzen zuen. Alde batetik, hirietako dirudunek gero eta diru gehiago gastatu behar zuten limosnan, merkataritzarekin landa-eremutik hirirako mugimendua zabaldu zen eta. Bestetik, hirietako administrazioa gero eta zabalagoa zen, ardura handiagoak hartuta eta eraginkortasuna bilatuta.

Ardura horien artean gizarte-laguntza ere sartzen zen. Hirietako eskale kopurua ugaltu egin zen, eta limosna-sistema ez zen eraginkorra arazoari aurre egiteko. Formulazio eta teorizazio berriak azaldu ziren, eta, era horretara, gizarte-laguntza ulertzeko modua aldatzen hasi zen, mendeak iraun dituen prozesu baten barruan. Erdi Aroko eskema gaindituta, hiriek proposamen berriak landu zituzten, eta katolizismoak berak laguntza ulertzeko modua aldatu zuen. Bi adibide ikusiko ditugu: Juan Luis Vives, batetik, eta San Bizente Paulekoa eta Santa Luisa Marillac-ekoa, bestetik.

2.1.1. Juan Luis Vives

xvi. mendeko humanista handi hau Valentzian jaio zen, 1492an; Parisen hazi, eta Belgikan gorpuztu zuen bere doktrina berria. Han hil zen, 1540an. Gizarte-laguntzaren eraldaketaren aitzindarietako bat da, egin zuen ekarpen teorikoagatik, nahiz eta praktikan arrakastarik ez izan. Bere ideia gehienak *De subventionem pauperum* (Pobreei laguntza emateaz) liburuan argitaratu zituen 1526an. Latinez idatzirik liburu horretan, gerora gizarte-laguntza markatuko zuten ideia erabakigarri batzuk



[Iturria: https://eu.wikipedia.org/wiki/Juan_Luis_Vives]

agertzen ziren: laguntzaren arrazionalizazioa (indiskriminazioarekin amaituta), merezimenduaren eta lanaren garrantzia, eta hiria izatea laguntzaren bideratzailea, eta ez Eliza.

Humanismoak eta protestantismoak bideratu zuten pentsaera berrian berebiziko garrantzia hartu zuen merezimenduak, eta harekin estuki lotuta zihoazen lanaren gorai-pamena eta beharri-zana. Hori dela eta, Vivesen ustez, ez du zentzurik lan egin deza-keenari laguntza emateak, baina bai, aldiz, lanbideak irakasteak. Laguntza merezi dutenei bakarrik bideratu behar zaie, hau da, lan egiteko ezintasuna dutenei (umeak, zaharrak, ezinduak...).

Laguntza arrazionalizatu beharra zegoen, beraz, eta merezi-menduaren arabera erabaki nori bideratu eta nori ez. Horrek talka egiten zuen Elizak proposatzen zuen laguntza indiskriminatuarekin (limosna), eta Vivesek proposatzen du laguntza hiriarri dagokiola (administrazio zibilari), eta ez Elizari. Hiriak beste modu batera antolatuko zuen laguntza: pobreen laguntza eratu eta babestu

behar zuen, baina ez limosna hutsa eman, lanbideak irakatsiz baizik. Zahar eta gaixoentzako egoitzak irekiko ziren, eta bertan egingo zuten lan ahal zutenek. Horretarako guztirako, hiria auzotan banatzea proposatu zuen, eta horietako bakoitzean idazkari bat ipintzea, auzoko pobreen egoeraz arduratu zitezen (ik. Vives, 1985).

Laguntza merezi izateaz. Gai sakona agertzen zaigu: esan daiteke batzuek laguntza merezi dutela eta besteek ez? Zeren arabera erabakitzen da? Laguntza batzuk unibertsalak dira gure artean (osasungintza, hezkuntza): diru asko dutenek ez lituzkete jaso beharko zerbitzu horiek doan? Eta, bestalde, lan egin nahi ez duenari lagundu behar zaio? Merezi du?

2.1. TESTUA: JUAN LUIS VIVES

Juan Luis Vives: *Pobreei laguntza emateaz*: 101-106; 141-143 or.

BIGARREN LIBURUA. II. KAPITULUA

Pobreak etxean jaso eta haiei datuak hartzea

NORBAITEK galdetuko dit: Nola da posible hain jende multzo handi bati laguntza ematea? (...) Nire ustez, honela: pobreen artean, batzuk *ospitalak* izeneko establezimendu horietan bizi dira (...); beste batzuk eskale dabilta kalean; beste batzuk ahal duten bezala bizi dira, beren premiei lotsaz eutsiz, etxean. Gaixoak zaintzen eta sendatzen dituzten erakundeei esaten diet ospitaleak: hainbat behartsuri jaten ematen, neska-mutilak hezten, inoren umeak hazten, eroak giltzapean sartzen eta itsuek bizitza pasatzen duten lekuei. Jakin bezate hiriko errejidoreek beren arduetan sartzen direla zaintza horiek guztiak. [...]

Beraz, establezimendu horietako bakoitza bisitatu eta ikuska dezala bi errejidorez osatutako batzorde batek, eskribau batez lagundurik, eta idatziz jaso ditzatela errentak eta kopuruak, establezimenduak mantentzen dituen babespekoen izenak eta horietako bakoitza zer arazoirengatik sartu zen etxe horretan, eta aurkez ditzatela zerrenda horiek burgumaisuen eta udalbatzaren aurrean.

Pobretasunaren larritasuna beren etxeetan nozitzen dutenen izenak ere jaso ditzatela parrokia bakoitzeko bi diputatuk zerrendetan, beren seme-alabekin, xeheki jasoz beren premiak, beren lehenagoko bizimodua, eta zer gorabeherarengatik etorri ziren pobre izatera. Ikerketa hori erraz egingo da bizilagunek ematen duten informazioarekin eta zein eratako gizonak diren eta zer bizimodu eta zer ohitura dituzten ikusita. Ez bedi pobre batek beste baten pobretasunaz emandako lekukotasunik onartu, garbi baitago inbidiak ez duela atsedetik hartzen, eta horren berri eman biezaie burgumaisuei eta gobernuari. Zorigaitzean bat-ba-

tean eroritako bakarren bat balego, azaldu dezatela hori ere Senatuaren aurrean, beren kideetakoren baten bitartez, eta irtenbideren bat aurki diezaiotela baldintzen eta izaeraren arabera.

Etxe finkorik ez duten eta osasun ona duten eskale alferrek beren izena eman dezatela udalbatzaren aurrean, eta argi dezatela zergatik dabiltzan eskean ere; baina hori bai, lokal edo leku irekiren batean, ez baita komeni jendaila kirasdun horrek bere hankak udaletxean jartzerik; eta gaixo dauden eskaleek ere egin dezatela gauza bera bi-lau bat errejidoreen aurrean, mediku bat aholkulari dutela, hain zuzen ere, ikusmira hori ez jartzeagatik udalbatza osoaren begien aurrean, eta horiek ere aurki dezatela beren bizimoduaren lekukotasuna eta ziurtapena eman dezakeen norbait.

Korporazioak azterketa hori eta baita beste xehetasun horiek guztiak egiteko aukeratzen ditueni, eman diezaiela behartzeko, derrigortzeko eta, are, baita kartzelatzeko ahalmen zabala ere, korporazio horrek, osorik, izan dezan obeditzen ez dutenei buruzko aginpidea.

BIGARREN LIBURUA. III. KAPITULUA

Nola lortu behar den horiek guztiak mantentzea

EZER baino lehen, Jainkoak gizadi guztiarentzat agindutakoa izango da delituari ezarriko zaion isuna, hau da: bakoitzak jan dezala bere lanarekin irabazitako ogia. [...]

Aintzat hartu behar da adina eta beharbadako osasunik eza, baina kontuz ibiliz, inork ez gaitzan engaina itxurak eginez edota minen bat daukala esanez, ez baitira gutxitan gertatzen horrelakoak ere. Gezurretako itxura horiek saihesteko, medikuaren irizpena erabiliko da, eta gezurretan ari denari zigorra emango zaio. Sano dauden eskaleei dagokienez, kanpotarrak bakoitza bere jaioterrira bidaliko da, zuzenbide zibilak aurreikusten duen eran, baina bidaiarako behar dutena emanez, ez baita gizalegea behartsua biderako behar duenik gabe bidaltzea. Hori egitea, izan ere, zer da, bada, lapurreta egitera bidaltzea baino?

BIGARREN LIBURUA. X. KAPITULUA

Aholku hauek guztiak praktikan jarritz gero, lortzen diren abantailak, gizatiarrak nahiz jainkotiarrek

HANDIA *da batere eskalerik ikusten ez den hiriaren ohorea*. Eskale asko izateak malezia eta gizatasunik eza erakusten du partikularren artean, eta ongizate publikoaren ardurarik eza magistratuengan.

Asko jaitsiko dira lapurreta, gaiztakeria, ebasketa, odolezko delitu eta krimen kapitalen estatistikak; bakana-goak izango dira kontakatiluak eta sorginkeriak. Horretan ez izan zalantzarik, zeren eta premia baretu egingo da, hori izaten baita bizioak eta ohitura zantarrak mugitzen eta bultzatzen dituena.

Handiagoa izango da barealdia. Guztientzako ontasuna lortua izango delako.

Aldaketarik gabeko adiskidetasuna izango da nagusi. Pobreenak ere ez duelako aberatsenaren inbidiarik izango, baizik eta, aldiz, bere ongile gisa maiteko duelako; eta aberatsenak ere ez duelako pobreenaren errezelorik izango, baizik eta, aldiz, bere onuraren eta ondo merezitako esker onaren oinarri den neurrian maitatuko duelako, izaerak on egiten diogun hori maitatzera garamatzen neurrian. Horrela, beraz, grazia bat beste baten sorrera izango da.

Askoz ere seguruagoa, osasungarriagoa eta gustagarriagoa izango da tenpluetara joatea eta hirian barrena ibiltzea. Ez zaigulako begietan sartuko, hobenduz, zatarkeria hori, Naturari berari eta, frankoz nabariago, gizakiaren gogo urrikalgarriari izua eragiten dion zauriz eta gaitzez jantzitako itsuskeria hori. Hain ondo bizi ez direnak ere ez dira desegokitasuna ontzat ematera behartuta egongo; eta horretarako borondatea duena ez da atzera geratuko eskale samalda baten aurrean eta merezi ez duen bati mesede egiteko beldurraren aurrean.

Irabazirik handiena hiriarentzat izango da. Izan ere, hainbeste izango dira neurritsuago, ondo hezitako eta aberriarentzat baliagarriago bihurtutako herritarrak, eta aberria bera ere barruragotik maitatuko dute berak mantentzen dituelako, eta ez dute, jadanik, iraultzarik edo sediziorik sortuko; hainbeste, kaleko bizimodutik ateratako emakumeak; hainbeste, arriskutik salbatutako dontzeilak; hainbeste, kontakatilukeria eta sorginkerietatik garbitutako sorgin eta zelestinak. Neskato-mutikoei letrak, erlijioa, neurria eta arte eta lanbide zuzenak irakatsiko zaizkie, asko laguntzen baitute bizitza zintzo eta jaiarazkoa izaten.

Eta amaitzeko: *arima askori erlijioa eta askatasuna ematea izango da abantaila gorena*. Gizakiak argi ikusten duen neurrian bere egitekoetako bat errukiaren aginduak betetzea dela, erraz asko beteko ditu, inolako derrigortze edo esan beharrik gabe.

2.1.2. San Bizente Paulekoa eta Santa Luisa Marillac-ekoa



Vincent Desaul

[Iturria: https://es.wikipedia.org/wiki/Vicente_de_Pa%C3%BA]

Bizente Paulekoa Frantzian jaiotako apaiza da (1581-1660). Karitate-lanagatik ezaguna, 1617an *Karitateko Damak* izeneko instituzioa sortu zuen, eta bertan andre aberatsak bildu zituen, behartsuei laguntza emateaz arduratzeko. Urte batzuk geroago, ostera, 1633an, Luisa Marillac-ekoarekin *Karitateko Alabak* izeneko erlijio-ordena sortu zuen, aurreko esperientzia ez baitzitzaien nahikoa iruditu. Ordena horren helburu nagusia karitatea zen: behartsuekiko, presoekiko, hiltzorian zeudenekiko laguntza, eta abar.

Bizente Paulekoak Aro Modernoko egoera berri hartan katolizismoa nola egokitu zitekeen erakusten du. Esanda utzi dugu laguntza ulertzeko modua aldatzen ari zela humanismoaren eta protestantismoaren eraginez. Hemen, berriz, ikusten dugu nola, aldaketa haren aurrean, Elizak karitatea lantzen jarraitzen duen (modu indiskriminatuan, hau da, eskatzen duten guztiei), baina ezaugarri berriak gaineratuta, hurbiltasuna eta arreata pertsonalizatua, batez ere, limosnaren bidez ezina zena.

Era horretara, Bizente Paulekoak berriztapen asko bultzatu zituen: gaixoak eta pobreak egoitzetan itxi beharrean, gizartetik bakarturik, beren familian eta inguruan artatzea proposatzen zuen; limosnak komentu eta monasterioetan zentratu beharrean, hiri eta herrietan sartzea proposatzen zuen, jakiak edo sendagaiak behartsuei bideratuz. Gainera, pobreekiko errespetua aldarrikatzen zuen, mespretxatu gabe eta umiltasun osoz jokatzuz (ik. Orcajo eta Perez, 1981).

2.2. TESTUA: SAN BIZENTE PAULEKOA

San Bizente Paulekoa: *Karitateko Alabei egindako hitzaldiak*

1647ko maiatzaren 30eko hitzaldia: ARAUEI BURUZKOA

O! Baina Jauna, esango lidake bakarren batek, esaten erraza da hori, baina oso zaila, berriz, gauza guztiak esaten zaizkigun bezala egiten. Makina bat gauza sortzen zaizkigu askotan, etxe barruan ordu jakinetan egiten direnak eta egiten uzten ez dizkigutenak. Baina, ene alabatxoak, lanbide zailtan lan egiten duzuen guztiontzat esan behar dizuet ez dela inolako atzerapenik izan behar pobreen zerbitzukoak diren gauzak egiteko. Izan ere, zuen errezoko orduan, goizetik, botikaren bat eramatera joan behar baduzue, tira bai, segi lasai, Jainkoaren borondate santuaren aurrean onarpen-egintza egin ondoren. Eskaini berari zuen ekintza hori, zuen asmoarekin bat egin etxean edo beste inon egiten den errezo horrekin, eta segi lasai, inolako kezkarik gabe.

Eta itzultzerakoan, otoitz-ordu bat edo irakurketa espiritual pixka bat egiteko bezain eroso sentitzen bazarete, bejondeizuela! Baina aukera hori galduz gero, ez daukazue zertan urduritu, ezta huts egin duzuela pentsatu ere, zeren eta hori beste helburu garbi batengatik alde batera uztea ez baita ezer galtzea. Eta helburu garbirik, bat baldin bada munduan, alabatxo maiteak, lagun hurkoaren zerbitzura egotea da hori. Hori ez da Jainkoa alde batera uztea, Jainkoa Jainkoarengatik uztea baizik, alegia, Jainkoaren ardura bat beste batengatik uztea, obligazio-maila handiagokoa edo meritu handiagokoa delako, noski. Otoitz-ordua edo irakurketa utzi dituzuela, edota isiltasuna hautsi duzuela pobre bati laguntzeagatik; jakizue, alabatxook, hori dena egitea Jainkoa zerbitzatzela dela. Bai kontsolazio ederra Karitateko Alaba on batentzat hau pentsatzea: «Nire gaixo errukarri horiek zaintzera noa, baina badakit Jainkoak zinez eskertuko didala une honetan egin behar nuen errezoaren orde besterik egitea», eta ondoren, Jainkoak deitzen duen leku horretara poz-pez joatea.

Karitateko Alabak: ARAUAK

«Laneko txandan dagoenak otordua prestatu, gaixoei eraman eta, hurbiltzen zaienean, pozez eta karitatez egingo die diosala; mahaitxoa jarriko die ohean, zapia gainean, eta katilua, koilara eta ogi zati bat emango dizkie; eskuak garbiarazi gaixoari eta bedeinkatu egingo du mahaia; eltzekoa atera gopor batean eta mahaitxoan jarriko du; gero, jateko gonbidapena egingo dio gaixoari Jesusen eta bere Amaren maitasunez; maitasun osoz guztia, bere umetxoarekin ari balitz bezala edota, hobeki esan, Jainkoari egingo balio bezala, Jainkoak berarentzat hartzen baitu pobreei egiten zaien on guztia. Haragia txikitu eta ura jarriko die baso batean». [Bitartean]... «Gure Jainkoaren hitz batzuk esango dizkie, nahigabetuta daudenak pozten saiatuz»



Frantzian jaio zen Luisa Marillac-ekoa ere (1591-1660), Bizente Paulekoaren bidelagun garrantzitsua. 1625ean alargundu zen, eta ondorengo urteetan behartsuenei laguntzera bideratu zuen bere bizitza. Bizente Paulekoarekin batera, *Karitateko Alabak* erakundea sortu zuen, 1633an. Izan ere, biak jabetu ziren Karitateko Damek ez zutela ez denborarik eta ez ekinbiderik ere behartsuen arazoari osotasunean erantzuteko. Horren aurrean, jatorri apaletatik zetozen «ahizpak» prestatzeari ekin zioten ahalik eta zerbitzu egokiena eman zezaten. Bizente Paulekoarekin hamarkada horietan gurutzatu zituen kartetan, xehetasunez deskribatzen dira behartsuenei laguntza emate-rakoan egunerokotasunean agertzen diren zailtasunak: baliabide falta, arazo etikoak eta abar (ik. Calvet, 1977; Sullivan, 2004).

[Iturria: https://es.wikipedia.org/wiki/Luisa_de_Marillac#/media/Archivo:Luisa-marillac.jpg]

2.3. TESTUA: SANTA LUISA MARILLAC-EKOA

Santa Luisa Marillac-ekoa: eskutitza San Bizenteri idatzia

1649ko azaroa

Nire Aitarik Ohoratuena:

Atsekabe handia ematen dit hain tematia izateak, baina gehiegizko presioa eragiten digu ume txikiak hartzen jarraitu ahal izateko dugun ezintasunak. Gure bi erizainek zazpi haur dituzte orain, botilatik edan nahi ez dutenak, eta ez dugu dirurik beste norbaitekin jartzeko; ez dugu ez maindire edo liho-hornidurarik, ez eta gehiago mailegatu ahal izateko itxaropenik ere. Erakutsi iezaguzu zure karitatea, Aita txit ohoragarria, eta jakin dezagun, kontzientzian, nola hil daitezkeen. Damek ez dute inolako ahaleginik egin guri laguntzeko, eta ziur nago haien gastuetatik etekina ateratzen ari garela uste dutela. Egia esan, hori egiaren kontrakoa da, erizainak mantentzeko ematen ziguten dirutik 100 libra besterik ez baikenituen gordetzen. Lan honetan sufritzen duten guztiei laguntzeko modu bakarra ezagutzen dut, eta hori da guri dagokiguna, Konpainiaren izenean, Auzitegi Goreneko presidenteari eskaera bat aurkeztea, haurrak hartzeko dugun arduratik libra gaitzan eta egoki deritzonak har ditzan. Hala ere, Damek plana babestu beharko lukete inor ez harritzeko. Bestela, etengabeko bekatu hilgarrian gaudela iruditzen zait.

Lau ume ekarri zituzten atzo. Edoskitzen ari diren zazpiez gain, hiru dira titia kendu dietenak. Berri guztiak kaxako umeak dira, eta horietako bat kartzelakoa da. Ahal izanez gero, berriro bularra eman behar zaie. Zailtasun horri aurre egingo bagenio zu parte izan gabe, gustura egingo nuke. Hala ere, gure babesgabatasunak ez du uzten. Damek ez dute ahal dutena egiten. Haietako inork ez du ezer bidali, eta Konpainiaokoez ere ez dute ezer jaso, gehienek alde zurretik ordaindu dituztelako kuotak.

Erruki gaitzala eskatzen diot Jainkoari. Beldur naiz zorigaitz hau guztia ni naizelako ote den, ene Aita Ohoratuena; zure alabarik esanekoena eta esker onekoena.


Diskriminazioa/Indiskriminazioa. Diskriminatzeak, berez, bereiztea esan nahi du. Diskriminazioa aldez aurretik egiten dugunean, aurreiritzi gisa, kutsu negatibo ezaguna dauka, Nazio Batuek eurek salatua: ezin da inor diskriminatu erlijio, arraza, sexu edo halako gaiengatik. Baina pentsa dezagun, bestalde, diskriminatzeak zentzu positiboa ere eduki dezakeela: laguntza emateko momentuan bereizi nahi ditugu pertsonak eta eskaerak, bakoitzaren egoera eta beharrianak, eta abar (arreta indibidualizatua ere esan diezaiokegu horri). Alde bietan egon daitezke arazoak: asko bereizteak prozeduraren menpe geratzea ekar lezake; ezer ez bereizteak, berriz, sistemarik gabeko laguntza.

2.2. Gizarte-laguntza Aro Garaikidean

xviii. mendearen amaieran beste aldaketa nabarmen eta funtsezko bat hasi zen garatzen Mendebaldeko Europan, Britainia Handian zehatzago. Merkataritzan oinarrituriko kapitalismoari industrian oinarriturikoak jarraitu zion: makina berriek produkzioa biderka zezaketen, eta hark hainbat ondorio ekarri zuen gizartera. Aldaketa aroa izan zen, industrializazioaren eragina bizitzaren eremu guztietara zabaltzen. Egoera berriak hiru zutabe nagusi zituen:

1. **Gizartearen industrializazio- eta urbanizazio-prozesuak.** Lantegiak hedatu egin ziren, eta lantegien inguruan hiriak hazi. Bertan langileak metatzen ziren, oso baldintza txarretan bizitzeko: gaizki ordaindurik, inolako segurantzarik gabe, zapalkuntza jasanez, umeak lanean, lanegun luzeak, eta abar. Nolanahi, baldintza haiekin ere, migrazio-uholde bat sortu zen landa-eremutik hirira, industriak hirian metatu baitziren. Baina hiriak ez zeuden halako hazkunde baterako prestatuak, eta berehala nabaritu ziren ondorio negatiboak: etxebizitza desegoki eta txikiak, jendea pilaturik, osasun-baldintza txarrak... Oro har, industrializazioak bizitza ulertzeko modu berri bat ekarri zuen berarekin: garrantzitsuena produkzioa zen, ahalik eta kostu txikienean, langileen baldintzetan erreparatu gabe.
2. **Estatu liberala.** Gizarte-aldaketa guztiek justifikazio ideologikoa behar dute, eta industrializazioarena burgesiak zuzendu zuen, estatu liberalaren bidez. Erdi Aroko pentsaeraren kontra, gizaki guztien arteko berdintasuna eta autonomia pertsonala aldarrikatu ziren. Eta printzipio horien izenean, estatu liberala garatu zen; hots, askatasun indibidual hori ez oztopatzeko, ahalik eta esku-hartze txikiena eskatzen duena. Estatuaren helburua, hain zuzen ere, askatasun indibidual hori bermatzea zen, eta horretarako funtsezkoa zen oztopo izan zitekeen guztia kentzea. Estatuaren zeregina, hortaz, polizia lana egitea zen, ziurtasuna bermatzeko.
3. **Subjektu berriak: burgesia eta langileria.** Gizartea aldatzeko mugimendu horretan, burgesia agertu zen. Erdi Arotik aurrera indarra metatzen hasi zen, eta herriaren estamentuaren barruan, nobleziaren pribilegioekin amaitzea izan zuen helburu, pribilegio haiek bere garapena oztopatzeko zuten eta. Borroka luzean, garaipena mailaka eta apurka lortu zuen, hiru aurrerapen nagusien bidez: 1688an, Ingalaterrako Iraultza; 1776an, Estatu Batuetakoa; eta 1789an, Frantziako Iraultza. xix. mendean boterea hartu zuen lurralde industrializatuetan eta, merkatu berriak bilatzeko aitzakiarekin, inperialismoa garatu zen bere zuzendaritzapean.

Burgesiaren nagusitasunaren aurrean eta aipatu ditugun bizi-baldintza kaxkarren aurrean, herriaren bigarren subjektua zegoen, langileria gisa eratzen hasi zena. Azaldu ditugun iraultzetan, herri gisa agertu ziren denak, burgesia eta langileria; baina industrializazioa garatu ahala, bien arteko enfrontamendua saihetsezin bihurtu zen. Baldintza kaxkarrei aurre egiteko, beren arteko batasunak eragin zezakeen presioaren garrantziaz jabetu ziren langileak, eta horrela sortu ziren langileak batzeko eta euren eskubideen alde egiteko erakundeak: sindikatuak. Horrekin batera, pentsaera berria justifikatzeko burgesiak liberalismoa oinarri hartzen duen bezala, langileriak sozialismoa eta anarkismoa landu zituen. Langileen teoria berri haiek ez zuten bat egiten liberalismoaren printzipioekin, eta horrek gatazka luzeak sortu zituen alde bien artean.




3. irudia. Industrializazioaren eragina.
(Iturria: guk egina.)

2.2.1. Lana, pobrezia eta gizarte-laguntza ulertzeko modu berriak

Industrializazioak eta burgesiaren garaipenak erakarritako aldaketa orokorren artean, bizi-erantzeko modua ere aldatu zen; horren barruan, bilakaera garrantzitsua gertatu zen lanaren eta pobrezia-erantzeko moduari zegoenez, eta, ondorioz, baita gizarte-laguntza ulertzeko moduan ere. Ikus dezagun nola.


Lana ez zegoen ondo baloratua Europako Erdi Aroan: nobleziak, adibidez, harro erakutsi nahi zuen lanik ez zuela egiten; eta erlijioan kontenplazioa zen helburu garrantzitsua. Herriak egiten zuen lan, eta hura, onartu beharrekoa bazen ere, umiliagarria zen egiten zuenarentzat. Baina herriaren parte zen burgesiaren pentsaerak eta erlijio protestanteak goitik behera aldatu zuten ikuskera hura, eta industrializazioan ondo islatuta geratu zen: lanik ez egitea zerbait lotsagarri gisa ikusten zen, zama bat gizartearentzat. Ezintasunen bat edukitzea zen lan egiteari uko egiteko arrazoi bakarra.



4. irudia. Lana ulertzeko modu berria.
(Iturria: guk egina.)


Pentsaera horren haritik, *pobrezia ulertzeko modua* ere aldatu egin zen. Aurreko ulerkeran pobrezia zerbait naturaltzat jotzen zen: batzuk aberatsak ziren bezala, besteak pobreak ziren. Egoera hura ez zen gainditu behar, eta, ondorioz, ez zen bultzatzen lan egitea pobreziatik irteteko. Pentsaera berrian lanari emaniko duintasunak, ordea, hori dena aldarazi zuen: pobrezia ez zen gainditu ezineko egoera, eta pobreziatik irteteko bide nagusia lan egitea bilakatu zen. Hala ere, lana oso modu desberdinean ulertu zuten gizarteko subjektu berriek, burgesiak eta langileriak.

Burgesiak ez zuen begi onez ikusten pobrezia, lanik ez egitearekin edo lanerako gaitasun ezarekin batzen baitzuen. Pobreak gizartetik at nahi zituen, bere ondasunetarako arriskutzat jotzen baitzituen. Horretarako, errepresioa erabili zuen. Langileria, berriz, pobreziaren atarian bizi zen, eta gizarte burges horretan integratzeko arazoak jasaten zituen. Lanean ziharduen, baina askotan soldatarekin bizitzeko ere ez zen heltzen, eta, bestalde, kapitalismoak berarekin zeramatzan krisiak zirela eta, batzuetan langabezia saihetsezina ere egiten zitzaion. Hori dela eta, pobrezia kontzientea aldarrikatu zen langileen mugimendutik, duintasuna eta eskubideak aldarrikatzeko modu gisa.



5. irudia. Pobrezia ulertzeko modu berria.
(Iturria: guk egina.)

Azkenik, *gizarte-laguntza lantzeko modua* ere aldatu egin zen. Erljio-izaera galdu egin zuen neurri handi batean, eta ikuspuntu berriak bereganatu. Jainkoarekiko maitasunean oinarritu barik, gizakiarekiko maitasuna hartzen da abiapuntu, baina aldaketa nabarmenak daude.



6. irudia. Gizarte-laguntza ulertzeko modu berria.
(Iturria: guk egina.)

Burgesiaren laguntza, pobreziaren arriskutik babesteko tresna gisa ulertu behar da askotan (pobreak gehiegikerietan ez jausteko, alegia). Pobreak multzo handi bitan sailkatzen ziren: alde batetik, lanik egin nahi ez zutenak delitugiletzat jo ziren; eta, bestetik, ezintasunak edo adinak markaturik zeudenei lagundu egingo zitzairen. Baina, horrez gain, funtsezkotzat jo behar da normalean burgesiako andreen gidaritzapean garatu zen beste ildoak, errukiak bultzatuta, eta gizarte-langintzaren bilakaeran erabakigarri gertatuko zena: laguntza karitatiboa.

Langileriak, ordea, klase-ikuspegia garatu zuen, langile guztiak bat izatearen kontzientzia, alegia. Horrela ulerturik, pobreekiko laguntza elkartasunaren izenean egiten zen, zapalketa berberaren ondorioz sortzen baita pobrezia. Era horretara, elkartasun-forma berriak sortu ziren, gerora gizarte-langintzaren beste iturria izango zena: elkartasunean oinarritutako laguntza.

2.4. TESTUA: **POBRETASUNARI BURUZKO IKUSKERA BERRIAK**

Bronislaw Geremek: *errukia eta urkamendia*: 259. or.

Filantropiaren aldeko mugimendua ongintza pribatuaren alde jartzen zen; izan ere, harengan bilatu nahi zuen karitateko eskolen eta pobreei laguntzeko beste era batzuen funtzionamendurako bermea, zeren eta era horretan errealitate bihurtzen baitziren gizarte-laguntza hutsaren gainetik zeuden beste arrazoi batzuk, eta gizartearen bakerako oinarri egonkorrak finkatzen baitziren. Miseria okertutako bizimodu baten ondorioztat hartuz, obediencia hezteko bitartekotzat hartzen ziren eskolak, laneko ohitura eta legearenganako eta ordenarenganako errespetua sartzeko bitartekotzat.

Karitatea printzipio laikoetan oinarritzen saiatzen ziren humanitarismoa eta filantropismoa, eta lagun hurkoarenganako maitasunaren laiotze moduko bat egiten zuten, hain zuzen ere, ospitaleak eta umezurtz-etxeak eraberritzeko mugimenduak karitateko erakundeen laiotzea ekarri izan zuen bezalaxe, xvi. mendean lehenengo erdialdean. Bi kasutan, erakunde eta ideologia zaharren eta berrien arteko bat-egite eta berregokitze bat gertatu zen. Norbanakoaren karitateak eta laguntza publikoak osatu egiten zuten elkar: bata eta besteak balio zuten zoriona bilatzeko. Jarrera tradizional kristauak indarberritzeko estimulu berriak sortzen ziren filantropia laikoa garatuz, bai norbanakoaren ekimenetan eta bai Eliza barruko erakundeen jokabidean ere. Zaila da premiadunei benetako laguntza ematen zieten ekimen horien eragin soziala oharkabean pasatzea. Hondatutako bizi-baldintzen eta zoritxarraren ondorioak arintzen zituzten ekimen horiek, eta gizartearen ustelkeria eta antolamendu faltako prozesuak nabarmentzen. Garbi dago aringarri soilak zirela, hala ere, pobretasunak hartzen zuen eremuaren zabaltasuna ikusita.

Karitatezko ekimenei hartzen zitzairen paternalismo usaina izango zen, seguru asko, haiek gaitzesteko zegoen faktore nagusietako bat. Behin eta berriz errepikatua, delako pobreek gizarte-maila aberatsen laguntza jasotzeko eskubidea dutelako uste hori ez zen erretorika hutseko mugetatik kanpora iristen. Miseriaren eta langileen arazoaren arteko loturak, industrializazioaren garaian, zera ekarri zuen: langileen klase kontzientzia garatzen eta sindikatuak eratzen zihozen neurrian, karitateko erakundeenganako etsaitasuna gero eta handiagoa izatea.

2.2.2. **Gizarte-laguntza eratua: egile berriak**

Laguntza-formetan erlijioak indarra galdu, eta Elizak laguntza antolatzeko gaitasuna galtzen zuen neurrian, gizarte-laguntza beste modu batera antolatu beharra zegoen. xix. mendean giro egokia sortu zen ekimen berriak lantzeko. Hainbat eragile aipatu behar da:

1. **Eliza.** Lehenago bezala, jarduera horretan jarraitu zuen, eta gizarte-ekintzak ugaltu zituen; baina ez zen ordurako eragile bakarra.
2. **Langileak eta gizarte-erreformaren aldeko mugimendua.** Sindikatuak eta langile-mugimenduak, batez ere, baina baita talde kristauak ere, herriaren baldintzak hobetzea eskatzen zuten. Estatuaren esku-hartzea eskatzen zuten, baina bitartean modu espontaneoan hasi ziren eratzen: haurtzaindegiak, jolas-parkeak...
3. **Administrazio publikoa.** Pentsaera burgesak bultzatutako liberalismoak uko egiten zion estatuaren esku-hartzeari, baina hasierako pasibotasun hura gaindituz joan zen denborarekin,

langileen presioaren ondorioz, batez ere. Apurka, bere gain hartu zituen gizartean eta lanaren munduan sortzen ziren hainbat arazo, eta legerian gizarte-neurriak barne hartzen hasi zen. Horrez gain, hiriek araudi berriak landu zituzten beharrezanean aurre egiteko. Ingalaterrako Pobrearen Legea xvii. mendetik zetorren, baina xix. mendean ekarpen berriak egin zitzaizkion. Hiriek landutako esperientzia berrien barruan Elberfeld (Alemania) aipa daiteke. Hiri hura famatua egin zen gizarte-laguntza antolatzeko metodoagatik.

4. **Elkarte pribatuak edo filantropikoak.** Burgesiaren eta liberalismoaren pentsaeran estatuak ez zuen gizarte-gaietan esku hartu behar. Aitzitik, protagonismoa gizarteari berari utzi behar zitzaion, eta horren ondorioz dira elkarte pribatuak. Askotan emakume aberatsek osatzen zituzten horiek, eta asko ugaltu ziren xix. mendean. Lan egiteko moduak eta eremuak asko ziren, baina koordinazio falta ikaragarria sumatzen zen, eta horrek eraginkortasun falta ere ekarri zuen.

Lau eragile horiekin antolatu zen gizarte-laguntza, eta oraingo gizarte-langintzaren iturri dira.

2.2.3. Aurrekari bat: Thomas Chalmers

Esperientzia azpimarragarria da Thomas Chalmersena (1780-1847). Eskoziako artzain presbiterianoa (protestantismoaren adar bat) zen, eta Glasgoven pobreziari aurre egiteko egin zuen esperientziak eragin handia izango zuen ondorengo urteetan, bere momentuan arrakasta handirik eduki ez bazuen ere. Bere filosofia oso simplea zen:

1. **Limosna-sistemarekin amaitzea:** diru publikoa alferrik gastatzen zelako, pobrearen umiliazioa zekarrelako, eta fede oneko jendearen laguntza gaizki bideratzen zuelako.
2. **Karitatea egiteko modu berri bat.** Chalmers laguntza publikoak ezartzearen kontra agertu zen, norberaren parte-hartzea eragozten zuelako. Haren ordean, sistema zuhurra eta lau oinarri-duna proposatzen zuen:
 - Garrantzitsuena, jendearen ekonomia eta ohiturak lantzea, horiek osasuntsuagoak izan zitezela lortzeko.
 - Senideen arteko laguntza sustatzea.
 - Aberatsek pobreei laguntzea bultzatzea.
 - Pobre batzuek beste pobreei laguntzea lortzea.
3. **Laguntza emateko azterketa sakonak egitea, kasuz kasu.** Hartarako, eraketa eraginkor bat proposatzen zuen.

Chalmersek behartsuei eman beharreko laguntza eratu zuen, baliabideak koordinatuz eta administrazio zorrotz eta eraginkorra eramanez. Kasuen indibidualizazioa ere defendatu zuen, eta, oro har, garaiko ideiekin bat eginez, onuradunen izaera aldaraztea lortuko zela uste zuen: langileagoak izatea, alferkerian ez erortzea, eta horrela pobreziari aurre egitea (Moix, 2006: 45-49; Munuera, 2003: 73-74).

Erabilitako erreferentziak

- Ander-Egg, Ezequiel (1984): *Historia del Trabajo Social*. Humanitas.
- Calvet, Jean (1977): *Luisa de Marillac*. CEME.
- de la Red, Natividad (1993): *Aproximaciones al trabajo social*. Siglo XXI.
- Escartin, Mari Jose, eta Suarez, Esperanza (1994): *Introducción al trabajo social. I (Historia y fundamentos teórico-prácticos)*. Aguacilara.
- Friedlander, Walter (1984): *Dinámica del Trabajo Social*. Pax-México.
- Geremek, Bronislaw (1998): *La piedad y la horca. Historia de la miseria y de la caridad en Europa*. Alianza.
- Malagon, Jose Luis, eta Sarasola, Jose Luis (2003): «Nacimiento y evolución del Trabajo social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 78-109 or. Alianza.
- Miranda, Miguel (2004): *De la caridad a la ciencia. Pragmatismo, Interaccionismo simbólico y Trabajo Social*. Mira.
- Moix, Manuel (2006): *Teoría del trabajo social*. Síntesis.

- Munuera, Pilar (2003): «Precedentes del Trabajo Social: precursores y reformadores sociales», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 50-77 or. Alianza.
- Orcajo, Antonino eta Perez, Miguel (1981): *San Vicente de Paul. II. Espiritualidad y selección de escritos*. Biblioteca de Autores Cristianos.
- Soydan, Haluk (2004): *La historia de las ideas en el trabajo social*. Tirant lo blanch.
- Sullivan, Louise (1991): *Spiritual writings of Louise de Marillac*. New City Press.
- Vazquez, Octavio (2003): «Teorías de las principales figuras del Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 110-130 or. Alianza.
- Vives, Juan Luis (1985): *Del socorro de los pobres*. Marsiega.

Autoevaluazioa

- 1) **Laguntza arrazionala(k)...**
 - a) Asistematikoa da eta mundu guztiari ematen zaio.
 - b) Limosnan oinarritzen da, eta ez dago harremanik hartzailearen eta ematen duenaren artean.
 - c) Eraginkortasuna bilatzen du, kapitalismoaren hastapenarekin hirigunean behartsu gehiago biltzen hasten delako.
- 2) **Noiz eta non jaio zen Juan Luis Vives?**
 - a) 1492an, Valentzian.
 - b) 1220an, Parisen.
 - c) 1599an, Bruselan.
- 3) **Juan Luis Vivesen arabera...**
 - a) Elizak izan behar zuen laguntzaren bideratzaile, eta ez hiriak.
 - b) Merezimenduaren arabera laguntza ematea ez zen zilegi.
 - c) Pobreen laguntza eratu eta babestu behar zen, baina ez limosna emanaz, lanbideak irakatsiz baizik.
- 4) **Non eta noiz jaio zen Bizente Paulekoa?**
 - a) 1292an, Alemanian.
 - b) 1412an, Erresuma Batuan.
 - c) 1581ean, Frantzian.
- 5) **Bizente Paulekoaren arabera...**
 - a) Gaixoak eta pobreak bakartu beharrean, beren familian eta inguruan artatu behar ziren.
 - b) Elizak uko egin behar zion karitatea lantzeari.
 - c) Laguntza ematerakoan, arreta pertsonalizatua arbuizatzen zuen.
- 6) **Luisa Marillac-ek...**
 - a) Juan Luis Vivesekin batera sortu zuen Karitateko Alabak erakundea.
 - b) Bizente Paulekoarekin batera sortu zuen Karitateko Alabak erakundea.
 - c) Ez zuen harremanik izan Karitateko Alabak erakundearekin.
- 7) **Esan esaldi hauetako zein den okerra...**
 - a) xviii. mendeko industrializazioak urbanizazio-prozesua eragin zuen, landa-eremutik hirira jendea bultzatuz.
 - b) Burgesiak zuzendutako industrializazioak estatu liberalaren sorrera ahalbidetu zuen.
 - c) Industrializazioaren ondorioz subjektu berriak sortu ziren, hala nola nekazariak eta lur-jabeak.

- 8) **Industrializazioaren garapenak ekarritako aldaketa orokorren artean, zein dator bat errealitatearekin?**
- a) Lana ez zegoen ondo baloratuta burgesiaren aldetik, eta harro erakusten zuten lanik ez zutela egiten.
 - b) Pobrezia zerbait naturalizat jotzera igaro zen industrializazioarekin.
 - c) Pobrezia kontzientea aldarrikatu zen langileen mugimendutik.
- 9) **Thomas Chalmersen filosofiak honako ezaugarri hauek ditu:**
- a) Limosna-sistemearekin jarraitzea.
 - b) Kasuz kasuko azterketa sakona, laguntza ematerakoan.
 - c) Karitatea egiteko modu berria proposatzen zuen, laguntza publikoa sustatuz.

3.

Gizarte-langintzaren bidean: COS eta *Settlementen* mugimendua

Elkarte pribatuak asko ugaltu ziren XIX. mendean Britainia Handian, eta laguntza antolatzeko bide eraginkor bihurtu ziren. Baina laster arazoak ere sortu ziren, aurreko akatsak errepikatzen hasi zirenean (Moix, 2006: 73 t. hur.):

1. Elkarrekin ez zuten inolako bereizketarik egiten laguntza eskaintzean, eta diskriminazio nabaria gertatzen zen: batzuek alde askotako laguntzak lortzen zituzten; besteek, berriz, ez zeukaten modurik haiek lortzeko.
2. Pobre kopuru handiak eta bereizketarik gabeko laguntzak emateak kostu handia ekarri zion burgesiari, bere barrutik ateratzen baitziren diru-laguntzak.

Bereizketarik gabeko karitateari aurre egiteko asmoz sortu zen Londresen, hain zuzen ere, *Charity Organization Society (COS)*.

3.1. COS elkartea

1869an sortua, COSen hasierako pentsamenduak XIX. mendeko burgesiak garatutako *aukera-berdintasuna* islatzen zuen. Ongintza publikoaren kontra eta gobernuaren esku-hartze murriztaren alde agertu ziren, pobreziatik irteteko gakoa eta ardura pertsona inplikatuak berak zeukala uste zuten, eta ez beste inork. Bere izenak dioten moduan, laguntza eratu nahi zuen, eta merezi zuenari bakarrik eman; eta bestetik, dirulaguntzak murriztu behar ziren, eta alferrikako gastuak moztu. Laguntzak arrazionalizatzea eta eskeketasunarekin amaitzea, horiek izan ziren helburu nagusiak (ik. Moix, 2006: 66 t. hur.; Escartin eta Suarez, 1994: 41; de la Red, 1993: 49-52; Ander-Egg, 1984: 140-143; Malagon eta Sarasola, 2003: 101-103).

COSek, beraz, hiru irizpide nagusi jarraitu zituen:

- Karitatea eratzea.
- Pobreei tratu gizatiarra ematea.
- Kasu bakoitza banaka aztertzea, txirotasunaren benetako arrazoiak ikusteko.

Abiapuntu horretatik, COSek bilakaera argi eta garrantzitsua izan zuen. Hasierako pentsamenduan pobreziaaren errua pobreen beraren gain ipintzen zuen, arrazoi askorengatik: dirua alferrik gastatzea, administrazio txarra, edo limosna jasotzearekin konformatzea, adibidez. Egoera hartan, bereizketarik gabeko karitateak ez zuen laguntzen, arazoa betikitzen baino, eta, gainera, pobreen duintasuna behar zuten.

Hala ere, kasuen azterketak eman zuten esperientzian oinarriturik, batzuk laster konturatu ziren planteamendu erratua defendatzen ari zirela eta pobreziaaren errua ezin zitzaioela norbanakoari bakarrik leporatu, bestelako faktoreek eragin handia zeukaten eta. Hortik, ildo bi azaldu ziren COSen barruan: hasierako pentsaerari eusten ziotenak, batetik, eta gizartearen eraginari garrantzi berria ematen hasi zirenak, bestetik.

Oro har, bere programak honako puntu hauek jasotzen zituen (Escartin eta Suarez, 1994: 41):

- Ikerketa sail bat eratu zen laguntza-eskaerak aztertzeko.
- Hiria barruti txikitari banatzen zen, bakoitza bere arduradun boluntarioarekin.
- Laguntza material eta morala ematea zen helburua.
- Barruti handietan arduradun ordaindu bat zegoen, boluntarioekin batera lan egiteko.
- Instituzio pribatuen sorrera bultzatzen zuen.
- Banakako laguntzarako eta komunitateak laguntza eratzeko oinarriak ezartzen zituen.
- Ongintza-instituzio bakoitzak bere onuradunen berri ematen zuen, fitxategi zentral bat osatuz, gehiegikeriak eta errepikapenak saihesteko.
- Ongintza-eragileek prestaketa edukiko zuten.

Era horretara, COSe indar handia hartu zuen, eta laster hasi zen zabaltzen, Britainia Handian lehenengo, eta Estatu Batuetan, ondoren, 1877tik aurrera. 1891rako halako 75 elkarte zeuden Ingalaterran, eta 1892an 92 zeuden Estatu Batuetan.

Gizarte-langintzaren historian aipamen berezia merezi duten hainbat pertsonak COSen barruan lan egin zuen; hala nola, berrogei urtez idazkari izan zen Charles Stewart Loch-ek, Octavia Hill-ek edo Mary Richmond-ek.

3.1 TESTUA: COS-EN LAGUNTZA MODUAK

Manuel Moix: *Introducción al Trabajo Social*, 77-78; 95-96

COS modu egokian ezaugarritzeko, sentimendu edo bultzada filantropikoen gidatzen zutelako sinesmena baztertu behar dugu lehenik. Egia esanda, bere jarduerak ez zuen ekarri XIX. mendeko filantropiak ohiko karitate zaharra ordezkatzeko; are gehiago, inoiz ez zen izan, eta ez zuen inola ere nahi izan, elkarte filantropiko bat zentzu estuan. Horrek eragin zuen bere garaikideek leporatzea metodo zurruneziak erabiltzea eta, bestalde, karitateak gabeko jarrera eta jarrera filantropikoa erakustea, biak batera.

Era horretara, adibidez, ikerketa sail bat ezarri zuenean, zeinean Pobreentzako Legea zuzen erabiltzeko zaindarien zein karitate-elkarteek eta pertsona filantropoek laguntza-eskatzaileei buruzko informazioa jaso baitzezaketek, COSe hamaika eskale profesionalen kasuak ezagutarazi zituen, baita ezkutuan elkarte baten baino gehiagoren laguntza jasoa zutenena ere.

Horrez gain, COS ez zen inoiz saiatu diru gehiago biltzen beharrak asetzeko; horren ordez, bere autolaguntza ideala proposatu eta zabaldu nahi izan zuen, zeuden baliabideak bere printzipioen arabera banatuz. [...]

Halakoa zen elkarteak onartu zuen laguntza mota: indibiduala, pertsonala, aldi baterakoa eta erreformatzailea.

[Adibideak]

Ohean gaixorik urtebete zeraman eta bakarrik bizi zen emakume bati, jostun bati, libra esterlina bateko mailegua emango zitzaion «josteko makina bat erosteko behar zuen diru kopurua osatzeko», eta astero txelin bat itzuliko zuen.

Lanean osasuna galdua zuen gizon gazte bat, metalurgiari bat, «Gaixoentzako egoitza» batera bidaliko zen (Ramsgate), osatzeko; eta gastuak COSe eta «soldata ona zeukaten anaia ezkongabe bik» partekatuko zituzten.

Istripu batean belaunburua galdua zuen hamahiru urteko mutil baten gurasoei diru kopuru bat eman zitzaion, bota ortopediko baten prezioa osatzeko.

Bere sorlekuko parrokiatik urrun, eta, hortaz, kanpoko laguntza lortzeko ezindurik zegoen lau haur txikiren ama alargun bati «lisatzeko makina bat eta beharrezkoak ziren gainerako gauzak zituen garbitegi bat emango zitzaizkion etxetxo batean», eta gaixorik zegoen bere seme-alaba txikiena ospitalera bidaliko zuten.

Pobreentzako Legearen zaindarien bidalita, «Ni pobre bihurtzera behartu baino lehenago, gizonak zuek ikustera etorri behar nuela esan zidan» mezua zeraman andre zahar bati zazpi txelineko asteko pentsioa emango zitzaion, eta hura ordaintzeko dirua lagunei, enpresari ohi batzuei eta iloba bati eskatu zitzaion, hirurogeita hamasei urterekin lan egiteko eta bere mantenua lortzeko zaharregia zela ebatzi baitzen.

Beste alargun bati lisatzaile ogibidea irakatsiko zitzaion, era hartara bere eta lau seme-alaba txikien mantenua lor zezan.

Lana lortu ezin eta, emaztea eta hiru haur zituen eskulangile bati bost libra esterlina emango zitzaizkion, Amerikara emigratu ahal izateko «beharrezkoak ziren horniketeta eta gastuei» aurre egiteko, eta han bizi zen arrebak lagundu zezan.

Hogeita hamar urteren buruan, aldiz, *elkartea* gai zen 19 libra esterlina eta 10 txelin aurreratzeko «batere zorterik gabeko gazte oso pobree, argal eta zarpail bati», diru harekin «danbor bat eta jazz-bandetan erabiltzen diren moduko bestelako musika-tresnak» erosteko.

Laguntza-eskaera asko ez ziren onartu, noski, bai kasuaz arduratzen zen «District Committee» delakoak Pobreentzako Legeari edo bestelako agentzia bati utzi behar zitzaiola uste zuelako, bai eskatzaileak bete beharreko baldintzak betetzen ez zituela uste zelako.

«1123 kasua onartezina zen —Brixtoneko Komiteak 1884an gogorki iragarri zuen— eta ederki islatzen du zer joera duten batzuek karitatera jotzeko laguntza eske, garai txarretako eurena gorde beharrean. Hogeita hamasei urteko gizon batek, astean 34 txelin irabazita, etxeko errenta astean lau txelin eta sei penike ordainduta, eta zaindu beharreko emaztea eta haur bat bakarrik edukita, haurraren gaixondoa ordaintzea eskatu zuen, etxera ezin zuela bidali esanda, zor handiak zituen eta. Frogatu zen aurreko hamazortzi hilabeteetatik bost astez bakarrik egona zela lanik gabe». Banakako kasuak ebazteko onartu ziren irizpideak modu formalean aldarrikatu ziren, elkarteko gizarte-langileek erabil zituzten, eta zabalpen handia eman zitzairen, balizko bezeroek zehazki jakin zezaten zer itxaron zezaketen. *Elkartearen* 28. inprimakiak (Laguntza eskatzen duten pertsonentzako oharrak, alegia) eskatzaile asko uxatu bide zituen, COSek laguntza emateko exijitzen zituen baldintzak adierazita.

3.1.1. COSen lanaren balorazioa

COSek aurrerapen erabakigarriak ezarri zituen gizarte-langintzaren bilakaeran, programan ikusi dugunez. Hala ere, bere jokaerak kontrako kritika asko ere sortu zituen. Hauexek nagusiak (Moix, 2006: 105-107; de la Red, 1993: 51):

- Laguntza hartu behar zuen jendeak ez zuen gustuko bere bizitzaz egiten zen ikerketa.
- Elkarteen autonomia handiagoa eskatzen zuten malgutasun handiagoz aritzeko.
- Elkarite filantropikoen hotzegi eta zientifikoegitza jotzen zuten COSen lan-sistema.
- Intelektual batzuek COSek estatuaren esku-hartzea murriztea eta elkarite pribatuen lana proposatzea ekarri zuela kritikatzeko.

Hala ere, *COSen ekarpenak* handiak izan ziren. Batzuek gizarte-langintzaren lehenengo saio zientifikotzat jotzen dute. Natividad de la Redek (1993: 51-52) honako aurrerapen hauek aipatzen ditu hori frogatzeko:

- Sentimenduan oinarrituriko karitate asistematikoa kaltegarria izan daitekeela esatea, pobreak eroso senti zitezkeelako pobretasunean, bizitzan aurrera egiteko bestelako pizgarririk gabe.
- Karitatea eratzea eta sistema publiko eta pribatuaren arteko interrelazioa bultzatzea.
- Pobretasunaren *kanpoko* zein *barruko* arazoak aztertzea, eta ez bakarrik norbanakoarenak, baita ordena sozialarena ere.
- Gizarte-langintza norbanako, talde eta komunitate mailetan eratzen hastea.
- Profesionalen prestakuntzarako zientzia psikosozialen ekarpenak onartzea.

3.1.2. Octavia Hill



[Iturria: https://es.wikipedia.org/wiki/Octavia_Hill]

Ingalaterrako langileak bizi ziren baldintza kaskarren kontra lan egin zuen Octavia Hillek (1838-1912), batez ere, etxebizitzetako osasun falta salatuz. Salaketari konponbidea eman nahian, etxe zaharrak konpontzeko eta, ondoren, prezio merkean alokatzeko plana garatu zuen Londresen. Horrez gain, lan erabakigarria egin zuen COSen barruan, eta elkarteko pertsona nagusietakoa izan zen. Eragin handia izan zuen inguruko profesionalen artean, Estatu Batuetan, batez ere.

Bere ekarpenik handiena indibidualizazioari eta harremanari ematen zien garrantzia da. Bere ustez, laguntza ezin zen nolana egin: ikerketa bat egin behar zen gaiaz ondo jabetzeko, eta ondoren kasu bakoitzaren erregistro zehatza, artxibo bat egin ahal izateko eta COSen ekinbidea bateratu ahal izateko. Baina hori ez zen nahikoa, laguntza materiala ez baitzen inportanteena Hillen ustez, baizik eta norberaren errealizazioa. Hori dela eta, karitatearen kontra jo, eta laguntza eskatzen zuena gizarteratzea bihurtu zen bere helburu. Harreman pertsonal horiek lantzeko *bisitari laguna* sortu zuen

(geroago *gizarte-langile* izendatuko zen figurari egiten zion erreferentzia bisitari lagunak).

Hala ere, pobrezia norberaren erantzukizuna zela uste zuen, eta hura gainditzeko pertsonak egin behar zuela aldaketa. Gizarte-langileak horretan lagundu behar zion erabiltzaileari. Hori dela eta, estatuaren esku-hartzearen kontra agertu zen.

Gizarte-langilearen paperaren konplexutasunaz jabeturik, prestakuntzaz ere arduratu zen, unibertsitate-mailan. Gizarte-langileek jendearekin harremanak nola landu ikasten zuten, jendea nolako baldintzetan bizi zen, zelan lagundu ahal zitzaion jendeari, osasungintzaz eta legeriaz zerbait, eta abar. Ardura horretatik, 1903an *London School of Sociology* delakoa sortu zuen, gizarte-langintzarako lehenengo unibertsitate-eskola (ik. de la Red, 1993: 47; Escartin eta Suarez, 1994: 40; Hernandez, 1996; Moix, 2006: 116-120; Vazquez, 2003: 114-116).

3.2. TESTUA: OCTAVIA HILL

Octavia Hill: *Homes of the London Poor, 1883* (lehen argitalpena in *Fortnightly Review*, 1866ko azaroa)

I. ETXEJABETZA LONDRESEN

Duela bi urte, aspaldidanik buruan nuen plana gauzatzeko aukera izan nuen lehen aldiz: hainbat etxe esku-ratzea, gero pobreei uzteko astekako bizileku gisa. Nire ustez, frogatuta zegoen klase handi bat espirituali jasotzea neurri handi batean osasun-erreforma bat zela, baina ziur nengoen, orobat, osasun-hobekuntza jende helduaren arteko heziketa-lanaren bidez lortu behar zela; letargia eta nagikeriatik altxarazi behar zirela, eta horretara eramaten zituzten eragozpen guztietatik askatu. [...] Lur-jabeen behe-klase baten tiraniatik eta eraginpetik askatzeko gauza izan nahi nuen; beste ostalari degradatuekin etengabe komunikatu behar eragin kaltegarritik askatu, zikin metatuaren galbidetik askatu. Horrela, pobreek inoiz galtzen ez duten itxaropen hori jalgi liteke, beren buruari laguntzeko behar adinako energiarekin.

Plana azaldu nion Ruskin jaunari, eta atsegin handiz bat egin zuen. Berehala lortu zuen behar zen diru guztia, eta bere gain hartu zuen arrisku osoa. Edonola ere, berak erakutsi zidan plana askoz erabilgarriagoa izango zela, ordainaraziz gero; langile batek bere etxeagatik ordaintzeko gai izan beharko lukeela, eta ipinitako diruak, beraz, etekinen bat eman beharko lukeela: ehuneko justu bat inbertitutako kapitalaren gain. Eskumen eta jarraibide horiekin, hortaz, hiru etxe lortu nituen alboko auzoan. Alokatu egin nituen, errenta txiki baten truke. 65 urte falta ziren lagapenaren muga-egunerako; 750 liberaren truke eskuratu genuen hori. Ondoren, 78 libera gastatu genituen nire etxearen atzealdean gela handi bat egiteko, noizean behin maizterekin elkartzeko gela gisa erabiltzeko asmoz. Plana abian egon da urte eta erdi inguruz; emaitza finantzarioari begira, esan daiteke planak % 5eko interesa sortu duela kapital osoarekiko, eta, beraz, 48 libera

berreskuratu direla gastatutako kapitaletik. Bi gela alokatzen aritu gara baten prezioan, eta etxeak berritzen ere bai. Bestalde, zerga, lur-errenta eta aseguruaren gastu guztiak ere ordaindu ditugu. Kasu honetan ez dago errentak biltzeko gasturik, neronek egiten baitut hori. [...]

Gehien hunkitu nauena hauxe izan da: zailak izan diren tratu guztien azpian egon den enpatia hauteman duela jendeak. Nolabait, maitasuna eta kezka sentitu dira. Miresgarria da, halaber, ikustea beren gaineko legearen berdintasuna baloratzen dutela. Pasioaren indarkeria eta grina txarraren tolerantzia txandakatzen ohituta daude. Tolerantzia handiagoa espero zuten, eta ezjakinaren bihozberatasuna eta limosnak sarri; baina horren ordez bedeinkapen gisa hartu dute araudi arras zorrotza, eskakizun ezagunekoa, eta hitzez eta egitez egiazkoa den gobernuia. [...]

Planaren arrakasta ekonomikoaren arrazoiak bi izan dira. Lehen, bitartekaririk ez egotea, eta, bigarrena, errenta ordaintzeko puntualtasunari buruz oso zorrotza izatea. Une honetan ez dago errenta zor duen maizter bakar bat ere etxe horietan, eta denbora epe horretan, lehen esan dudan bezala, zor larriak oso-oso urriak izan dira. Era honetako alokairuen gaineko legea oso simplea da, eta, behin prozeduraren metodoa ulertutakoan, oso erraz eramaten da alokairuen jarduera; eta seriotasun osoz esan beharra daukat hobe dela lege-gastuak ordaintzea maizterrek kaleratzeko, errenta-atzerapenen ondorioz dirua galtzea baino —hau da, zenbat eta hobe etxeetako giroa, orduan eta atseginagoa maizterrentzat—. Araudiak erraz ulertzeko modukoa izan behar du, eta jendeak bere burua errespetatuko du araudia betetzen duela ikusita. Normalean nahikoa izaten da prozedurak hastea, jakinda egiazkoak direla eta ez mehatxu hutsa, atzerapenen ordaintzeta lortzeko: behin bakarrik izan da beharrezkoa egozpena. Gelen eskari handia egoteak botere handia ematen die jabeei maizterren gain. Behar bezala erabiltzeaz arduratu beharko dute orduan. Gizalegezko maizterrei lanaren gorabeherek eragiten dizkiete zailtasun handienak alokairua ordaintzeko. Bi modutan laguntzen saiatu naiz. Lehenik, dirua aurreztera bultzatuz: etengabe aritu dira horretan, eta udazken bakoitzean diru mordoxka bat metatu dute, familiak herritik kanpo daudenean sortzen diren zailtasunei aurre egin ahal izateko. Bigarrenik, nik neuk ahal dudan guztia egin dut nire maizterrei lana emateko lan gutxiko garaietan. Kontu handiz joan naiz lanak gerorako uzten, eskasiako garaietarako, eta horrela lanaren irregulartasunak arintzen ahalegindu naiz. Izan ere, diren neurrian kaltegarriak izanda ere, pobreen umekeriak are kaltegarriago egiten baititu.

(1866ko azaroaren 1a. *The Victorian Dictionary*, Lee Jackson-ek bildua)

3.1.3. Mary Richmond



[Iturria: https://en.wikipedia.org/wiki/Mary_Richmond#/media/File:Mary_Ellen_Richmond.png]

COS elkartearen arrakasta laster zabaldu zen Amerikako Estatu Batuetara, eta han bere bidea egin zuen gizarte-langintzaren bila-kaeran erabakigarri izan diren pertsona batzuen eskutik. Pertsonaia horien artean, Mary Richmond azpimarratu behar da.

Mary Richmondek (1861-1928) Estatu Batuetako COS zentro batzuetan lan egin zuen, eta eraketarako zeukan gaitasunagatik nabarmendu zen. Lehenengo emakumea izan zen COS bat zuzentzen, Baltimorren, oraindik 30 urte bete gabe zituela, 1891n.

Prestakuntza-lanean ere nabarmendu zen. Berak garrantzi handia ematen zion gizarte-langilearen prestakuntzari, eta, 1897tik aurrera, ikastaroak eta bilerak eratu zituen helburu horrekin. 1898an, hain zuzen ere, gizarte-langileentzako eskola bat eratu zen New Yorken. Irakasle izan zen bertan.

Baina eraketan eta irakasleen prestaketan ez ezik, Mary Richmond ikertzaile eta idazle modura ere nabarmendu zen. 1917an, gizarte-langintzan erabakigarria izan zen lan bat argitaratu zuen: *Social Diagnosis*. Bertan, gizarte-langintzarako metodo bat landu zen lehenengoz, batez ere, *kasuetako gizarte-langintzarako* (hots, banakako gizarte-langintza). Arrakasta izugarria lortu zuen lanak, eta gizarte-langile askorentzat oinarritzko liburu bihurtu zen. Ondoren, 1922an, *Zer da kasuetako gizarte-langintza?* liburu argitaratu zuen. Liburu horietan gizarte-langintza sistematizatu egin zuen: haren zeregina eta esparrua mugatu eta besteetatik bereizi, gizarte-langileen ezaugarriak ezarri, eta lanbidearen baldintzak azaldu zituen.

Mary Richmondek beharrezkotzat jotzen zuen gizarte-langintza gizarte-hobekuntzekin batzea. Gizarte-arazoak lantzeaz gain, gizarte-langileak salatu egin behar ditu arazo horiek. Ildo horretan, lan handia egin zuen adin txikikoen lana eragozten. Gainera, feminista ezaguna izan zen, emakumeentzako boto-eskubidearen alde lan egin zuena (ik. Ander-Egg, 1984: 169 t. hur.; Gaviria, 1995: 9 t. hur.; Moix, 2006: 146-150; Vazquez, 2003: 120-125).

3.3. TESTUA: **MARY RICHMOND**

Mary Richmond: *Banakako kasu soziala*

Puntu honetara iritsita, ez legoke gaizki dirulaguntzei edo laguntza materialei buruz zertxobait eranstea, gai horrek gaur egun iritzi publikoa alde zein kontra jarri baitu. Dirulaguntza, limosna den neurrian, demokraziaren kontrakoa da erabat, eta, hortaz, bidegabekeria eta madarikazio nabarmena da emalearentzat eta hartzailearentzat. Baina, ohiko jendearen artean hain sustraituta dagoen pentsaera horren ondoan, bada dirulaguntzak gehiago banatzearen aldeko gero eta joera handiago bat —denentzako kantitate bera—, justiziaren ordezko ezkertiarra balitz bezala. Baina lorpen berri horren helburu bakarra dirulaguntzaz baliatzea bada, emaitzak garai bateko karitatearenak bezain eskasak izango dira; izan ere, ongintzako laguntza materialak ez du berez ezaugarri moralik, eta ez du, inondik ere, ezaugarri demokratikorik. Bigarren mailako lekua dagokio. Moldatzeko ezintasuna kasu jakin baterako erabakitako ekintza-plan nagusian ongi oinarrituta badago, egoera errealarik egokitzen bazaio, eta, benetako pertzepzioan oinarritzeaz gain, esku-hartzen duten pertsonen laguntza eta interesa lortu badira, alde batera utzi ahal izango dira dirulaguntzen aurkako edo aldeko herri-sinesmenak. Funtsean, prozesu demokratikoa da bezeroa ulertzea eta harekin batera parte-hartze programa bat egitea. Ez dago paternalismoarentzako lekurik programa horretan, ez eta «denentzako berdin» idealarentzat ere.

[..]

Kasuekin lan egiten duen langilea ez dago besteen filosofia onartzera behartua, baina filosofiaren bat izan behar du. Filosofia horren gakoak iradokitzen dira liburu honetan, baina jakin badakigu beste gako garrantzitsuago batzuk proposa daitezkeela laster. Era informalean azaltze aldera, hauek dira liburuan iradokitakoak:

- 1) Gizakiak elkarren mendekoak dira. Ikuspegi horren inguruan bada unitate espiritual bat, eta asko esan nahi du esanahia oso-osorik barneratu eta horren arabera bizitzen saiatzen direnentzat. Maciver irakasleak hau dio: «gizarte batek bere kideak zenbat eta gehiago sustatu, orduan eta hobeto ordenatuta egongo da gizarte hori». Kontrakoa ere egia da. Gizartearekiko harreman egokien bidez lortzen dugu nortasuna, eta ez beste inola. Kasuetan oinarritutako gizarte-langintzaren muina da gizabanakoari ahalik eta harreman sozialik hobereak ezagutaraztea eta ziurtaraztea.
- 2) Gizakiak ez dira berdinak. Benetan demokratikoa den programa sozial batek masa-ekintza zentzudunaren bidez berdintzen ditu aukerak, eta pertsona ezberdinentzat eta ezberdinekin ekintza ezberdinak egingo dituen politika administratibo baterako baliabideak ematen ditu.
- 3) Gizakiak ez dira elkarren mendeko animaliak, ez eta etxe-abereak ere. Beste animaliekin duen alde horren ondorioz, nahitaezkoa du gizakiak bere ongizate-planen prestaketan eta gauzatzean parte hartzea. Gizabanakoek borondatea eta helburu propioak dituzte, eta ez dira sortu jarrera pasiboa izateko munduan: izan ere, alferrik galtzen dira hori gertatzen denean.


Beharbada horregatik, gizartearentzat aukera bihurtu behar duten gizon-emakumeek prestakuntza egokia izan behar dute bizitza deitzen diogun elkarreragin-sare horri aurre egiteko. Ezin dira pilaka fabrikatu. Pertsona sozial bat egiteak denbora eta arreta pertsonalizatua behar du. Etxea da lan horren lehen urratsak egiteko ardura duen erakunde soziala, eta, kasuetan oinarritutako lanari dagokionez, etxean egin ziren lehenengo moldatze-saioak ere. Lantokian ere kasuetan oinarritutako lanaren metodoak aldaketa onuragarriak lor ditzakeela uste da, baina orain dela gutxi hasi da erabiltzen metodologia hori, eta, oraindik, ez da guztiz garatu. Leku batzuetan, kasuetan oinarritutako gizarte-langintza egiten dutenek beren espezialitateari buruzko ezagutza sakonak hartu behar dituzte beste espezialisten lana osatzen saiatu baino lehen. Aldiz, kasuetan oinarritutako gizarte-langintza beste lanbide zaharrago batzuentzako osagarri eraginkorra den leketan (adibidez, erakunde sozialetan: eskoletan, ospitaleetan edo auzitegietan), aipatutako leku horietan baino garrantzi handiagoa hartzen du gizarte-langintzak.

Gizarte-langintza bere osotasunean da eraginkorra, eta ez atalka. Atal guztiak, modu ezberdinean bada ere, nortasunaren zerbitzura daude. Kasuetan oinarritutako lanak ekintza hauen bidez laguntzen dio nortasunari: gizabanakoen eta horien inguru sozialaren arteko egokitzapena hobetzen saiatzen da; talde-lanari esker, nortasuna lantzen da, pertsonen arteko elkarreragina lantzen baita, ez pertsonak bakarka; ekintza sozialak aurrera eginarazten die masei, propagandaren eta legeria sozialaren bidez; eta, azkenik, ikerketa sozialari esker, aurkikuntza originalak egin daitezke, eta dagoeneko ezagutzen diren datuak berrinterpretatu, gizarte-langintza beste modu batzuetan erabiltzeko. Kasuetan oinarritutako gizarte-langintza egiten duen langileak modu horiez guztiez jakin behar du zertxobait —zenbat eta gehiago jakin, hobe—, eta behar bezala jokatu behar du bere eginbeharrean, aipatu berri diren gizarte-lan mota horietan guztietan aurrera egiteko.

Azkenik, aipatu behar da nortasunaren garapena dela kasuetan oinarritutako gizarte-langintzak gainditu behar duen probarik zailena. Zure bezeroaren nortasuna aldatzen ari da? Eta, aldatzen ari bada, norabide egokian ari da aldatzen? Bere energia eta inizatiba askatzen ari da? Eta aldaketa hori behar handiagoen eta hobeen, eta harreman sozial egokiagoen norabidean ari da gertatzen? Nortasunarekiko berezko errespetua eta pertsonetikiko benetako arreta nahitaezkoak ditu kasuetan oinarritutako gizarte-langileak emaitza horiek lortzeko. Baina, horretarako, nahitaezkoa da kasuetan oinarritutako gizarte-langilearen nortasuna ere garatzea. Beraz, elkarrenganako zerbitzua da.

Berdintasuna. Langileek, berdintasunaren izenean, denontzako dirulaguntzak eskatzen zituzten bitartean, Mary Richmondek, demokraziaren eta esku-hartze pertsonalizatuaren izenean, dirulaguntza orokorren kontra egiten zuen, limosnatzat joz, testuan ikusten den bezala. Izan ere, Amerikako Estatu Batuetan ikuspegi liberala gailentzen zen, eta demokrazian oinarritutako gizarte-langintza bultzatzen zuen, arreta indibidualizatua eta diskriminatua zekarrena. Mendebaldeko Europan, aldiz, langileen ikuspegi sozialista berdinzalea gailentzen zen eta, modu indiskriminatuan garaturik, «denontzat berdin» ideia bultzatzen zuen. Eztabaida interesgarria plazaratzen digu testu horretan Mary Richmondek.

3.2. *Settlementen* ildo



[Iturria: https://en.wikipedia.org/wiki/Henrietta_Barnett]

COS elkarteak, Octavia Hill edo Mary Richmond gizarte-langintzaren erreferentzia nagusietakoak dira; baina pertsonarengan zentratzen den ildo horrez gain, badago talde-ikuspegiari gehiago begiratzen dion beste bat. Pertsonaren arazo zehatza baino gehiago, arazoa orokorrean aztertu, eta konponbidea eman nahi diote horri. Gizarte-langintza ulertzeko beste modu bat da, nahiz eta gerora bat egingo zuten biek, eta gizarte-langintza batu bat osatu, gaur ikusten dugun bezala (gizarte-langintza hiru esku-hartze mailek eratzen dute: banakakoak, taldekoak eta komunitatekoak). Banakako ikuspegitik aldentzen den ildo kolektibo hori ezagutzeko, *Settlementen* mugimendura jo behar dugu, halabeharrez.

3.2.1. *Settlementen* mugimendua eta Barnett senar-emazteak

Ildo honek guztiz apurtzen du ordura arteko laguntza-forma klasikoarekin, hainbat arlotan: kolektiboa da, ez dago dirulaguntzari loturik, eta antolaketa autonomoa dauka. Izan ere, *settlement* bat egoitza bat da, bere kabuz antolatzen dena. Eraikin handiak ziren, eta bertan aukera zegoen behin-behinean lo egiteko, sukaldea erabiltzeko, erakusketak egiteko, ikasteko, hitzaldiak antolatzeko, eta abar. Bertan ez zen karitate-ekimenik antolatzen, eta sartzea edo irtetea borondatezkoa zen.



[Iturria: https://en.wikipedia.org/wiki/Settlement_movement]

Formalki COS elkarteari loturik dago bere sorreran, baina bere sorrera teorikoan bi elementu nagusi, eta batzuetan kontraesankor, agertzen dira:

1. Alde batetik, modu formal batean, burgesiaren pentsaera islatzen zuten elkarte filantropikoak. Hain zuzen ere, lehenengo *settlementa* (edo egoitza) 1884an eraiki zen Londresko auzo pobre eta degradatu batean, Barnett senar-emazteen eskutik. Haiek ezagutu egiten zuten COSen bidez garatzen zen banakako gizarte-langintza, baina kezkatuta zeuden kultura-heziketa maila baxuarekin. Era hartara, prestakuntzarako aukerak irekiko ziren egoitzetan, baina hori modu kolektiboan

landu behar zen, eta horrela, talde-ikuspuntua ireki zuten gizarte-langintzan: pertsonaren nortasuna eta sendotasuna hobeto landu daitezke, batzuetan, taldearen barruan.

Aterpe modura erabiltzeaz gain, batzeko eta ikasteko leku gisa ere erabiltzen zen egoitza. Prestakuntza bultzatzeko, dei egin zieten unibertsitate-graduatu gazteei euren egoitzara joateko, behartsuekin harremanetan jartzeko eta eurekin komunitatean bizitzeko, elkartasun hutsez. Aberatsen eta pobreen arteko zubi-lana egin nahi zuten.

Euren ustez, adiskidetasuna eta helburu komunak partekatzea oso lagungarria zen pertsonarentzat. *Settlement* horiek laguntza-helburu orokorra zeukaten, eta ez zuten jarraitzen metodo jakin bat, programazioa momentu bakoitzean egoitzan zegoen jendearen arabera baitzen. Asmoa talderik behartsuenei (eta ez pertsoneri bakarka) laguntzea zen (Miranda, 2004: 163 t. hur.).

2. Beste aldetik, eta modu zabalean ulertuta, langile-mugimenduaren pentsaera dago. Era guztietako arazo eta gabezien aurrean laguntza gutxi izaten zen administrazioaren aldetik, eta horrek konponbidea modu autonomoan bilatzera eraman zuen. Helburu kolektiboak zituzten ekimenak bultzatzen zituzten, eta *settlementek* aukera egokia eskaini zien horretarako. Era horretara, langile asko egoitzetako erabiltzaile arruntak izan ziren.

3.4. TESTUA: **BARNETT SENAR-EMAZTEAK**

Samuel Barnett: *University and Social Settlements*, 1898 [Lehen argitalpena in *W. Reason* (arg.) (1898), Londres: Methuen.]

Duela hamalau urte ezberrik gabe onartzen zen onginahiaren forma zaharrak etorkorrek izaten zirela berez, karitate-elkartek eta misioek nagusitasun-jarrera hartzen zutela beren laguntzaileen gain, eta filantropia sektarioak ezinikusiak sortzen zituela sarri. Hori horrela izanik, gizon-emakume askok, pobreekiko laguntasuna berresteko gogotsu, ez zuten begi onez ikusten maitasunaren izenean beren neba-arrebak umilaz beharra laguntza jasotzeko. Ez zuten nahi beren buruak «ongile» edo «misiolari» gisa agertzea. [...] Gizaki gisa beste gizakiei lagundu nahi zieten, eta klase baten edo alderdi baten interesa gizabanakoen interesaren aurretik jartzen zuen laguntza motaren aurka egin zuten beren giza sentimendurekin, esku bete opari jasoz zailtasun iragangaitzen gainetik, eta alderdien dogmak elkartzeko baldintza bihurtuz.

Bestalde, langileak, giza espiritu beraren eraginpean, gero eta baztertuago zeuden [15. or.] beste klaseek gozatzen zituzten gauza onetatik. Gehiago jakin nahi zuten zer egiten zuten beren bizilagun aberatsek, eta, edonola ere, aristokrata bati adreilu bat bota aurretik zerbait gehiago jakin nahi zuten hari buruz.

Horrek bide eman zuen pentsatzeko unibertsitateko kideak bizi zitezkeela pobreen bizilagun gisa, eta bizitza aszetiko baten gailentasunari eragin gabe, edo irakasle gisa etorri zirela adieraziz, edo xede sektarioen bat izanik, sorraraz zezaketela benetako zerbitzu guztien bidea den adiskidetasuna.

Garai modernoetako dohainak onak zirela sinesten zutenek *settlementak* eratu zituzten; kultura onuragarria zela eta ez galera; garbitasuna zikintasuna baino hobea zela, edertasuna itsusitasuna baino hobea, jakinduria ezjakintasuna baino. [...] Gauza on horiek guztiak herritar orok gozatu behar zituztela aitortzearen erakusgarri dira *settlementak*, eta giza eskuen eta norberaren jakinduriaren makineria filantropikoa ordeztu

eskakizun horiek betetzearen aurkako protestaren erakusgarri ere bai. «Badutenek» «ez dutena» ikusteko, ezagutzeko eta zerbitzatzeko desiraren adierazpidea dira gizarte-zentroak. [...]

Settlement bat den bezalakoa da —hezkuntza-zentro, misio edo gizarte-ahaleginaren zentro gisa ikusten dute bisitariak Toynbee Hall—. Horrela izan daiteke; baina bisitariak ez dakite benetan leku hori Whitechapel-eko elkarte bat dela, auzoko gizakiak beren betebeharrak egiteko biltzen diren elkarte. Bertakoak ez dira talde gisa kezkatzen hezkuntzarekin, alkoholik ez edatearekin, pobreak laguntzarekin edo edozein xede berezi edo sektariorekin. Nor bere kasa bizi da, bere bizibidearekin eta bere betebeharrak eginez. Katolikoak, elizgizonak, juduak, konformagaitzak eta agnostikoak, denak elkarrekin bizi dira; bata bestea indartsuago egiten du bere iritzia emanez. Ez dago «Toynbee Hall arau» edo horrelakorik, eta inoiz ez da egia «Toynbee Hall»ek hauteskunde batean norbait hobesten duenik edo erlijio modu berezi baten alde egiten duenik. Elkarrekin jaio diren gizaki apur batzuk dira, beren ogia irabazten dutenak eta betebeharrak sozialak beren modura ulertzen dituztenak. Inork ez dio muzin egin bere buruaren hazkunderako ona den ezeri; gizaki bakoitza bere bokazioa gauzatzen saiatzen da, eta bizitza landu baten giroari eusten dio. [...] Zintzotasunerako ez dago inolako mugarik, gizakia bera da muga bakarra, eta ez hura dagoen lekua. [...]

Toynbee Hallek hezkuntza-zentro bat dirudi, misio bat, ikastetxe politekniko bat, makineria filantropikoaren beste adibide bat; benetako elkarte bat da, eta bertako jarduerak elkartekideen banakotasunean errotzen eta garatzen dira.

[...] Galdetuko balidate zer egin duen Toynbee Hallek, hau erantzun beharko nuke: (1) klaseen susmo txarra arindu du, nolabait; (2) kemen handiagoko toki-gobernua sustatzen lagundu du. [...]

Horregatik idatzi dut testu hau, erakusteko *settlement* baten bidez gizon-emakumeek beren auzokideekin parteka ditzaketela beren buruak; elkarte bat auzo jakin batean, non elkartekide izatea den herritarren betebeharrak betetzea; pobreen artean etxe bat, non bertan bizi direnak pobreen lagun bihur daitezkeen.

Pobrezia espiritualaz. COSen eta *Settlementen* mugimenduan gogoeta interesgarriak egin ziren pobreziaz, eta aurrerapentzat jo behar da pobrezia arlo ekonomikotik harago joatea: laguntza ezin zen mugatu diru-eskaeretara; aitzitik, pertsonarekin egotea eta laguntzea ezinbestekoak dira esku-hartze egoki baterako, eta hala egiten saiatu ziren. Baina arlo ekonomikotik haragoko pobreziaz hitz egitean, askotan *pobrezia espiritual* edo *moral*a aipatzen zuten. Pobrezia mota hori heziera gabezia (ohiturak, ikasketak...) oinarritzen zen, eta landu beharrezkotzat jo zen.

3.2.2. Jane Addams



[Iturria: https://eu.wikipedia.org/wiki/Jane_Addams]

Settlementen mugimenduak arrakasta handi eta azkarra eduki zuen, eta laster zabaldu zen Ingalaterrako beste leku batzuetara. Denbora gutxiren buruan Estatu Batuetara ere hedatu zen, non are arrakasta handiagoa eduki baitzuen. Horrela, sendotu egin zen mugimendu hori.

Estatu Batuetan, leku berezia dauka Jane Addamsek (1860-1935). Egindako bidaiaren batean Ingalaterrako esperientzia ezagututa, 1886an lehen egoitza ireki zuen, Chicagon, ospe handia hartu zuen *Hull House* izeneko egoitza, hain zuzen ere. Esperientzia laster zabaldu zen beste leku askotara.

Hull Housen haurrak zaintzen ziren, sukaldaritza edo josteko ikastaroak eman, arte-erakusketak antolatu, gai askori buruzko hitzaldiak aurkeztu, eta abar. Droga-mendekotasun egoeran zeudenen kasuan, esaterako, argi ikusi zen hainbat erabiltzaileen kasuan nekez irtengo zirela aurrera taldean lan egiteak ematen duen indarragatik izan ez balitz.

Bestalde, Addams laster konturatu zen politikan aritu beharra zegoela zituen gizarte-helburuak lortzeko, eta buru-belarri sartu zen. I. Mundu Gerra piztu zenean, gainera, mundu-arazoezko arduraren berezia bereganatu zuen, eta bakearen aldeko mugimenduekin lotu zen. 1931n Bakearen Nobel saria eman zioten.

Bere ekarpenik garrantzitsuenak izan ziren, batetik, zientifikotasuna eta profesionaltasuna txertatu nahi izateak; eta, bestetik, gizarte-arazoezko konpromiso militantea. Bestalde, taldeko gizarte-lan-gintzaren aitzindarietako bat da, taldeekin lan egitea proposatzen zuen eta (Moix, 2006: 138 t. hur.; Maurandi, 2000).

3.5. TESTUA: JANE ADDAMS

Jane Addams: *The Subtle Problems of Charity*, 1899 [*The Subtle Problems of Charity*, *The Atlantic Monthly*, bolumena: 83: 496, 1899ko otsaila. 163-178 or.]

SEGURU ASKO karitatezko harremana da gure demokrazian azkarren aldatzen ari den harremana, hau da, ongilearen eta onuradunaren artekoa. Aldi berean, gure esperientzia modernoan ez dago demokraziak inplikatzeko duen berdintasun falta modu argiagotan erakusten duen kontaktu-punturik. Heldu garen puntu honetan demokraziak hainbeste sartu-irten egin ditu harreman honetan, ezen ondorioz antigoaleko pertsona eskuzabalaren irudi atsegina desagertu egin baita betiko, eta, bitartean, karitatearen beharrak eta existentziak berak ukatu egiten dizkigute demokraziak azkenean emango dituen kontsolamendua eta askatasuna.

Familiaren edo klasearen batasuna baino batasun zabalago baten grina sentitzen dugu, eta gizaki guztiak gure itxaropenetan sartzera heldu garelako esaten dugu; baina ez gara konturatzen gizaki guztiak dutela itxaropena, eta gu ere barruan gaituen mugimendu beraren kide direla. Filantropiaren zailtasun askoren arrazoia horixe baita: inkontzienteki mundua filantropoen eta lagundu beharrekoen artean banatzea. Bi klase daudela onartzen dugu horrela, eta klase-idea horren aurka egiten du gure demokrazia-mugimenduak banaketa hausten hasten garen orduko.

Arazoa da gutako inoren etika ez dagoela garbi definituta, eta ohiturazko zirkuluetan jardutera behartuta gaudela etengabe, jada onartzen ez ditugun uste sendoetan oinarrituta. Horregatik, ingurunearen eta baldintza sozialen eraginari buruz dugun iritzia askoz azkarrago garatu da karitatea administratzeko ditugun metodoak baino. Garai batean, pobrezia grina txarren eta alferkeriaren sinonimotzat jotzen zenean, eta pertsona arrakastatsua zintzotzat jotzen zenean, karitatea lazki administratzen zen kontzientzia onarekin. Izan ere, karitate-eragileak gizabanakoa jotzen zuen bere pobrezia erruduntzat, eta bere oparotasunak moralitate jasoagoaren nolabaiteko kontzientzia ematen zion. Orduz geroztik, beste estandar batzuen arabera neurtzen ikasi dugu, eta dirua irabazteko gaitasunak oraindik ere beste gaitasunek baino balio handiagoa izan arren nabarmenki, ez da lehen bezain modu eskusiboan errespetatzen, eta gaitasun hori edukitzeak ez du inolaz ere inplikatzeko dohain moral onenak edukitzea. Ikasi dugu pertsonak negozio-eraketarako gaitasunaz gain bere bertute sozialen arabera ere balioesten, dela jomuga intelektual zein desinteresatuekiko debozioaren arabera, dela duten espiritu publikoaren arabera, eta normalean ez dugu begi onez ikusten pertsona batzuk industriaren ikuspegitik bakarrik epaitzea, pobre izateagatik bakarrik, beste arrazoirik gabe. Gure sen demokratikoa etengabe larritzen da bi estandarren kontzientzia hori ikusita.

Inolako zalantzarik gabe, guztioi iruditzen zaigu zantarra bi hitz horien —alegia, *antolatua* eta *karitatea* hitzen— justaposizioa. Emozio bat antolatzearen ideia bera gorrotagarria da, baita ahalegin altruistan grina handiagoaren beharra sentitzen dugunontzat eta lortu beharreko helburua argi dugunontzat ere. Defentsa gisa, esaten dugu emozio hori xede bihurtu nahian gabiltzala: errukia apetatsua dela, eta ezin dela horren mende egon; betebeharrak kontzientearen duintasuna eman nahi diogula guk. Baina funtsean ez gara erabat fio jokabide sozialaren teoria bihotzaren agindu naturalekin ordeztzen duen eskemarekin, eta egoeraren konplexutasunaz ohartzen gara. Larritasunean erori den pobreak laguntza eskatzen duenean lehen aldiz, bihotzberatasuna, begirunea eta barkamena espero ditut. Lehen aldia bada, asko kosta zaio lehen urrats hori egitea. Lur jota dago, eta, maitasuna eta errukia aurkitu beharrean, erabat hotz geratuko da bere intimitatea hautsi eta lan egin beharko lukeela esaten zaionean. [...]

Gizarte-zentro batean emandako hamarraldi bateko urte gehienetan mindua eta atsekabetua nuen burua karitatezko harremanaren zailtasunak ikusita. Klase etikoen arteko talka etengabearen ondorioz, industriaren esperientzia zeharo desberdinetik sortua egia esan, eta konbentzio eta bizimodu hain ezber-

dinak zituzten pertsonen arteko ezinbesteko gaizki-ulertzeen ondorioz, bazirudien ezingo zela ezer egin harik eta industria-baldintzak erabat demokratizatu arte. Gizarte-zentro baten jarrerak defendaezina eta zentzugabea ematen du batzuetan, aintzat hartuta azkenean gauzatuko den demokrazia industrialarekiko sinesmen sendoa agertzen saiatzen dela etengabe eta helburu hori lortzeko lan egiten duela, bizimodu bati eusteko eta gizalegez jarduteko miserian daudenekin. Duela gutxi, hala ere, printzipio baten iradokizuna bururatu zait: karitatea administratzearen mingarritasuna harreman demokratikoago bateranzko trantsizioaren deserosotasun saihetsezina den bitartean, administratze-esperientzia harrigarriek badutela beren benetako balioa.

COS eta Settlementen mugimendua. Gizarte-langintza egiteko bi ildo historiko ikusi ditugu: COS eta Settlementen mugimendua, biak Britainia Handian sortuak eta laster Amerikako Estatu Batuetara eramanak. Settlementen mugimendua COSetik sortu zen, eta, hortaz, badaude berdintasunak haien artean, baina baita desberdintasunak ere. Azter itzazu.

Erabilitako erreferentziak

- Ander-Egg, Ezequiel (1984): *Historia del Trabajo Social*. Humanitas.
- de la Red, Natividad (1993): *Aproximaciones al trabajo social*. Siglo XXI.
- Escartin, Mari Jose eta Suarez, Esperanza (1994): *Introducción al trabajo social. I (Historia y fundamentos teórico-prácticos)*. Aguaclara.
- Gaviria, Mario (1995): «Una relectura de Mary E. Richmond», in Richmond, Mary: *El caso social individual*. 9-68 or. Talasa.
- Friedlander, Walter (1984): *Dinámica del Trabajo Social*. Pax-Mexiko.
- Hernandez, Gregoria (1996): Octavia Hill. Figura señora del Trabajo Social. *Trabajo Social Hoy* 12: 90-94.
- Malagon, José Luis eta Sarasola, José Luis (2003): «Nacimiento y evolución del Trabajo social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 78-109 or. Alianza.
- Maurandi, Remedios (2000): «Jane Addams: una figura clave en el origen del Trabajo Social». *Revista de Trabajo Social, Servicios Sociales y Política Social* 52: 57-78.
- Miranda, Miguel (2004): *De la caridad a la ciencia. Pragmatismo, Interaccionismo simbólico y Trabajo Social*. Mira.
- Moix, Manuel (1991): *Introducción al trabajo social*. Trivium.
- Moix, Manuel (2006): *Teoría del trabajo social*. Síntesis.
- Munuera, Pilar (2003): «Precedentes del Trabajo Social: precursores y reformadores sociales», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 50-77 or. Alianza.
- Richmond, Mary (1995): *El caso social individual*. Talasa.
- Richmond, Mary (2013): *Zer da kasuzko gizarte-langintza? Sarrera gisako deskribapen bat*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua
- Soydan, Haluk (2004): *La historia de las ideas en el trabajo social*. Tirant lo blanch.
- Vazquez, Octavio (2003): «Teorías de las principales figuras del Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 110-130 or. Alianza.

Autoebaluazioa

- 1) Non eta noiz sortu zen Charity Organization Society:
 - a) Erresuma Batua (1869).
 - b) Frantzia (1892).
 - c) Alemania (1852).

- 2) **COSen ekarpenak honako hauek izan ziren (hautatu erantzun okerra)**
 - a) Sentimenduan oinarrituriko karitate asistematikoa kaltegarria izan daitekeela esatea.
 - b) Pobretasunaren kanpoko arrazoiak baztertzea, soilik barruko arrazoiak aztertuz.
 - c) Gizarte-langintza norbanako, talde eta komunitate mailetan eratzen hastea.
- 3) **Octavia Hillen ekarpen garrantzitsuena...**
 - a) Indibidualizazioari eta harremanari ematen zion garrantzia da.
 - b) Laguntza nolana eman zitekeela erakustea izan zen.
 - c) Laguntza materiala aldagai garrantzitsuena zela erakustea izan zen.
- 4) **Mary Richmond(ek) *Zer da kasuetako gizarte-langintza?* (1922) liburuan...**
 - a) Jarduera sistematizatzearen aurka mintzo da.
 - b) Kasuen orde, arreta metadatueta jarri behar dela dio.
 - c) Gizarte-langintza sistematizatu zuen, kasuetatik abiatuta.
- 5) **Settlementen mugimendua(k)...**
 - a) Pertsonarengan zentratu beharrean, talde-ikuspegiari gehiago begiratuko dio.
 - b) Laguntza indibiduala hobesten du.
 - c) Bere egoitzak ez zuten modu autonomoan funtzionatzen.
- 6) **Jane Addamsek abian jarritako Hull House egoitzaren oinarritzko premisa zen...**
 - a) Bakarkako lana zela eraginkorrena.
 - b) Taldean lan egiteak bestela aurrera egingo ez zuten hainbat erabiltzaileri aurrera egiteko indarra ematen ziela.
 - c) Ez zirela eraginkorrak honako jarduera hauek: sukaldaritza, josteko ikastaroak, hitzaldiak eta abar.

4.

Gizarte-langintzaren garapena

Gizarte-laguntzaren ibilbidean pertsona kementsu eta esanguratsuak egon arren, gizarte-langintzak egoera zehatz batean lortu zuen aurrera egitea. Izan ere, gizarte-langintzaren garapena ongizate-estatuari loturik dago, eta beronen ibilbideak markatu zuen hura ere: ongizate-estatuaren goranzko fasean, gizarte-langintzak gorantz egin zuen; eta oraingo krisian, gizarte-langintzak ere jasaten ditu ondorioak.

4.1. Zientifikotasunaren bila

xix. mendea zientifikotasunaren bilaketaren mendea izan zen. Gizarteak zituen arazoak modu zientifikoan aztertuta bakarrik konponduko zirela pentsatzen zen. Horrek gero eta ikerketa zehatzagoak eskatzen zituen, eta hortik zientzia berriak sortu ziren. Zientzia berri horiek, ondoren, lanbide zehatz eta propioak aldarrikatu zituzten, eta, aldi berean, zientziatik kanpokoei mugak ezartzen saiatu ziren (Miranda, 2004: 211 t. hur.).

Gizarte-langintzan berdin gertatu zen. COS elkarteak zein *Settlementen* mugimenduak zientifikotasuna aldarrikatu zuten, bakoitzak ildo desberdina garatu arren. Horretarako, espezializazioa eta presakuntza behar ziren, eta, ondorioz, ikasketa arautu batzuk, unibertsitate-mailakoak; ikerketa zientifikoak lantzea eta profesionalizazioa zabaltzea. Betiere, gizarte-arazoei ahalik eta modurik egokienean erantzun ahal izateko, xix. mendearen amaieran goi-mailako lehenengo ikasketak hasi ziren zabaltzen.

Giro hartan, gizarte-langintza teorikoki gorpuzten hasi zen, bai barrutik sortutako gogoeten bidez, bai kanpotik, beste zientzietatik zetozen teoria eta esperientzia berriak bereganatuz. Adibide gisa:

1. Barrutik, hainbat ekarpen teoriko egin ziren. Gizarte-langile batzuek euren esperientziak kontatu zituzten idatziz, eta horrek elkarren arteko aberastea ekarri zuen. Aipagarrienak Mary Richmonden lanak dira.

2. Kanpotik, oso goizetik hasi zen eragina. Soziologiaren arlotik zetozen ikerketek erabateko garrantzia hartu zuten, esate baterako, pobrezia modu errealagoan ulertzeko, eta ez liberalismoaren eta burgesiaren pentsaeratik iragazirik. Era horretara, Charles Boothek 1869an eginiko gizarte-inkestak erakutsi zuen pobrezia gizartean erroturik zegoela, jendeak ezin baitzuen bere kabuz bizi. Horrela ulertuta, eskaleak egoeraren ondorio ziren, eta karitatea ez zen nahikoa izango arazoari aurre egiteko. Psikologiak ere gero eta pisu handiagoa hartu zuen, Sigmund Freuden teoriak bereganatzean batez ere. Haren teoriak guztiz kutsatu zuten gizarte-langintza.

Gizarte-langintzak espezializaziora eta profesionalizaziora jo zuen:

- Espezializazioan arlo psikologiko, psikiatriko eta medikoa nabarmendu behar dira, eta hark, bestalde, lanbidearen prestigioa handitu zuen. Momentu horretan, gizarte-langintza bost arlo nagusitan ari zen: familia, haurren ongizatea, eskolako gizarte-langintza, esparru medikoa eta esparru psikiatrikoa.
- Profesionalizaziora ere jo nahi zuen gizarte-langintzak. Batzuek ogibide bihurtu nahi zuten gizarte-langintza, bestelako arrazoiak atzean utziz. Formazio sendo batekin, eta ikasketa espe-

zifikoak eginda, ugaldu egin ziren gizarte-langintza ogibide gisa hartu nahi zuten profesionalak, baina bestelako laguntzen faltan, profesionalizazio pribatura jo behar izan zuten. Ondorioz, gizarte-langintza klase ertainek erabili zuten gehienbat, pobreek ezin baitzuten ordaindu zerbitzua. Horrela, gizarte-langintza merkatuaren logikara makurtu zen (Moix, 2006: 154 t. hur.).

Gizarte-langile haiek karitatea eta boluntario-lana gainditzea proposatzen zuten, euren artean planteamendu desberdinak bazeuden ere: batzuek bereizketa osoa eskatzen zuten, eta beste batzuek osagarritasuna bilatzen zuten.


xx. mende erdialdean, gizarte-langintzak zientifikotasunaren eta profesionalizazioaren bidetik jarraitzen zuen: kasu indibiduala zen nagusi, baina bestelako ikuspegiak ere mantendu ziren, eta 1930eko eta 1940ko hamarkadetan atal horien arteko batasunerantz jo zen, denak gizarte-langintzaren barruan onartuz.

Teoria mailan osatuago, gizarte-langintzaren praktika eraldatuko zuen momentu historiko erabakigarria bizi izan zen xx. mendearen bigarren erdialdean: estatuak gizarte-arazoetan esku hartzeko joera hartu zuen.

4.2. Ongizate-estatua

Gizarte-arazoak bere gain hartzen dituen estatu-forma berriari ongizate-estatua deritzo. Aurrekari argia xix. mendearen amaieran koka dezakegu Alemanian, gizarte-babesa bermatuko zuen Bismarcken legeriarekin. Eta modu zabalagoan II. Mundu Gerraren ostean jar dezakegu mendebaldeko Europan: Europa suntsituta zegoen momentu hartan, eta berreraikitze-lanean funtsezkoa zen estatuaren esku-hartzea.

Estatu mota horrek xix. mendean nagusitu zen eredu liberala gainditu nahi zuen. Izan ere, industrializazioaren garapenak agerian utzi zituen bere alderik ilunenak: gizarte-arlor mugatuta, lan-baldintza txarrak eta bizi-baldintza gogorrak azpimarra daitezke. Horren aurrean, langileak eratzten eta eskubideak aldarrikatzen hasi ziren. Egoera berri horretatik ideologia oso bat sortu zen: sozialismoa, oro har esanda (bere barruan sozialismoa bera eta anarkismoa sartuz). Ideia sozialistak azkar hedatu ziren, eta langileen eraketa ahalbidetu zuten, sindikatu eta alderdi politikoetan, gehienbat.



7. irudia. Ugazaben eta langileen arteko gatazka xix. eta xx. mendeetan.
(Iturria: guk egina.)

Hala ere, hasiera batean, sindikatuak ez ziren onartuak izan. Kapitalismoaren zutabe ideologikoa liberalismoa zen, gizabanakoaren askatasunean oinarritua, eta, haren arabera, ugazabaren eta langilearen artean itun libre bat izenpetzen zen, edonork apur zezakeena. Kontratu-harreman hutsa zela ulertzen zen: gizabanakoari zor zaion errespetua oinarri hartuta, ugazabak nahi zuena egiteko eskubidea zeukala argudiatzen zen, langileak jarraitzeko edo alde egiteko zeukan eskubidea bezala. Presio kolektiboa erabiltzean, sindikatuak itun libre hura bortxatzen zuten.

Jarrera hark ugazaben eta langileen arteko etengabeko gatazka eragin zuen, eta egoera hartan estatuak erantzukizunik ez zuela argudiatu zen. XIX. mendea halako istiluz beteta egon zen: ugazabak alde batetik, langileak eta sindikatuak, bestetik; eta erdian estatua, jarrera neutrala hartuta (baina ugazaben interesen pean, normalean).

4.2.1. Ongizate-estatuaren sorrera eta ezaugarriak

Denborarekin, ordea, leunduz joan ziren gatazka haiek. XX. mendean, eta 1920ko hamarkadatik aurrera, batez ere, egoera bideratzeko ahaleginak nabaritu ziren. Horrek funtsezko aldaketa kualitatibo bat ekarri zuen: alde bakoitzak bestea onartu, eta alde bakoitzak norberaren interesak zaintzeko zeukan eskubidea onartzen zen. Horrela, sindikatuak onartu eta legalizatu egin ziren, baina langileek ere onartu behar izan zituzten ugazabak mintzakide gisa, eta ez arerio gisa, ordura arte bezala.

Horrek tirabira handiak ekarri zituen alde bakoitzean. Langileen mugimenduan ez zuten denek hori onartu, helburua ugazabarik ez egotea izan behar zela uste zuten eta. Nola amaitu ugazaben klasearekin euren interesak onartzen baziren? Sozialdemokrazia izan zen urratsez urrats joatearen aldeko bidea proposatu eta legalitateak eskaintzen zituen bide guztiak baliatu behar zirela defendatu zuena. Ugazaben aldetik ere ez zen desadostasunik falta izan, kontserbadoreen uste baitzuten ugazabari bere enpresa ondo kudeatzea baino ez zegokiola. Keynes ekonomialariaren ideiek argitu zituzten jarrera klasiko horren desabantailak, langileen bizi-baldintza onak kontsumo handiagoan eta, hortaz, produkzioaren gorakadan eragingo zutela esan baitzuten.

Teoria berri horiek indarra hartu zuten 1930eko hamarkadatik aurrera, orduko egoera ekonomikoa larria baitzen, eta II. Mundu Gerra amaituta gauzatu ziren. Izan ere, momentu hartan, herri garatuetan gobernu oro har aurrerazaleak agertzen ziren: sozialistak, liberalak, demokratak Estatu Batuetan, kristau-demokratak, eta abar. Bestalde, lankidetasun-giroa bizi zen. Gerra irabazteko beharrezkoa izan zen lankidetasunak jarraitu egiten zuen gerraren ostean, beharrezkoa baitzen orduan hiriak berreraikitzeko eta ekonomia abian ipintzeko. Giro hartan, herritar guztien itun moduko batera heldu behar zela teorizatu zen, gatazkan zeuden aldeek —ugazabak eta langileak— adostuta eta bien artean zegoenak —estatuak— bermatuta.

Horixe da ongizate-estatuaren sorrera. Sindikatuak, ugazabek eta estatuak soldaten gorabeherak eztabaidatzen zituzten, baina, horrez gain, gizarteko hainbat gai ere lantzen zituzten. Gizarte-kontuak denen ardurak zirela ulertzen zen, eta estatuak eta ugazabek ezin zituzten saihestu: hezkuntza, osasuna, amatasuna, haurren zaintza, gizarte-segurantzak, baztertuekiko laguntza... denen betebeharrak izan behar ziren. Langileen iraultza eta ugazaben liberalismo osoa baztertuta, lankidetasuna proposatu zen.

Ongizate-estatuaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Biztanle guztiei gutxieneko baldintza sozial eta ekonomikoak ziurtatzea.
- Biztanleen arteko desberdintasun sozial eta ekonomikoak murriztea.
- Pobrezia jaitsaraztea edo mugatzea.

Giro horretan, estatuaren gastu publikoa izugarri hazi zen gizarte-arloko hainbat gairi aurre egiteko. Ez zen ordurako karitate-lana, baizik eta gizartean ari diren eragileekin adostutako neurriak. Herritarren eskubideez hitz egiten zen, eta ez behartsuei laguntzeaz: jendeak erretiroa hartzeko eta hil arte pentsio bat jasotzeko eskubidea zeukan, esate baterako. Hogeita hamar bat urtez, horixe izango zen Mendebaldeko herrien jokabidea (Ochando, 1999).

4.1. testua: **Ongizate-estatua**

Ezequiel Ander-Egg: *Historia del Trabajo Social*, 198-200 or.

Hala ere, aurreko hausnarketa guztiek ez dute azaltzen, berez, ongizate-estatuaren osaketa, gizarte-politikaren agerpena eta garapena azaltzen duten azpiko arrazoiei estuki lotutako beste faktore batzuk ere badaude eta. Izan ere, ekonomiaren hazkunderaren bitartez eta teknologiaren eraldaketa-prozesuan sortzen diren gizarte-desberdintasunak orekatzeko agertu zen gizarte-politika, helburu nagusitzat klase-harremanak arautzea duen neurri sistematikodun multzo bat bezala. «Ikuspuntu horretatik, Carlos Vilak azaltzen duenez, gizarte-politika, batetik, gizarte-tentsioei aurre egiteko tresna baten modura agertu zen, haien maila murriztuz, despolitizatuz eta, baita hain gatazkatsuak ez ziren eremuetara pasaraziz ere; eta, bestetik, klase horien gizarte-kontrolerako tresna bat bezala. Horrela, gizarte-politika erantzun politiko eta ekonomiko gisa agertu zen, aldi berean egonkortze ekonomikoa eta gizarte-ordenaren mantentzea ahalbidetzen zuena».

Baina gizarte-langintza ongizate-estatuaren testuinguruan kokatzeko, ez da nahikoa estatuak gizarte-politikan nola eragiten duen aztertzea, gizartearen teknoburokratizazioa ere kontuan hartu behar da eta; balio nagusiak kontsumoaren inguruan ezartzen dituen gizarte burokratizatu bat, alegia. Bi alde bereizi baina nahasi eta lotuak dira: estatuak zerbitzu batzuk eskaintzen ditu; eta gizarteak herritarrak limurtzen ditu gero eta gauza gehiago kontsumitzeko eta edukitzeko.

Zalantzarik gabe, ongizate-estatuak zuzen-zuzenean eta oso-osoan eragiten du gizarte-langintzaren ikuskeran eta praktikan, estatu mota horrek gizarte-zerbitzu sorta zabal bat barnebiltzen baitu.

Esandako guztiaren ondoren, halako galderak egin daitezke: badago testuinguru horretan behartsuen benetako interesak bilduko dituen gizarte-ekintza bat egiteko aukerarik? Edo, asmoen mailara jaitsiz, badago gizarte-langintza erreformazale baterako aukerarik? Edo, biztanleriaren sektore zabalentzat presazio bezala aurkezten diren ongizate-estatuaren gizarte-zerbitzuak, sistemak hobeto aritzeko behar dituen langileen kontrol forma bat dira? Edo, gizarte-zerbitzuak langile-klasearen lorpena dira?

Galdera horiek gurutzatu egiten dira, eta kasu bakoitzerako erantzun arretatsu eta ñabartuak merezi dituzten arazoz josita daude. Gizarte-politikaren agerpide asko herri-borroken emaitza dira, eta sektore horien nahiak adierazten dituzte; halaber, agerpide asko klase menderatzaileen manipulazio-formak dira, zerbait aldatzea onartuz ezer funtsezkorik ez aldatzeko asmoz eginak.

4.3. **Gizarte-langintzaren instituzionalizazioa**

Estatuek gizarte-arazokiko ardurua handiagoa berenganatzean, laguntza bideratzeko kudeatzailerak beharko zituen, eta gizarte-langileen beharrezaz azaldu zen. Hori dela eta, xx. mendean gizarte-langintza instituzionalizatu egin zen, eta gizarte-langileak indarturik eta eraldaturik irten ziren prozesu hartatik. Hiru faktorek eragin zuten prozesu hura:

1. **Estatuaren parte-hartzea.** Gizarteak zituen hainbat arazori aurre egiteko, estatua baliabideak ipintzen hasi zen: plangintza orokorrak egin ziren, jende prestatua kontratatu zen, eta abar. Eta baliabide horien artean gizarte-langileak sartu ziren. Gizarte-langintzak ondo baliatu zituen estatuak eskaintzen ahal zizkion abantailak, baina, harekin batera, estatuak ezartzen zituen mugak ere onartu behar izan zituen.
2. **Prestakuntza.** Estatuak behar zituen helburuetarako, gizarte-langileek prestakuntza hobea behar zuten. Arlo horretan, xix. mendearen amaieratik gizarte-langintzaren lehenengo eskolak eratu ziren Estatu Batuetan eta Mendebaldeko Europan. Apurka, eta I. Mundu Gerratik aurrera, batez ere, gizarte-langintza aurretik prestakuntza bat exijitzen zuen lanbide gisa ikusten hasi zen.
3. **Giza eskubideen garrantzi berria.** Gizarte-langintza giza eskubideei loturik dago; zenbat eta baloratuago egon gizarte-langintza, orduan eta garrantzi handiagoa hartuko dute giza eskubideek, eta alderantziz. II. Mundu Gerratik aurrera, batez ere, giza eskubideen balioa handitu egin da, eta aldarrikapen formalak egiten dira:
 - *1948an Nazio Batuek Giza Eskubideen Aldarrikapena* onartu zuten; horien artean, hainbat gizarte-eskubide. Horrek, noski, ez du esan nahi eskubide horiek bat-batean betetzen hasi

zirenik, baina tresna bat da eskubideen bortxaketa salatzeke eta eskubideok urratzen dituen pertsona edo erakundea presionatzeko.

- Beste urrats garrantzitsu bat 1961ean egin zen, Europako hainbat estatuk *Europako Gizarte Gutuna* sinatu zutenean. Bertan, norbanakoen eta langileen eskubideen artean, herritarrek osasun- eta gizarte-laguntzak jasotzeko eta gizarte-zerbitzuetara jotzeko duten eskubidea islatu eta bermatu nahi izan zen.
- Bestalde, Europar Batasunaren parte-hartzea gero eta handiagoa izan da arlo honetan. 1989an gizarte-arazoen garrantzia azpimarratu zen *Langileen Oinarrizko Gizarte Eskubideen Komunitate Gutunean*.

Era horietara guztietara, gizarte-langintza aintzakotzat hartzen hasi zen gizartean. Bere bete-beharra beharrezkotzat jo zen, estatuak aldarrikatzen zituen eskubideak bermatzea baitzuen helburua, eta horrek prestigioa zekarkion lanbideari: gizarte-langilea ziurrago ager zitekeen jendaurrean, aurreko laguntza- edo karitate-kutsua galdurik.

Instituzionalizazio horretan, gizarte-langileek sortu zituzten hainbat erakundek ere eragin zuten, horietako batzuk Nazio Batuek edo nazioarteko beste erakunde batzuek onartuak.

Eskubideak. Jabetu gaitzen ondo eskubideen garrantziaz. Izan ere, orain arte ikusi ditugun laguntza-formak *boluntarioak* (hainbat arrazoi eta motibo tarteko) izan dira. Baina eskubide gisa aldarrikatzen den momentutik, boluntaritasuna desagertu egiten da, eta estatuak *konpromisoa* hartzen du herritar guztiei dagozkien gutxieneko baliabideak bermatzeko.

4.4. Ongizate-estatuaren krisia

1970eko hamarkadan nagusitu zen ekonomia-krisiak eragin zuzena eduki zuen Mendebaldeko gizarte osoan. Ongizate-estatu ekonomia gorrantzko joera bati zegokion, eta, horrela jarraitu zuen bitartean, ez zen arazo larri agertu, denek baitzeukaten zer irabazi. Ekonomiaren zikloa beherantz hasi zenean, berriz, arazoak hasi ziren. Arazo ekonomiko horiek politika- eta gizarte-mailako beste hainbat ekarri zituzten. Nolabait, esan daiteke ongizate-estatu erasotu egin zutela alde batetik baino gehiagotatik. Gutxienez, hiru mailatan gertatu zen eraso:

1. **Eraso ideologikoa.** Oro har, jarrera kontserbadoreak indarra hartzen hasi ziren bai politikan eta bai gizartean. Talde-balioek garrantzia galdu zuten, eta balio indibidualak bultzatu ziren. Erasoren barruan, gizarte-arloan ongizate-estatuaren porrota erakutsi nahi zen: pobrezia ez zen amaitu, eta, aldiz, gizarteak elkartasun txikiagoa adierazten zuen, estatuak bere gain hartu baitzuen betebeharrak. Laguntza ematea kaltegarria zela erakusten zen, pobreak ez baitzuen bere egoeratik irteteko nahirik adierazten. Estatuan ere eraginkortasun ekonomikoa bilatu behar zela nagusitu zen, liberalismo teorikoak aldarrikatu bezala, gizarteari utzi behar baitzaio ekimena, gobernutik edo estatutik zuzendu gabe (Moreno, 2000).
2. **Eraso juridikoa.** Gobernu neoliberalak aurrera zeramaten lehentasuna ekimen pribatuari uzteko politika, eta horren ondorio dira aurreko urteetan lan- eta gizarte-mailan lortutako hainbat neurri deuseztatzea.
3. **Eraso politikoa.** Eskuineko alderdiek gora egin zuten hauteskundeetan, eta euren osatutako gobernuen politika neoliberalak garatu zituzten. Ondorioz garatu ziren pribatizazioak eta aurrekontuen murriztapenek beste arazo bat ekarri zioten ongizate-estatuari, bere eraginkortasun faltarena, krisi ekonomikoak sortzen zituen arazoei aurre egiteko baliabide eta diru gutxiago zeukan eta. Politika horien ondorioz, estatuari eskumenak kentzea bilatzen zen (zerbitzu publikoak, batez ere), esku pribatuetan uzteko helburuz. Arazo guztiei ezin aurre egite horrek indartu egin zuen eraso ideologikoa, eta ongizate-estatuarekin amaitu beharra azaleratu zuen.

4.2. testua: **Ongizate-estatuaren krisia**

Luis Moreno: *Ciudadanos precarios*, 46-48 or.

Aro Garaikidean, pobrezia kontuan hartzeko eta lantzeko bi ikuspegi garrantzitsu izan dira: banakako lorpenaren tesiak eta tesi estrukturalistak. Gizabanakoek beren ongizate pertsonalean eta, ondorioz, beren baliabide materialen eta lotura sozialen ugaritasunean edo gabezian duten azken erantzukizunari ematen diete garrantzia lehenengo tesiek. Tesi horien arabera, pobrezia gizabanakoaren mailako arazoa da. Motibazio pertsonala falta zaiolako, «adiskide txarrak» dituelako edo, besterik gabe, pertsonalitate ahula duelako bihurtzen da pobre herritarra. Beraz, gizabanakoak dira beren pobrezia-egoeraren eragileak. Egoera horren aurrean, botere publikoek ezer gutxi egin dezakete. Izan ere, gizabanakoaren borondateak eta gaitasunek soilik konpon ditzakete, eta konpondu behar dituzte, pobrezia-egoerak. Premia gehien duten pertsonen egoerak gainditzeko gizarte-politikak alferrikakotzat jotzen dira, eta, izatekotan, izaera moralizatzaila eta eskarmentuzkoa izan behar lukete. Gainera, politika horiek injustuzat jotzen dira, herritar «ez-emankorren» alde egin eta ekonomiaren martxa ona galarazten dutelakoan. Hala, «pobreziaren tranpa» eta «dependenziaren kultura» txanpon beraren bi alderdi balira bezala agertzen dira, saihestu beharrekoak eta zergadun guztiek ordaindu beharrekoak.[..]

Ikuspegi neoliberalaren arabera, dirulaguntza publikoen bidezko tratu berezi horrek pizgarri gabezia sorrazten die pobreei. Hala, ez dituzte beren kabuz gainditzten zailtasunak, eta, horren ondorioz, egoera eroso da haientzat gizarte-laguntzaren onuradun izatea. Tesi horien ustez, bizkarroikeria soziala bultzatzen da modu horretara. Ikuspegi ideologiko horretatik, bi maila dituen hierarkia moral bat ondorioztatzen da. Bata positiboa da, eta norberaren baliabideen (lanaren eta eremu pribatuaren merkaturatzearen) bidez beharrak asetzean datza. Bestea, berriz, negatiboa da, eta erakunde publikoek eskaintzen duten babesean oinarritzen da. Halaber, aditzera ematen da dirulaguntza publikoen orokortzeak Mendebaldeko ekonomien lehiakortasunaren galera orokorra sortzen duela gero eta irekiagoa eta globalagoa den konkurrentzia-eremu baten barruan. [...]

Bigarren ikuspuntu estrukturalistatik begiratuta, gizartearen mugek sortutako fenomeno gisa azaltzen da pobrezia, eta, muga horien artean, batez ere, baliabide materialak eta boterea klase eta kolektibo sozialen artean desberdin banatuta egotea nabarmentzen da. Azkenaldian, pobreei bideratutako babes sozialeko programei egindako murrizketak direla eta, desindustrializazio-prozesuetatik eratorritako egoerak okertu besterik ez dira egin. Horren ondorioz, langabezia handitu egin da, eta eremu urbanistikotako pobreak gethoetan pilatzen ari dira; gero eta pobregoak dira, eta atzera-bueltarik ez duen degradazio-prozesu batean murgildurik daude.

Ekonomia politikoari buruzko auresuposizio neoklasikoei kritika eginez, estrukturalistek merkatuaren desberdintasunen ondorio gisa azaldu dute pobrezia; batez ere, produkzio- eta jabetze-baliabide produktiboei dagozkien desberdintasunen ondorioztat hartzten dute. Dena den, badira pobrezia-egoerei eragiten dieten beste faktore estruktural batzuk ere; hala nola, adinaren edo generoaren arabeko desberdintasun kulturalak edo, nazioarteko testuinguruan, estatuen lerrokatze geoestrategikoak.

4.5. **Gizarte-langintza egoera berri batean**

Gizarte-langintzak gizartearen krisia ere jasan du. Ongizate-estatua eta gizarte-langintza ez dira gauza bera, baina argi dago lehena marko paregabea dela bigarrenarentzat, gizartean sortzen diren hainbat arazoren gaineko arduraren erakusten duelako, eta hor ezinbestekoa zaio gizarte-langintzaren zeregina. Lehenaren krisiak bestearena ere ekarri behar zuen, eta horrela gertatu da. Izan ere, ekimen indibiduala lehenestean, gobernu neoliberal eta kontserbadoreek ukatu egiten dute gizarte-langintzaren funtsa, jendartearen onurari eta gizarte-justiziarri lotua.

Hori dela eta, egoera aldatzen ari da azkeneko urteotan gizarte-langintzarentzat: dirulaguntza gutxiago jasotzen du estatutik; gizarte-zerbitzu asko pribatizatu egin da; eta handitu egin dira boluntarioen ekimenak (beste pribatizazio mota bat, beraz). Baina, aldi berean, gizarte-arazoak handitu eta sakondu egin dira: bazterketa mota berriak agertu dira, lanpostuen prekarizazioak bizitza-proiektuak zailtzen ditu, gizartearen indibidualizazio-prozesuaren ondorioak (bakardadea, identitatearen galera...) nabarmenagoak dira, eta abar.

Ondorioz, egoera paradoxikoan bizi da gizarte-langintza: gizarte-arazoak biderkatu egin dira, eta gizarte-langintzari eraginkortasun handiagoa eskatzen zaio arazo horiei aurre egiteko; baina pentsaera neoliberalak eta askotan iritzi publikoak ere gastu publikoaren murrizketa eta justifikazio zehatzagoa eskatzen dituzte. Gizarte-langintzari gehiago eskatzen zaio, baina aurrekontu murriztagoekin.

Horixe da aurrerantzean gizarte-langintza mugitu behar den testuingurua. Estatuari loturik bizitzea onuragarria izan zaio, baina muga garbiak ezarri dizkio, dependentziarena, gehienbat. Horixe da, hain zuzen ere, gaur egun azaltzen den arazo nagusia: gizarte-langintza estatuak gizarte-arloan daraman politikaren isla da. Baina estatuak baliabide gutxi eskaintzen badizkio gai horri, gizarte-langintza eskuak loturik geratzen da bere betebeharra aurrera ateratzeko.

Ildo horretan, azkeneko urteotan hainbat gizarte-langilek kontsulta partikularrak ipini ditu, zerbitzu pribatuak eskaintzeko, Amerikako Estatu Batuetan, batez ere. Izan ere, esaten badugu arazoak ez direla bakarrik ekonomikoak, esan nahi du jende batek ordain lezakeela zerbitzu horiek eskuratzeko, eta, bestalde, ez legoke ondo estatuak ordaintzea bezeroak erraz ordain dezakeena. Era horretan, 1920ko hamarkadatik aurrera arrunt egin zen praktika bat berreskuratu da, antzeko helburu batekin, gainera, gizarte-langile horiek lantzen duten arloa psikoterapia izaten baita. Oro har, aritzeko modu pribatu horrek independentzia ekartzen dio gizarte-langileari, ez baitago administrazioari loturik, eta gizarte-langintza modu pertsonalagoan garatzeko aukera ematen du. Beste batzuek, ordea, ezina ikusten dute gizarte-langintza halako baldintzen pean garatzea.

4.3. TESTUA: **GIZARTE-LANGINTZA EGOERA BERRI BATEAN**

Damian Salcedo: *Los valores en la práctica del trabajo social*, 318-320 or.

Ongizate-estatuaren sortzaileek ez zuten eskubide sozialen unibertsaltasuna berezko helburutzat hartu, zatiketa sozialak gainditzeko eta gizarte bateratuago bat lortzeko modutzat baizik. Esan daiteke, egiazki, helburua ongizate-maila handiagoko gizarte bat eratzea zela; baina lehenengo eta oinarrizko helburua gizarte bakar eta benetan integratua eratzea zen.

Jakina denez, ongizate-estatuaren krisia ideia horien krisia da, eta eztabaida horien guztien ondorio da gaur egungo egoera, «ongizatearen ekonomia mistoa» deritzona. Egoera horren ezaugarri nagusia da ongizate sozialaren sistema ez dela sistema estatala, garai batean bezala; gaur egun, estatuari, merkatuari eta familiei dagokie herritarrei zerbitzuak emateko ardura. Askotan, aldaketa horiek aurkezten dira zerbitzuak berrantolatzean eta finantzatzeko eran egindako moldaketak balira bezala. Baina, esplizituki edo inplizituki, aldaketa horiek balio multzo baten arabera egin dira. Balio horiek ohiko argumentu hauen bidez adierazten dira: batetik, ongizate-estatuak, aurrekontuen desoreka murrizteko, bere esku-hartzea txikiagotu behar du, eta, horren bidez, zerga-karga murriztea lortu behar du, ekonomia nazionala lehiakorragoa izan dadin. Bestetik, esan ohi da merkatuaren prozedurak hobeak direla beti estatuak zerbitzuak emateko dituen moduak baino. Eta, azkenik, esaten da, halaber, estatu paternalista herritarren bizitzetan «bidegabe sartzea» saihestu daitekeela horrela. [...]

Horrenbestez, itxurak itxura, baliabideak gutxieteko nahiz helburuak finkatzeko balio berriak erabili zituen diskurtso etiko konplexu batek aldatu zuen ongizate-estatuak. Balio horiek, jakina, eraginkortasuna eta erantzukizuna, eta askatasuna eta eskubideak izan ziren. Horiek, ongizate-sistemaren antolakuntza modua aldatzeaz gain, behin betiko aldatu dituzte zerbitzuak berak ere. «Enpresa-kultura» deritzonari buruz ari naiz hemen, zeinak enpresa-kudeaketaren irizpideen bidez, erakunde sozialen «ongizate-ekoizpena» ebaluatzen baitu eta ongizate-zerbitzuak nola lortu aukeratu dezakeen «eskubidedun kontsumitzailetzat» jotzen baititu herritarrak gaur egun.

Aldaketa horiek direla eta, ohiko ongizate-estatuaren ezaugarri asko desagertu egin dira jada, hala nola aipatutako ongizate-sistema horretan lanbideek duten zeregina. Ongizatearen sistema estatalaren egitura konplexuan, gizarte-lanbideen zeregina zen gizarteko kideek zer ongizate behar zituzten zehaztea. Hala, helburu zehatzak esleitu zizkieten ongizate-programei. Gizarte-lanbideen eginkizuna hori izanik, ongizate politikaren oinarrizko zati bat ziren, herritarrak gizartearen kide zirelako sentimenduari eta gizarte-kohezioari eusten saiatzen zen politikaren zati, hain zuzen. Aldiz, enpresa bihurtu diren erakundeetan, helburuak ez dituzte profesionalak erabakitzen, profesionalen taldetik at dagoen talde kudeatzaile batek baizik. Horiek erabakitzen dute zer helburu lortu behar diren eta nola, kostu-etekin analisisa soilik eginda. Beraz, sistema berri horrek jada ez du iritzi profesionalik behar helburuak finkatzeko. [...]

Dena dela, gizarte-langintza ez da aldaketa horietatik at egon. Aitzitik, aldaketa horiek ezagutu ditu, eta, batzuetan, baita txalotu ere. Hori argi ikusten da ongizate-estatuaren aldaketarekin batera garatu diren gizarte-langintzaren bi ikuspegi nagusi hauetan: «kasu-kudeaketa» deritzon eta «diskriminazioaren aurkako gizarte-langintza» deritzon ikuspegietan, hain zuzen.

Bi ikuspegi horiek kritika egin diote ongizate-estatuari lotutako gizarte-langintzaren profesionalizatzeko modu klasikoari. Kasu-kudeaketaren metodoa zerbitzuetan sartzen ari zela ikusi zuten profesionalak kritikatu egin zuten gizarte-langileek metodo horiek onartu izana, gizarte-langintza «desprofesionalizatzea» zela esanez. Gizarte-langintzan kasu-kudeaketa zilegi zela uste zutenek, aldiz, lan egiteko era tradizionala kritikatu zuten, estatus profesionalari eusteko eta, zerbitzuei dagokienez, gaitasunik ez zutela ezkutatzeko saio kontserbatzaileak zirela esanez. Bestetik, gizarte-langintza komunitarioan metodo berriak (askotan, titulazio egokia eskatzen ez zen eta gaizki ordaintzen ziren lanbideekin lotutakoak) sartzen ari zirela ikusi zuten profesionalak pentsatu zuten gizarte-langintzaren «proletarizazioa» ekarriko zuela horrek. Beste batzuek, ordea, herritarrengandik hurbilago egoteko metodo egokitzat jotzen zuten, eta ongizatea murriztea herritarrek kaltetzen ari zela uste zuten. Horiek lanbidearen defendatzaileak kritikatu zituzten, eta kontserbatzaileetat jo, estatuaren egituren barruan zuten botere-estatusari eta gainerako herritarren aurrean zuten estatusari eutsi nahi zitelako. Ikuspegi berri horientzat guztientzat, ez da galera handia autonomia profesionala bertan behera uztea gizarte-politikan eragin ahal izateko, baldin eta, horren bidez, lortzen bada lanbidea ongizate-estatuak inposatutako ekintzetatik zein ekintza horiek zilegi egiten zituen ideologia profesionaletik askatzea.

Erabilitako erreferentziak

Ander-Egg, Ezequiel (1984): *Historia del Trabajo Social*. Humanitas.

Moix, Manuel (2006): *Teoría del trabajo social*. Síntesis.

Moreno, Luis (2000): *Ciudadanos precarios. La «última red» de protección social*. Ariel.

Ochando, Carlos (1999): *El Estado del bienestar: Objetivos, modelos y teorías explicativas*. Ariel.

Salcedo, Damian (2003): «Los valores en la práctica del trabajo social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 313-372 or. Alianza.

Autoebaluazioa

- 1) **Ongizate-estatua(k)...**
 - a) Gizarte-arazoak bere gain hartzen dituen estatu-forma da.
 - b) xix. mendean nagusitu zen eredu liberala salatzen zuen, biztanleen gutxieneko baldintza sozialak bermatzeko egiten zuen gehiegizko esku-hartzeagatik.
 - c) Ugazaben eta langileen ituna eta lankidetzaren errefusatzeko du, pobrezia mugatzearen bidean.
- 2) **Gizarte-langintzaren instituzionalizazioan, garrantzitsuak izan dira honako aldarrikapen hauek...**
 - a) 1948ko Nazio Batuek Giza Eskubideen Aldarrikapena.
 - b) 1961ean gizarte-arazoaren garrantzia azpimarratu zuen *Langileen Oinarrizko Gizarte Eskubideen Komunitate Gutuna*.
 - c) 1989an Europako hainbat estatuk sinatu zuten *Europako Gizarte Gutuna*.
- 3) **1970eko hamarkadan ongizate-estatuaren aurka egin zen erasoak, honako izaera hau hartu zuen (aukeratu erantzun okerra):**
 - a) Liberalismo teorikoak aldarrikatu zuen gizarteari utzi behar zaiola ekimena, gobernutik edo estatutik zuzendu gabe.
 - b) Gobernu neoliberalak lehentasuna ekimen publikoari eman zioten, pribatua bigarren mailan utziz.
 - c) Aurrekontu sozialak murriztu ziren eskuineko gobernuen eskutik.

- 4) **Honako errealitate honek erakusten du azken urteetan gizarte-langintza egoera berri batean dagoela...**
- a) Dirulaguntza gehiago jasotzen da estatutik; gizarte-zerbitzu asko publikatu egin da; eta gutxitu egin dira boluntarioen ekimenak.
 - b) Gizarte-arazoak gutxitu egin dira, eta gizarte-langintzari eraginkortasun txikiagoa eskatzen zaio arazo horiei aurre egiteko.
 - c) Azkeneko urteotan hainbat gizarte-langilek kontsulta partikularrak ipini ditu, zerbitzu pribatuak eskaintzeko.

5.

Gizarte-langintzaren oinarri zientifikoak

Gizarte-langintzak bere nortasuna landu du xx. mendean zehar. Ekarpinak hartu ditu beste zientzia batzuetatik, baina bere espezifikotasuna adierazi du. Gizarte Zientzia modura, Gizarte Zientzien ezaugarri berberak ditu gauza askotan, baina ezaugarri propioak ere eskaintzen ditu, eta horrek denak ematen dio bere berezitasuna. Ikus ditzagun batzuk eta besteak.

Nolako gizarte-langilea izan nahi duzu? Gizarte-langile guztiak ez dira berdinak, eta, ezaugarri bereko lanpostuan egonda ere, gauzak modu desberdinetan egiten dira. Alde batetik, norberaren izaera dago, baina, horrek baino gehiago, bizitzaren aurrean norberak hartzen dituen jarrera filosofikoen, ideologikoen, politikoen eta zientifikoen jokatzeko dute. Zer helburu jartzen diogu gizarte-langintzari? Zer paper edo funtzio beteko du gizarte-langintzak zure bizitzan? Gizarte-langintza ulertzeko eta gizarte-langile izateko modu oso desberdinak egon daitezkeela azaldu nahi da gai honetan.

5.1. Gizarte-langintza ulertzeko era desberdinak


Bere ibilbidea luzea ez bada ere, zalantza asko dago gizarte-langintzaren izaera definitzeko momentuan. Kontzeptu batzuk beti agertzen dira (laguntza, gizakiaren eta ingurunearen arteko harremana, gizakiaren duintasuna), baina modu desberdinean formulatzen dira. Izenean bertan agertzen dira ikuspuntu desberdinak, herri batetik bestera aldatu egiten da eta: Hego Euskal Herrian eta Espainian gizarte-langintza erabiltzen da; Ipar Euskal Herrian eta Frantzia, gizarte-zerbitzuak; Hego Amerikan, gizarte-laguntza... Denak erabiltzen dira praktika bera adierazteko.

5.1.1. Gizarte-langintza ulertzeko faseak

Denborari dagokionez, gizarte-langintza ulertzeko modu desberdinak izan dira.

1. **Laguntza ematea.** Oso ohikoa historian zehar. Arrazoi asko direla eta (adiskidetasuna, errukia, beldurra, prebentzioa...), batzuek besteei laguntza eman izan diete.
2. **Laguntza teknikoa.** Aro Modernotik limosnarekin amaitu nahi da, eta xix. mendetik aurrerapausoak egiten dira ildo horretan. Laguntza ez da edozein modutan ematen. Aitzitik, pentsatu egin behar da, eraginkor izan dadin. Horrez gain, lagunduari bere duintasuna aitortu behar zaio. Gizarte-langintza ez da mugatzen gabezien ondorioetara, eta beharizanaren azpian dauden kausak ere aztertu nahi dira. Hortaz, gizakiaren arazoetan eragiten duten gizarte-atalak ere aztertu behar dira (de la Red, 1993: 132 t. hur.)
3. **Jarduera zientifikoa.** xx. mendetik aurrera, metodo zientifikoa erabiltzeko joera nagusitzen da. Gizarte-langintza unibertsitatean ikasten da, eta ikerketa-ildoak ere irekitzen da. Gainera, xx. mendearen erdialdetik aurrera ohiko lanbide ere bihurtzen da, eta hortik esperientzia berriak

sortuko dira. Apurka, gizarte-langintza gorpuztu egiten da, zientzia gisa ezaugarrituta, gainerrako gizarte-zientzien antzera.




8. irudia. Gizarte-langintza ulertzeko faseak.
(Iturria: guk egina.)

5.1.2. Gizarte-langintza ulertzeko moduak

Denboran gizarte-langintza ulertzeko fase desberdinak egon diren bezala, bere izaera modu desberdinean ulertu da, batez ere, instituzionalizazio-prozesuan sartu zenetik. Hori dela eta, era askotara definitu izan da (ik. Escartin eta Suarez, 1994: 133-136; 67-72; Kisnerman eta lankideak, 1981: 107-111):

1. **Artea.** Gizarte-langintzak zientziaren ezaguera baliatzen du, baina gizarte-langile izateko berezko «dohai» bat behar dela pentsatzen da, berezko «bokazioarekin» eta harremanetarako trebetasunarekin loturik. Garrantzitsuena gizakiaren unean uneko sufrimenduari aurre egitea da.
2. **Lanbidea.** Gizarte-langintza lanbide arrunt gisa ulertzen da, ongizate-estatuari loturik gehienbat. Ikuspegi horren arabera, gizarte-langintza instituzioek daukaten lanbideetako bat da, besteen pare eta ez gehiago, eta praktikara bideratu behar da, gizartean dauden arazoak konpontzea baita bere helburua.



9. irudia. Gizarte-langintza ulertzeko moduak.
(Iturria: guk egina.)

3. **Teknologia.** Gizarte-langintza gizartean eragiteko tresna da. Teknika multzo gisa ikusten da, gizartearen ongizatea eta garapena lortzeko helburuz.
4. **Zientzia.** Gizarte-langintza aurrean duen arazo baten azterketa osoa egiteko gai da, modu zientifikoan. Zientzia da, beraz, gizarte-zientzien multzoaren barruan ulertu behar dena.

Eztabaida hori dela eta, bada beste ildo bat gizarte-langintza aukera horien guztien bilduma bezala ulertzen duena. Hori defendatzen dutenak zientziari helburu praktikoa ematen diote, ez bakarrik ezaguera-ildo bat:

- Zientziak landu nahi dugun esparruaren ezaguera zehatz eta sakona eskaini diezaguke, eta teknikak sor daitezzen irizpideak ezarri.
- Teknikek, bestalde, aurrera eramango dute zientzian landutakoa, eta praktika bihurtu. Praktika hori, azkenean, lanbidean gauzatuko da askotan.

Azkeneko urteotan indar handiena lortzen ari den ildoak gizarte-langintza zientzia bezala ulertzen duena da.

Zure bokazioa, zure lanpostua... Ondo pentsatu gizarte-langintza ulertzeko dauden modu desberdinen aurrean. Uste baduzu gizarte-langintzarako «bokazioa» daukazula, gizarte-langintzak zeozer «berezia» daukala adierazten duzu, eta zuk berezitasun horrekin konektatuko duzula. Bokazioa «sentitu» egiten da, eta gizarte-langintza «arte» bihurtzen da orduan. Beste alde batetik, gizarte-langintza «lan egiteko» aukera bat dela uste baduzu, zertarako hainbeste teoria eta ikasketak: nahikoa izango litzateke praktika egoki bat, lanbidea ondo ikasteko. Zertarako behar duzu teoria? Teoriak lagundu dezake praktika aurrera eramaten?

5.2. Gizarte-langintzan eragin duten zientziak

Zientziak ez dira bakarturik garatzen. Aitzitik, zientzialariak etengabeko harremanetan daude beste zientzialariek, eta arduratu egiten dira beste zientziek egin ditzaketen ekarpenez. Zientzia bakoitzak, baina, bere kokapena bilatzen du, besteetatik bereizi egiten duena. Berdin gertatzen da gizarte-langintzarekin. Gizarte-langintzari eragiten dioten diziplinak ikusiko ditugu jarraian (ik. Fernandez eta Rondón, 2003: 201 t. hur.; Escartin eta Suarez, 1994: 152-155; de la Red, 1993: 81 t. hur.; 221-222).



10. irudia. Gizarte-langintzan eragin duten zientziak.
(Iturria: guk egina.)

1. **Psikologia.** Psikologiak gizakiaren jokabidea aztertzen du. Eragin handia eduki du gizarte-langintzan, gizartearen eta gizakiaren jokabidea ulertzeko tresnak eman dizkio eta. Izan ere, esku-hartze ereduak ere psikologiatik hartuta daude neurri batean. Laguntza handikoa izan zaio gizarte-langintzari, zerbitzu hori eskatzen duten pertsonak hobeto ulertzeko balio izan dio eta. Bere barruan eragin handia eduki dute psikologia funtzionalistak eta psikoanalisiak. Lehenak dio gizakiak inguruarekin bat egin behar duela, eta gizarte-langileak bien arteko egokitzapena bilatzen du, dauden arazoak banan-banan konpontzen saiatuz. Bigarrenak arazo baten aurrean gizakiak dituen motibo inkontzienteak azaleratu nahi ditu.
2. **Soziologia.** Soziologiak gizartea aztertzea eta ulertzea dauka helburutzat, eta gizarte-langintzari oso loturik egon da hasieratik. Soziologiak gizartea aztertzekeo testuinguru orokor bat eskaintzen dio gizarte-langintzari: egiturak, instituzioak, arauak, munduaren ikuskera, gizarte-arazoen ikuskera, eta abar. Bere barruan eragin handia eduki dute funtzionalismoak eta marxismoak.
3. **Medikuntza.** Osasunak erabateko garrantzia dauka gizakiaren jokabidean, eta horrek gaixotasuna sendatzea edo aurreikustea eskatzen du. Bere jardueran, gizarte-langintzak osasun publikoan eragiten du, eta osasunaren gizarte-arloa ezagutu behar du. Hori dela eta, batzuetan osasun-talde multiprofesionaletan hartzen du parte, medikuntzaren atalean bete-betean sartzen ez diren hainbat gaitan gizarte-laguntza eskaintzeko.

Horrez gain, gogoratu behar da medikuntzak eragin handia eduki zuela gizarte-langintzaren hasieran. Mary Richmondek berak medikuntzaren eredia hartu zuen bere proposamen metodologikoa egitean, eta hizkera medikoa bera ere bereganatu zuen, gizarte-arazoen lanketaren urratsei ipini zizkien izenek erakusten digutenez: azterketa, diagnosis eta tratamendua; edo gizarte-arazoak «gaixotasun»tzat jotzea, adibidez.

4. **Zuzenbidea.** Zuzenbideak gizarte baten barruan giza harremanak bideratzeko ezartzen diren irizpideak eta arauak aztertzen ditu. Gizarte-langintzak lege eta arau horietako batzuk erabiltzen ditu bere jardueran, eta beharrezko du horiek ondo ezagutzea.
5. **Antropologia.** Antropologiak gizakiaren agerpide kulturalak aztertzen ditu. Gizarte-langintzak gizakia bere kulturaren ulertzeko erabiltzen du antropologia, horrela bakarrik jabetuko baikara gizaki baten dimentsio osoaz.
6. **Ekonomia.** Ekonomiak gizakiak dituen baliabideak nola erabili eta ondasunak nola produzitzen eta banatzen dituen aztertzen du. Gizarte-langintzak beharrezkoa du ekonomiaren oinarriko kontzeptuak ezagutzea, bere helburua gizartearen ongizatea da eta: pobrezia nola aurre egin, baliabideak nola kudeatu, eta abar.
7. **Zientzia politikoak.** Zientzia politikoak estatua eta botere-harremana, gobernu-instituzioak eta maila horretako erabakiak hartzeko prozesua aztertzen ditu. Gizarte-langintzak estatuaren izaera ezagutu behar du, horrek eragina baitauka bere jardueran. Eta, horrez gain, gobernu-instituzioetan jarduten duenez, instituzio horiek nola jokatzen duten jakin behar du.
8. **Historia.** Historiak iragana aztertu eta azaltzeko ahalegina egiten du. Gizarte-langintzak historia erabiltzen du bere iraganaz eta joan-etorriaz jabetzeko eta oraina hobeto azaltzeko.

5.3. Gizarte-langintzan eragin duten teoria politiko eta filosofikoak

Azkeneko bi mendeotan gure gizartean bezala, gizarte-langintzan hainbat ildo teorikok eragin dute, bakoitzak bere adarrekin (ikus, besteak beste, Morán, 2003: 153 t. hur.; de la Red, 1993: 81 t. hur.; Torres, 1987: 239-241; de Miguel eta Mendia, 2022: 9 t. hur.; Patiño, 2017: 77 t. hur.).

5.3.1. Funtzionalismoa

Funtzionalismoak (positibismoa, organizismoa, liberalismoa) objektibotasuna eta naturaren oreka aldarrikatzen ditu, oro har. Multzo baten barruan, elementu bakoitzak funtzio bat betetzen du,

eta denen osotasunak aurrera egiten laguntzen du. Elementu batek huts egiten badu, patologia bat agertzen da, eta konpondu beharra dago. Gure gizartean, adibidez, badaude hainbat instituzio, eta bakoitzak helburu bat betetzen du. Era horretara, oreka bat mantentzen dute euren artean, eta denek laguntzen dute gizartearen aurrerapenean.

Gizarte-langintzaren barruan, funtzionalismoak bi era nagusitan eragin du:

1. **Enpirismoaren nagusitasuna.** Aurrean dagoen arazoari so eginez, datuak islatzen duten egoeraren interpretazio objektibo eta koherentea egin nahi da. Horretarako, ezinbestekoa da informazioa biltzea, era horretara bakarrik eraiki ahal izango baita esku-hartze prozesu egoki bat. Berdintasun-irizpidea bilatuz, gizarte-langintzak orokortasunera eta erregularitasunera jotzen du, eta testuingurua eta subjektibotasuna baztertzen edo ahazten ditu.
2. **Norbanakoari emaniko gehiegizko zentralitatea.** Gizartea ondo aritzeko norbanakoaren beharrik ez diren horren harira, gizarte-langintzak pertsonaren arazo zuzenari heltzen dio; arazoak banan-banan eta sortzen diren heinean konpondu behar dira. Testuingurua eta erabiltzaileak beharrik ez diren pertzepzioa ez dira kontuan hartzen. Gizartearen ordenarekin bat ez datozen arazo guztiak patologia gisa hartzen dira: delitua, prostituzioa, drogazaletasuna, sindikalgintza, gutxiengo etniko edo marjinatuak, eta abar.

5.3.2. Marxismoa

Historiaren ikuspegi dialektikoa garatzen du, gatazkan oinarritua, zeinaren arabera gizarte-harremanak produkzio-bitartekoen jabetzek baldintzaturik baitaude. Produkzio-bitartekoen jabetzak klase borroka eragiten du, eta marxismoak zapalduak dagoen langile-klasearen askapena aldarrikatzen du. Asmo horretarako, funtsezkoa da zapalduak daudenen kontzientzia piztea, euren alienazio-egoeraz jabetu daitezen, horrek gizarteko arazoak ulertzeko giltza emango digu eta.

Gizarte-langintzaren barruan, marxismoa ez dator bat funtzionalismoaren patologia eta egokitzapen kontzeptuekin. Aldiz, ikuspuntu marxistatik gatazka ezinbestekoa da, gizartearen egituraketa ondo ez bada. Hori dela eta, konponbiderako gizartearen aldaketa estrukturalak aldarrikatzen ditu, hor baitago gizabanakoaren arazoaren iturria.

Ikuspegi horretatik, gizarte-langileak betebeharren eta baliabideen arteko bitartekari bihurtzen da; edo, beste modu batera esanda, gizartean lehian ari diren bi klase nagusien arteko bitartekari. Baina lan hori egitean, klase menperatzailearen morroi bihurtzen da, bere zereginarekin azpiko arazoak estaltzen laguntzen baitu. Gizarte-langintza erradikal baten zeregina menderakuntza hori azaltzea izango litzateke.

5.3.3. Teoria konprentsiboak

Aurreko ildo biek ikuspuntu objektibo eta determinista garatzen dute, teoria konprentsiboek, berriz, ikuspuntu subjektiboa txertatu nahi diote zientziari: ez dago naturaren ordena zurrunik; pertsona bakoitzaren esperientziatik erdiesten da ezaguera. Subjektibotasunak, beraz, garrantzi handia hartzen du ikuspuntu horretan, eta horrek kontraesanak sortzen ditu. Ez da nahikoa gizakien jardueren deskripzioa egitea; ulertu behar da norbanakoaren asmoa jarduera hori egitean: ekintzen zergatia, esangura, interpretazioa, eta abar. Bere barruan ildo nagusi bi ageri dira: interpretazio-jarrerak eta humanismoa.

Gizarte-langintzaren barruan gizakiek hausnarketarako daukaten ahalmena baloratzen da, zeinaren arabera, modu kontziente batez jokatzeko baitaude. Hori dela eta, beharrezkoa dugu jakitea gizaki bakoitzak bere burua eta bere ingurua nola definitzen dituen. Baina gizarte-langilearen ikuspuntu subjektiboak ere parte hartzen du ariketa horretan: ikuspuntu horren arabera, erabiltzailea modu batean edo bestean ulertuko du, eta horrek eragina edukiko du ulermen osoan.

Teoria hauetan gizarte-langintza artetzat jotzen da. Erabiltzailea da bere arazoaren konponketarako giltza duena; gizarte-langilearen papera erabiltzailea ulertzea eta laguntzea da, eta, horretarako, enpatia, zintzotasuna eta beste ezaugarri batzuk garatzen ditu. Bien artean arazoari buruzko hausnarketak egiten dute, eta ulertu ondoren konpontzen ahalegintzen dira.

5.1. TESTUA: **GIZARTE-LANGINTZAN ERAGIN DUTEN TEORIA FILOSOFIKOAK-1**

Jose María Moran: *Corrientes filosóficas y teóricas que han influido en el Trabajo Social: funcionalismo, marxismo y teorías comprensivas*, 169; 178; 196-197 or.

Funtzionalismoa gizarte-langintzan

- Funtzionalismoak dituen arautze eta oreka sozialerako nahiak direla eta, gizarte-langileak aldaketa txiki batzuk bilatzen ditu esku hartzen den inguruaren (norbanakoa, familia, auzoa, komunitatea) *statu quo*a gordetzeko. Era berean, eta edozein desoreka edo ezegonkortze saihesteko, ingeniariaritzaren sozial moderatua egiteko joera eduki dezake, eta bere bidez baliabideak berriz banatzeko.
- Erreforma, eta ez kritika eraldatzailea, da hobesten den politika. Gizarteko alde batzuek gehiegizko tentsioa jasaten dutenean, erreforma sustatzen da, ordena eta oreka mehatxa ditzakeen edozein presio murrizteko.
- Erabiltzailearen natura determinatuta dagoela uste da, hautatzeko askatasunik gabe. Gizartea eta jendea begirale independentearen ikuspuntutik ikertzen dira. Parte-hartzaileek edo/eta erabiltzaileek gertatzen ari denaz eskaini ditzaketan azalpenak ez dira egokitzat jotzen.
- Jendea, maila indibidual zein kolektiboan, arauak eta kausa-harremanak gidaturik dagoela onartzen da. Gizarte-langilearen papera harreman horiek eta jokaera-arauak zehaztea da.
- Jendeak modu objektiboan deskriba eta uler daitezkeen ezaugarriak erakusten ditu. Gizarte-langileak ezaugarri horiek neurtzen, sailkatzen eta euren artean kausa-harremanak ezartzen ahaleginduko da, diagnostiko bat egiteko asmoz.
- Era berean, enpirismoa esku-hartze funtzionalistaren zati bat da; profesionalak uste du giza jarduerari hobeto heltzen zaiola ikusia eta deskribatua izan daitezkeen jokaera behagarri gisa. Jokaera ikusi dena da, eta ez dago horren atzetik ezer gehiago bilatu beharrik.

Marxismoa gizarte-langintzan

- Marxismoak gizarte-langintza erradikala proposatzen du, gizarte-langintza tradizionalari eginiko honako kritika hau gaituzteko duena:
 - a) Azalpenek arazo psikologiko indibidualetara mugatzen dituzte sozialak diren arazo konplexuak; *errua biktimari egozteko* joera dute, gizarte-jatorria duten arazoaren erantzule erabiltzaileak eginez.
 - b) Arazoak dituen jendea *urrundurik* geratzen da, halako esperientzian bat etor zitezkeenengandik bakarturik, eta horrek galarazi egiten du arazoa beste horiekin batera lantzea.
 - c) Kapitalismoaren gizarte-ordena zapaltzailea sendotzen eta laguntzen du.

Teoria konprentsiiboak gizarte-langintzan

- Konfiantza eta giza babes giroa ezartzeak ahalbidetzen du erabiltzaileak ziurtasun nahikoa sentitzea bere ekintzei aurre egiteko.
- Erabiltzaileak modu askean hautatzeko ahalmena dauka, eta besteen interes eta laguntzaz, gure bizitzak landu ditzakegu, menderatzen eta zapaltzen gaituzten antsietateetatik libre.
- Erabiltzaile eta adiskideekiko harremanak onak eta zabalak izan daitezken, beharrezkoa da egoera subjektiboak ezagutzea eta partekatzea.
- Terapia, laguntza, aholkua edo dena delakoa hitz egitea baino ez da. Leku guztietan, jendeak beste pertsona batzuk bilatzen ditu bere arazoak entzun diezazkieten. Eta entzumenaren atzetik maitasuna, zintzotasuna, enpatia eta berotasuna daude.

Besteei laguntzea ez da batere konplikatu, ez intelektualki ez teknikoki.

Gure sentimendu instintiboez fidatu behar gara, azaltzeko beldurrik izan gabe. Esperientzia da errealitateara heltzeko biderik garrantzitsuenak. Terapeuta ez da aditu bat. Erabiltzaileak daki zer doan txarto, zer aztertu behar den, eta zer egin behar den.

5.3.4. Gaur egungo beste teoria batzuk: feminismoa eta dekolonitatea

Gizarte-langintzak harreman estua izan du emakumeekin eta genero-ikuspegiarekin. Izan ere, feminizatutako diziplina izan da tradizionalki, bai gizarte-langileen genero-identitateagatik (gehienak emakumeak baitira), bai gizarte-langintzari lotu zaizkion funtzioek lan feminizatuekin duten loturagatik (zaintza, laguntza, besteen beharrez arduratzea, etab.).

Hala ere, genero-ikuspegia eta feminismoa ez dira sinonimoak: lehenak eskatzen du edozein errealtate aztertzerakoan emakumeen ikuspegia aintzat hartzea. Bigarrenak, aldiz, kutsu politikoagoa hartzen du. de Miguelek eta Mendiak (2022) seinalatzen duten moduan, gizarte-langintzari buruzko genero-hausnarketari «feminista» deitzeak esan nahi du jarrera esplizitua hartzea: biztanleriaren erdiari modu desberdinean eta desorekatuan eragiten dioten problematiken izaera politikoa aitortzea (arlotzaren botereari eta antolaketari dagokienez). Besteak beste, indarkeria matxista, pobrezia, bazterketa sozioekonomikoa, lan-prekarietatea edo sexu- eta ugalketa-eskubideak. Alde horretatik, gizarte-langintzaren leku «naturala» feminismoa da eta, aldi berean, feminismoak gizarte-langintzaren praktika elikatzen eta inspiratzen du. Gizarte-langintzari buruzko hausnarketa feministak, era berean, gizarte-antolaketa osoa zalantzan jartzen duen jarrera esplizitua eskatzen du, eta ez bakarrik genero-harreman desberdinak aztertzea (de Miguel eta Mendia, 2022).

Zapalkuntzen elkarguneari buruzko irakurketa feministek adierazten dutenez, emakumeek jasaten dituzten desberdintasunak azaltzeko genero-kategoriari bakarrik erreparatzea ikuskera mugatzailea da. Hots, emakumeen errealtatea anitza da, eta ez dago soilik genero-zapalkuntzari lotuta; aitzitik, klase sozialek, arrazak, edo jatorriak ere eragiten dute emakumeen errealtatean. Horrek, zuzenean, feminismoaren teorien korrante batzuetara garamatza: feminismo beltza, txikanoa, lesbianoa, post-moderno edo dekoloniala, besteak beste. Horiek guztiak emakumeen esperientzien ustezko unibertsaltasuna zalantzan jartzen duten korronteen adibide dira.

Dekolonitatearen teoriak ere eragina izan du gizarte-langintza ulertzeko eta praktikatzeko orduan, batez ere, Hego Amerikan (adibidez, Ekuadorren edo Bolivian). Ikuspegi horrek tokian tokiko jakintza komunitarioak kontuan hartzea proposatzen du, iparraldeko herrien ikuspegia zalantzan jarriz (Patiño, 2017); bereziki ikuspegi funtzionalista-positibistak inplikatzeko duen garapen-eredua da, baina baita iparraldeko teoria humanista, marxista edo feminista ere. Teoria horrek zalantzan jartzen du zergatik eremu zientifikoan, baita gizarte-langintzan ere, jakintza batzuk, teoria batzuk erdigunean dauden eta beste batzuk bazterretan, ezkutuan, begirunerik gabe. Horiek dira, hain zuzen, hegoaldeko herri eta komunitateetatik eraiki direnak, eta horiek erdigunera ekartzea proposatzen du teoria dekolonialak.

5.2. TESTUA: GIZARTE-LANGINTZAN ERAGIN DUTEN TEORIA FILOSOFIKOAK-2

Estibaliz de Miguel eta Irantzu Mendia: *Inquietudes feministas en el Trabajo Social*, 9-19.

Feminismoa eta dekolonialitatea gizarte-langintzan

- Ikuspegi intersektionalak emakume izatearen eraikuntza hegemonikoa zalantzan jartzea ahalbidetzen digu, esperientzien aniztasuna agerian jarriz eta emakume subalternoen eta «zitalen» arteko elkarketa zalantzan jarriz; hau da, «emakume onaren» kanpoaldean geratzen den guztia. Emakumetasunaren irudian emakumea zuria, heterosexuala, klase ertainekoa, ilustratua eta gaitua da, sistema patriarkalak balioetsitako feminitatearen ezaugarriak irudikatzen dituena (garbiak, ordenatuak, ederrak, diskretuak, langileak, familiako maitaleak, ustez droga-konsumitzaileak ez direnak, etab.). Horrek guztiak aukera ematen digu gizarte-langilearen zeregina zalantzan jartzeko hegemonikoak ez diren beste emakumeekin esku hartzen duenean, eta, bereziki, haiekiko kontrola izatera bideratzen denean; hau da, «plakarik gabeko polizia» edo «generoaren polizia» bihurtzen denean emakume «zital» horiek emakumetasunaren eredu nagusira egokitzen saiatzen den heinean.
- Dolores Julianok aztertu ditu sarritan emakumeen gaineko diskurtso legitimoan islatzen ez diren eta aldarrikapen feministen parte izatera iristen ez diren emakumeen estrategiak. Juliano emakume baztertuei (1992, 1998), presoiei (2009, 2011), prostitutei eta atzeritarrei (2006) buruzko egilerik oparoe-


netakoa da. Berak dioenez, emakume batzuk ez dira feministatzat hartzen, eta, horregatik, mezu eta praktika alternatiboak sortu arren, ez dute errekonozimendu bera jasotzen: «Herri-sektoreetako emakumeek biziraupenaren borroka egiten dute egunero, inork teorizatzen ez dituen garaipen txikiak lortuz» (Juliano, 1998: 19).

5.4. Gizarte-langintza zientzia gisa

Gizarte-langintzaren izaera zientifikoa inoiz zalantzan jarri izan bada ere, azkeneko urteotan gero eta gutxiago hitz egiten da horretaz. Zientzia izateak esan nahi du oinarri batzuk partekatzen dituela beste zientziekin, eta are gehiago ingurukoekin. Baina, horrez gain, zientzia gisa zerbait espezifikoa gordetzen duela, beste zientzietatik bereizten duena (Celedón, 2003: 264 t. hur.; Kisnerman eta lankideak, 1981: 67 t. hur.).

Lehenengo parteari dagokionez, zientzia izateko ezaugarrietan erreparatzen badugu, gizarte-langintza zientzia dela ondoriozta dezakegu, ezaugarri guztiak betetzen ditu eta: gizakiez arduratzen da, eta haien jokaeraren atal batzuk aldatu nahi ditu; datu-bilketa egiten du; datuen azterketa errealitatean aplikatu nahi du, eta hortik teoria berriak lantzeko asmoa dauka.

Hori dena aurrera eramateko, gizarte-langintzak bide bat baino gehiago erabiltzen ditu: beste zientzien laguntza, batetik; eta praktikatik ateratako eta landutako bide propioak, bestetik. Hala ere, gizarte-langintzaren gabezia historikoa teorizazio falta eta praktikarako gehiegizko joera edukitzea izan dira.



11. irudia. Teoriaren eta praktikaren arteko uztarketa zientifikoa.
(Iturria: guk egina.)

Hala ere, praktika eta teoria ezin dira banatu, eta, era berean, horiek biak ere ezin dira gizakia-rengandik bereizi. Gizarte-langintzak gizarteak dituen arazoak ulertu, eta horietan eragin nahi du. Errealitatea aldatzeko saio bat egiten du, eta, horretarako, beharrezkoa du teoria egoki bat eraikitzea, praktikatik sortua izango dena. Teoria hori praktikan aplikatuko da berriro, horretarako teknologia berezia erabiliz, eta hortik teoria berria egiteko datuak aterako dira. Ziklo hori etengabe errepikatzen da.

5.4.1. Gizarte-langintzaren espezifiktasuna

Gizarte-langintzak beste zientzien eragina dauka, eta ildo filosofiko eta teoriko desberdinak barne hartzen ditu. Baina gizarte-langintzak ez du kopia hutsa egiten. Aitzitik, bere beharrianetara moldatzen ditu, eta izaera berria ematen die. Zientzia gisa, gizarte-langintzak bere ikerketa-ildo propioa eta bere izaera propioa landu ditu.

Era horretara, apurka-apurka, gizarte-langintzak bere lekua egin du beste zientzien artean, gizarte-zientzien ondoan. Zientzia horiek gizakia eta gizartea ipini nahi dituzte harremanetan, eta harreman

horietatik sortzen diren arazoak aztertu. Gizartearen arazoez arduratzea da, hain zuzen ere, gizarte-zientzien betebeharrerako bat, eta hori bete-betean sartzen da gizarte-langintza, gatazkan eta beharrezan jartzen baitu arreta.

Gizarte-langintzak orokorra eta partikularra bildu nahi ditu. Alde batetik, ikuspegi orokor bat garatu nahi du, baina gero partikularrean aritzeko. Hots, munduan gertatzen diren aldaketak kontuan hartzen ditu gizakiengan duten eraginagatik. Horrek azaltzen digu zergatik behar den beste zientzien hainbeste ekarpena. Gizarte-langintzak baliatu egiten ditu ekarpen horiek, gero bere esparrura eramateko eta praktikan ipintzeko.

Horixe da, beharbada, gizarte-langintzaren ezaugarriarik markatuena, praktikan aritzeko duen borondatea, alegia. Baina, horregatik ez da gizarte-praktika hutsa. Praktika, ordea, teoria eraikitzeko pauso gisa ulertu behar da. Gizarte-langintza teoriaren eta praktikaren arteko harreman joria da.

5.3 TESTUA: **GIZARTE-LANGINTZAREN ESPEZIFIKOTASUNA**

Manuel Moix: *Introducción al Trabajo Social*, 245-246

Azken batean, zientziatzat objektu propio baten inguruko ezaguera transmitigarrien multzo sistematikoa ulertzen badugu, eta zientzia guztien ezaugarria egia azken helburu gisa edukitzea bada, Zubirik dioen bezala, ukazina da gizarte-langintza, zehatz hitz eginez, zientzia bat dela.

Bere helburuetarako, beste zientzia batzuek (hala nola soziologiak, psikologiak, ekonomiak, medikuntzak, psikiatriak, antropologiak, biologiak, historiak, hezkuntzak edo filosofiak) landutako era guztietako hainbat ezaguera erabiltzen ditu: artikulatu, sintetizatu eta xurgatu egiten ditu horiek guztiak bere jakintza propio eta eskusiboen eremu handian. Baina ez da horretara mugatzen; aitzitik, bere teoria eta metodoak sortu ditu, bere printzipioak egituratu, bere balio eta sinesmenak landu, bere filosofia ekoitzi du, eta bere ikerketa garatu. Izan ere, gizarte-langintza ez baita bakarrik sostengatzen gizarte-zientziek (eta batez ere soziologiak, medikuntzak, psikologiak eta antropologiak) eginiko ikerketan; aldiz, gero eta erantzukizun handiagoak hartzen ditu bere ikerketa kritikoaren garapenean, horretarako berezkoak dituen metodoak frogan jarriz eta emaitzak zehaztuz.

Hitz batez, gizarte-langintza diziplina zientifikoa da, ezaguera transmitigarrien multzo sistematiko eta koherente batek osatutako eduki propio eta autonomoa duena; zenbait emaitza lortzeko metodo batzuk erabiltzen ditu; jarrera profesionalak ditu; filosofia eta etika ditu; eta azterketa eta ikerketaren bidez aurrerakuntza sustatzera eskainitako erakunde profesionalak ditu. [...]

Bere edukia osatzen duten jakintza sistematizatuen gero eta ondare handiagoak ez ditu barne hartzen, esan den bezala, beste gizarte-zientzia batzuek eman dizkieten ezaguerak bakarrik baizik, eta, batez ere, bere ikerketa kritikoak eta bere esperientziak lorturikoak. Hona, besteak beste, garrantzitsuenak:

- a) Instituzio sozial, politiko eta ekonomikoen ezaguera, eta euren berezko funtzionamenduarena.
- b) Gizabanakoaren aukerak baldintzatzen dituzten faktore kulturalen ezaguera.
- c) Komunitateen osaketaren ezaguera, komunitate-bizitza osasungarri bat egitea eragiten duten faktoreena, eta baita beharra dutenei laguntzeko komunitateak dituen baliabideena ere.
- d) Gizarte-eraketarako teknikak ezagutzea; adibidez, nola lortu jendeak bere ahaleginak komunitatearen alde batu ditzen, edo nola eratu izaera publiko edo pribatudun gizarte-zerbitzuen programak.

Hala ere, gizarte-langintzan erabakigarria da, duda barik, jendea ezagutzea: bere betebeharrak, itxaropen eta asmoak; bere sentimendu eta erresuminak une zailetan; bere beldur eta antsietateak, eta baita bere frustrazioak ere...

Gizarte-langintza ezaguera metatuz joan da hainbat gaik gizakiarengan sortzen duten eraginaren inguruan: gizarte-egaitasunak, moldatzeko ezintasunak edo desorekak; langabeziak, soldata baxuak, osasun- eta mediku-laguntza faltak, etxebizitza urri edo osasun-baldintza txarrekoak, etab.

Berezia eta eskusiboa den objektu propioaren inguruko ezaguera-erdigune horrek, beste ezin zientziarekin partekatua ez denak, ematen dio gizarte-langintzari autonomia zientifiko osoa.

Erabilitako erreferentziak

- Celedon, Carmen (2003): «El concepto de Trabajo Social. El Trabajo Social como profesión: la identidad del Trabajo Social. El Trabajo Social como disciplina científica. La tecnología y el Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 201-276 or., Alianza.
- de la Red, Natividad (1993): *Aproximaciones al trabajo social*. Siglo XXI.
- de MigueL, Estíbaliz eta Mendia, Irantzu (2022). *Inquietudes feministas en el Trabajo Social*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Escartin, Mari Jose eta Suarez, Esperanza (1994): *Introducción al trabajo social. I (Historia y fundamentos teórico-prácticos)*. Aguaclara.
- Fernandez, Tomás, eta Rondon, Luis Miguel (2003): «Aportaciones de las ciencias sociales al Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 201-228 or. Alianza.
- Kisnerman, Natalio; eta lankideak (1981): *Introducción al Trabajo social*. Humanitas.
- Miranda, Miguel (2004): *De la caridad a la ciencia. Pragmatismo, Interaccionismo simbólico y Trabajo Social*. Mira.
- Moix, Manuel (1991): *Introducción al trabajo social*. Trivium.
- Moran, José María (2003): «Corrientes filosóficas y teóricas que han influido en el Trabajo Social: funcionalismo, marxismo y teorías comprensivas», 153-200 or., in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. Alianza.
- Patiño, Marisol (2017): «Tejiendo conocimientos en los círculos senti-pensantes: hacia un Trabajo Social Decolonial y del Bien Vivir», in Hermida eta Meschini (zuz.) *Trabajo Social y Descolonialidad. Epistemologías insurgentes para la intervención en lo social*. 77-100 or. Eudem.
- Torres, Jorge (1987): *Historia del trabajo social*. Humanitas.

Autoebaluazioa


- 1) **Gizarte-langintza ulertzeko zein moduk uste du «gizarte-langile izateko berezko dohai bat izan behar dela»:**
 - a) Artea.
 - b) Zientzia.
 - c) Teknologia.
- 2) **Zer ekarpen egin diezaioke psikologiak gizarte-langintzari?**
 - a) Gizakiaren jokabidea ulertzeko tresnak ematen ditu.
 - b) Iragana aztertzen eta ulertzen laguntzen du.
 - c) Estatua eta botere-harremanak ulertzen laguntzen du.
- 3) **Zer ekarpen egin diezaioke soziologiak gizarte-langintzari?**
 - a) Legeak eta arauak nola ezartzen diren eta zer printzipio dituzten ulertzen laguntzen du.
 - b) Ondasunak nola produzitzen eta banatzen diren ulertzen laguntzen du.
 - c) Gizartea ulertzeko testuinguru orokor bat eskaintzen du.
- 4) **Funtzionalismoak gizarte-langintzan bi era nagusitara eragin du (aukeratu oker dagoena...)**
 - a) Enpirismoari nagusitasuna aitortu dio.
 - b) Gizartearen ordenarekin bat ez datozen arazo guztiak patologiatzat hartzen ditu.
 - c) *Iraultza* eta *gatazka* terminoak jartzen ditu analisiaren erdigunean.
- 5) **Marxismoak gizarte-langintzan nola eragin du? (aukeratu oker dagoena...)**
 - a) Ikuspegi dialektikoa txertatu du, gatazkan oinarrituta.
 - b) Gizarte-arazoen konponbiderako gizartearen aldaketa estrukturalak aldarrikatzen ditu.
 - c) Gizarte-langilea gizartean lehian ari diren bi klase nagusiren bitartekari neutral izatea aldarrikatzen du.

- 6) **Teoria konprentsiiboak gizarte-langintzan nola eragin du? (aukeratu oker dagoena...)**
 - a) Ikuspuntu subjektiboa txertatu du.
 - b) Erabiltzailea konponbidearen giltza dela aldarrikatzen du, eta gizarte-langilea bidelaguna.
 - c) Objektibotasuna, distantzia eta ildo determinista aldarrikatzen ditu.
- 7) **Teoria dekolonialak auzitan jartzen d(it)u...**
 - a) Tokian tokiko jakintza komunitarioak.
 - b) Ikuspegi funtzionalista-positibistak inplikatzeko duen garapen-eredua, baina baita iparraldeko teoria humanista, marxista edo feminista ere.
 - c) Praktikak eratorriak diren ezagutzak.
- 8) **Gizarte-langintzak garrantzia ematen dio...**
 - a) Soilik alderdi praktikoari.
 - b) Soilik alderdi teorikoari.
 - c) Ezin dira bereizi teoria eta praktika.

6.

Gizarte-langintzaren objektua

Gizarte-langintzak, oro har, zer nahi duen, edo zertan ari den galdetzen dugunean, oso erantzun desberdinak eta era askotakoak jaso ditzakegu. Are gehiago, zenbaitetan, gizarte-langintzari zeregin mardulak lotzen zaizkio, Moixek dioenez (2006), kalte handia egin diotenak; hala nola, gizarte-beharrianak asetzea, gizarte-arazoak konpontzea, eta abar. Amets edo ideia gisa politikak izan arren, desio horiek ez dute gizarte-langintzaren errealitatea islatzen, eta, bestalde, gizarte osoaren zeregina izango lirateke, ez gizarte-langileena bakarrik.



12. irudia. Zientziaren inguruan dauden funtsezko kontzeptuak.
(Iturria: guk egina.)

Gizarte-langintza zientzia gisa ezaugarrituta, ordea, zientzia baten objektua zer den ikusiko dugu, gizarte-langintzaren zeregina zein den jakiteko. Izan ere, zientziaren inguruan hainbat kontzeptu garrantzitsu dago. Zientzia ezagutzarekin dago harremanetan, eta ezagutza egon dadin beharrezkoa da:

- **Subjektu bat**, ezagutzeko ariketa egingo duena.
- **Objektu bat**, ezagutzaren helburua izango dena (ezagutu nahi dena).
- **Harreman praktikoa**, aurreko bien artean ezarria.
- **Testuinguru historiko eta espaziala**, ezagutza kokatzeko (Kisnerman, 1998: 81; de la Red, 1993: 165).

Hala ere, zailtasun handiak egoten dira zientzia baten objektua zein den zehazteko, iritzi bat baino gehiago agertzen da eta. Horrela gertatzen da gizarte-langintzan ere.

6.1. Gizarte-langintzaren objektuaren inguruan

Gizarte-langintzaren objektuaz hitz egitean, etengabe agertzen dira eztabaida-ildo bi:

- Ea lehenasuna zeini eman: norbanakoari edo inguruari.
- Zelan banatu teoriak eta praktikak eduki beharreko pisua.

Hala ere, beste batzuek diotenez, eztabaidaz edo kontrakotasunaz hitz egin beharrean, hobeto legoke elkarren arteko integrazioa ikustea: norbanakoarena eta inguruarena, batetik; eta teoriarena eta praktikarena, bestetik.

Aurrekoa kontuan hartuta, argi ageri da gizarte-langintzan hiru elementu batzen direla:

- Gizakia, dela bakarka dela taldean.
- Arazoak, gizarte-ezinegona, edo gizarte-betebeharra (unean uneko gizarteari lotua, beraz).
- Arazoak, ezinegona edo betebeharrak konpontzeko erabakia.

6.1.1. Gizarte-langintzaren objektu bikoitza

Zailtasunak zailtasun, Conderen (2003: 288 t. hur.) arabera, nahiko onartua dago gaur gizarte-langintzaren barruan objektu bikoitza ageri dela: gizakiaren gizarte-problematika eta gizakiaren gizarte-operatibitatea. Lehenak gizarte-arazoari alderdi objektibotik begiratzen dio, hau da, kausari edo estrukturari erreparatuz; eta bigarrenak, aldiz, alderdi subjektibotik ulertzen du, humanismoaren printzipioei jarraituz eta pertsonaren gaitasun eta bizipenei garrantzia emanez.

1. **Gizakiaren gizarte-problematika.** Horrekin adierazi nahi da ezinegon-egoera bat gertatzen dela: gizakiaren berezko gizarte-bilakaera oztopatzen duen egoera bat agertu da, eta hura gainditzeko erabaki kontzientea erakusten du inplikatuak. Egoera horiek bat baino gehiago izan daitezke:
 - Arazo fisiko-geografikoak: hirigintzako akatsak, etxebizitzaren kalitate txarra...
 - Arazo ekonomikoak: diru-iturri mugatuak, langabezia, prekarietatea.
 - Azpiegitura-arazoak: ekipamendu eta zerbitzu falta (haurtzaindegiak, dendak, egoitzak...).
 - Kultura-arazoak: heziketa-maila baxuak, prestakuntza falta, gizarte-arauen eta eskubideen ezagutza mugatua...
 - Elkarbizitza-arazoak: rol zehaztugabeak, familia ez-egituratuak, tratu txarrak, gaixotasun edo ezintasunek sorturiko mugak...
 - Arazo politiko-administratiboak: erabakitzeko ahalmen mugatua (gaitasun eza, kustodiak...).
2. **Gizakiaren gizarte-operatibitatea.** Gizakiak baditu berezko dohainak bere ingurura egokitzeko eta hura aldatzeko. Ahalmen horiek aztertzea eta gizarte-ezinegonetzko egoeren aurrean ahalik eta modurik eraginkorrenean erabiltzea da gizarte-langintzaren zereginetako bat. Horren barruan honako hau sartzen da:
 - Autoebaluazio-ahalmena: inguruneko baldintzen balorazioa (aldekoa edo kontrakoa).
 - Egoera aldaraz dezaketen ekimenak abiatzeko ahalmena, autoebaluazioan harturiko irizpideen arabera.

6.1.2. Gizarte-ezinegona eta gizarte-langilea

Zamanilloren eta Gaitanen (1991) ustez, gizarte-langintza norbanakoen gizarte-ezinegonarekin dago harremanetan, baina ezinegon hori ikuspuntu bitatik azter daiteke:

- Sorreraren arabera. Hots, norbanakoen gizarte-arazoen egiturari begirata. Hortik sortzen dira pobrezia, arazo moralak, sozialak edo kulturalak, eta abar. Maila objektiboa izango litzateke, beraz.
- Bizipenaren arabera. Hots, nola jasaten den ezinegon hori. Maila subjektiboa izango litzateke.

Biak dira beharrezko, objektibotasuna eta subjektibotasuna. Bigarrenari bakarrik kasu eginez, diskriminazioan eror liteke; baina lehenari bakarrik kasu eginda, arazoa jasaten duenaren bizipen

subjektiborik gabe, beti laguntza-neurri bera emateko akatsean amaitu liteke, jakin gabe noiz aritu indar gehiagoz eta noiz gutxiagoz (Zamanillo eta Gaitan, 1991).

Arazoa zehaztu eta objektibotasuna eta subjektibotasuna erabiliz, gizarte-langileak arazo hori konpontzeko ahalegina egiten du. Ahalegina, diogu, gizarte-langilea ez baita ahalguztiduna. Aitzitik, bitartekari gisa geratzen da biztanleek eskatzen dutenaren eta instituzioak eskaintzen duenaren artean. Gizakiaren arazoan aurrean, beraz, gizarte-langilea beharizanaren eta asebetetzearen artean mugitzen da. Zehatz ditzagun kontzeptu horiek (Escartin eta Suarez, 1994: 79-80).

6.1 TESTUA: GIZARTE-LANGINTZAREN ESPEZIFIKOTASUNA

Zubillaga eta Berasaluze: *Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-langintza: zein da zein?*, 45-46 eta 49-51 orr.

Hiztegien arabera, zientzia batek ezagutzea edo eraldatzea helburu duen materia edo gaia da objektua. Erabilera, ordea, testuinguru askotan gauzatzen da: ezagutzaren alorrean ez ezik, baita praktikarenean edo ekintzarenean ere. Gehientsuenetan, dena den, objektua errealitate fisikotik bereizten den eraikuntza zientifiko abstraktua izan ohi da, eta ez da beraz, zentzumenean hauteman dezaketen hori, baizik eta objektu sentikorraz harago dagoen eraikuntza teorikoa. Hala ere, praktika produktibo, profesional edo sozial batetik abiatuz eraikitzen denaren kategoriari erreferentzia egiteko ere erabiltzen da, lanbide edo subjektu batek objektuaren gainean eraikitzen baitu bere identitatea. Finean, objektua diziplina edo sistema bati berariaz dagokion errealitatearen zati bat legez uler dezakegu, diziplinari ezagutza materia sortuz eta sistemari berriz, ekintza edo interes esparrua. (...) Objektua Gizarte-langintzan, diziplinari edo, hala dagokionean, lanbideari espezifikotasuna ematen diona da, hau da, beste diziplinetatik edo lanbideetatik bereizten duena (Zamanillo, 1999).

Hiztegien arabera, unibertsal hitzak orokorra, guztiekikoa adierazten du (...) Unibertsaltasunaz asko hitz egin izan da azken urteetan (...) gizarte langintzaren kasuan badu bere garrantzia, arestian txiroei eta gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen laguntzeko lanbidea zen hura eraldatu egin baitzen, eta, harrezkero, gizarte kohesioa sustatzea eta justizia soziala erdiestea helburu dituen diziplina eta lanbide izatera iristeko bidea markatu baitu. Azkenik ereduak dugu, esku-hartze ereduak, gizarte-langintzari dagokionez. (...) Honek ekiteko modua zuzentzen, gidatzen eta adierazten du.

Objektuak sistema bera zein diziplina definitzen dituela esan dezakegu, ekintza eremua marrazten baitu: alegia, zertan zentratu beharra daukagun, zertan eragin behar dugun, gure misioa zein den, eta, finean, zer eraldatu nahi dugun, zer dagokigun eta zer ez adierazten du. Hori dela eta, unibertsaltasunak sekulako zeresana izan du azken hamarkadetan, modua eman baitigu diziplinaren eta sistemaren ekintza-eremua — objektuak berak definitutako eremua, alegia— hedatzeko. Bi horiek uztartze aldera, ereduak finkatu behar izan dira, batean zein bestean aldatuz joan direnak; hala, gaur egun, era askotako ereduak egiten dugu topo —ereduok, maiz, jarduera profesionalak izaten dira—, eta, horren ondorioz, muga handiak aurkitu ohi dira sistemak ezarritako ereduak bat egiteko.

Gizarte-langintza diziplina akademikoa da —diziplina aplikatua, alegia—, lanbide ere bai baita, eta, beraz, ezaugarri bereziak ditu. Gizarte-langintzaren berariazko zeregina da esku-hartze sozialean jardutea, eta, hein handi batean, gizarte-zerbitzuen sistemaren barruan egiten du hori (...) Eskuhartze soziala da gizarte-langintzaren zereginetako bat, eta ekarpen tekniko horixe da, zentzu hertsian, haren balio erantsia, hau da, akonpainamendua eta harreman profesionala, gizarte-langileak herritarrekin lantzen duen harremana.

Gizarte langintza honela definitu izan da:

«Gizarte-langintza lanbide bat da, gizartearen aldaketa eta garapena, gizarte-kohesioa eta pertsonen indartzea eta askatzea sustatzen dituen jardunbidean eta diziplina akademikoan oinarritzen dena. Justizia sozialaren, giza baliabideen, erantzukizun kolektiboaren eta aniztasunarekiko errespetuaren printzipioak ezinbestekoak dira gizarte langintzan. Gizarte langintzaren, gizarte-zientzien, humanitateen eta sorterriko ezagueren teoriak oinarri hartuta, gizarte-langintzak pertsonen eta egituren partehartzea sustatzen du, bizitzaren erronkei aurre egitea eta ongizatea areagotzea helburu hartuta». (Gizarte Langintzaren Nazioarteko Federazioa, 2014).

Gizarte-langintzaren bi ildoak —diziplinak eta lanbideak— objektu bera dute, bai ikerketari dagokionez, bai esku-hartzeari dagokionez. Gizarte-langintzaren komunitatean, batez ere akademikoan, etengabeko kezka sortzen duen kontua da objektuaren definizio eza, eta ez da harrizkoa, epistemologia osoa eta geroko

ekintza esparrua baldintza ditzakeen elementua baita (...). Zamanillok (2018) dio objektua definitu beharra dagoela, objektuak, metodoak, teoriak, paradigmek eta fenomenoek ematen baitiote ikerketari kategoria analitiko egokiak hautatzeko ahala, eta, gero, horrek irekitzen baitio bidea esku-hartzerako baliagarri izango den sorkuntza teorikoari. Autorearen esanetan, baina, gizarte-langintzari dagokionez, kontua are konplexuagoa da, hartan elementu praktiko asko nahasten baitira, hala nola helburua, subjektua, eremu profesionala eta esku-hartze eremua, eta horrek, Zamanillok «preteoriko» deitzen dion ezagutza mota sortzea dakar. Diziplinak objektuaren aferaren inguruan egindako garapenean, hasiera batean, norbanakoa-egoera aukeraren gainean egin zen lan, funtzionalismo hutsetik elkarrekintzaren ideia pasatuz. Ondoren, birkontzeptualizazioaren aldeko mugimenduaren eraginez, pertsona zapalduaren ideia lantzen hasi zen, nahiz eta oraindik objektuaren definizio batetik urruti egon. Geroago, gizarte-beharrizanak erabiltzen hasi ziren objektutzat, planifikazioaren ikuskerak eraginda, eta, geroago, abstrakzioarako ahalegin bat eginez, gizarte arazoaren inguruan hasi ziren lanean objektuaren definizioan. Azkenik, ahuleziak azpimarratzen dira, eta, aurreko guztietan bezala, norbanakoaren eta ingurunearen garapena aipatzen da objektuaren definizio-saiakera gisa, eta horrek eredu erresiduala bultzatzen duela esaten da.

Zamanillok ezinegon psikosozial gisa definitzen du objektua, eta horrek zer hartzen du barnean: «norbanakoaren ezinegon psikosozialarekin erlazionatutako fenomeno guztiak, haien genesi sozio-estrukturalaren eta bizipen pertsonalen arabera ordenatuak» (Zamanillo, 1999: 29). Kontzeptu nagusiak argitze aldera, «ezinegon» hitza erabili izan du, psikosozial gisa. Kontzeptu hauek guztiek aldaketaren nahia adierazten dute, eta horrek egiten ditu interesgarri. Kontzeptu «psikosozialak», aldiz, genesi estukturaletik zein bizipen pertsonaletik edaten du, bi horiek osagarriak eta ezinbestekoak baitira autorearen aburuz. «Genesi estuktural» deritze zenbait motatako arazo psikosozialei, baldin eta norberaren autonomia, identitatea eta eboluzioa oztopatzen duten egoeretan pertsonaren garapenerako ezinbestekoak diren aukerak sortzeko gabeziatik eratorriak badira; aldiz, «bizipen pertsonal» deritza zenbaitetan jasaten den ezinegonari, baldin eta pertsonaren harremanetan (familia-, lan-, komunitate- eta instituzio harremanetan) nahasmendua eragiten badu.

6.2. Gizarte-arazoak

Arao mota asko egon daiteke gizartean eta norberaren bizitzan. Gizarte-langintza, ordea, ez da denetaz arduratzen. Izan ere, pertsonak jasaten dituzten arazo guztietatik batzuek gizarte-dimentsioa hartu dezakete, norberaren arazotik at joanda, eta halakoetan esku hartzen du gizarte-langintzak.

Baina nola dakigu gizarte-arazo baten aurrean gaudela? Kontzeptu erlatiboa da, ikusiko dugunez, aldakorra historian eta espazioan. Erlatibotasuna beharrizanez eta baliabideek markatzen dute.

Ez da erraza *beharrizana* zer den zehaztea, oso subjektiboa baita. Gizakiaren eta gizartearen arabera aldatzen da; arrazoi historiko, kultural, ekonomiko, eta abar direla eta, beharrizanak desberdinak dira kultura batetik bestera eta une historiko batetik bestera. Oro har, hala ere, gabezia-egoera bat dela esan dezakegu, gizakiaren garapenerako erabilgarri edo beharrezko den zerbaiten falta. Gizarte-langileak, ordea, bereizi egin behar du beharrizanen artean, eta gizarte-beharrizanetan zentratu.

Agertzen den beharrizan baten aurrean, hura asebetetzeko *baliabideak* neurtzen ditugu. Askotan nahikoa da gure inguruan bilatzea, eta laguntza-iturria laster lortzen dugu: familian, lagunaren artean, eta abar. Agertu zaigun beharrizan pertsonalari aurre egiteko baliabide nahikoa badaukagu, ez da arazorik sortzen.

Aldiz, baliabide nahikorik ez badago, arazoa sortzen da, eta horrek eragina eduki dezake gizartearen funtzionamendu normalean; gizarte-arazo bat dela esaten dugu, orduan. Gizarte-arazoei aurre egiteko, gizarte-baliabideak zein diren jakin behar dugu. Horrekin adierazi nahi da zenbat jende, diru, material, teknika edo instituzio dugun beharrizanari aurre egiteko.

Historikoki baliabide-maila desberdinak erabili izan dira gizarte-arazoei aurre egiteko, eta askotan baliabide ekonomikoak izan dira. Zailtasun handiagoa egon da, ordea, ekonomikoak ez diren beharrizanei aurre egiteko, horiekin harremanetan egon daitezkeen arren: drogazaletasuna, adinekoren arazoak, haur abandonatuak, kultur bazterketa, eta abar.

Ikusten ari garenez, bai beharrizanen bidetik, bai baliabideenetik, gizarte-langintzak *gizarte-arazoak* aztertzen ditu. Beharrezkoa du, beraz, euren izaera ondo definitzea eta ondo aztertzea. Horretarako, hainbat faktore hartu behar da kontuan: testuinguru historikoa, kulturala, soziala, ekonomikoa, eta

abar. Bereizi egin behar da, esate baterako, zer den arazo pribatua eta zer soziala. Etxeko indarkeriak adibide egokia eskaintzen digu bereizketa hori islatzeko. Izan ere, etxe barruan gertatzen dena gai pribatutzat jo izan da askotan; hala ere, etxeko indarkeriaren kontrako sentsibilizazioak dimentsio soziala eman dio gaiari, eta pribatutasunaren eremutik sozialera pasatu da: gizarte-arazo bihurtu da (Escartin eta Suarez, 1994: 89-91; Ramos, 2003: 347 t. hur.). Horren isla argia da kontzeptuaren beraren eboluzioa, izan ere, lehen *etxeko indarkeria* zena (pribatua, indibiduala), gaur egun *indarkeria matxista* edo *genero-indarkeria* terminoarekin ezagutzen dugu, eremu pribatutik eremu sozialera eman duen saltoa agerian jarriz.

Gizarte-arazoak, bestalde, aldatu egiten dira gizartearen arabera. Aldatu egiten dira denboran eta espazioan. Lehenari dagokionez, esan beharrik ez dago gaur arazotzat jotzen ditugun hainbat gai beste garai batzuetan ez zirela horrela definitzen, eta alderantziz. Homosexualitatea, adibidez, historian zehar arazotzat jo izan da, gaixotasuntzat hartu izan baita: 1990era arte Munduko Osasun Erankundeak buruko gaixotasunen zerrendan sailkatzen zuen. Aldiz, gizartean egon den kontzientziario eta mugimendu sozialen bultzadari esker, gaur egun nekez hartuko genuke horrela. Gauza bera esan genezake transexualitateari buruz, 2022 arte buruko gaixotasunen zerrenda berdinean egon baita; eta oraindik ere patologizazioa handia izan arren, kontzientzia soziala handitzen doa. Espazioari begira, bestalde, argi dago gizarte-arazoak oso modu desberdinean ulertuko direla bizi garen inguru, kultura eta herriaren arabera.

Azkenik, eta aurrekoaz gain, gizarte-arazoaren definizioan eragin handia dauka ikuspuntu teoriakoak. Tradizio luze batek, adibidez, norbanakoaren arazoak bailiran aztertu ditu gizarte-arazoak; eta beste batek, aitzitik, egitura kapitalistak sortuak bailiran. Era batera edo bestera ulertzeak ondorio nabarmenak ekarriko ditu, halabeharrez: arazoa ezaugarritzean, konponbidea planteatzeko unean, eta abar.

Escartinen eta Suarezen ustez (1994), gizarte-langintzak honako jarrera hau gorde beharko luke gizarte-arazoen aurrean:

1. Gizarte-langintzarentzat, gizarte-arazoak ez dira abstrakzioak, denboran eta espazioan ondo kokatutako giza arazoak baizik. Arazoak, beraz, aldagarriak dira, beharizan berrien arabera, eta gizarte-langintzak etengabe berrikusi beharko ditu.
2. Gizarte-langintzak ez ditu arazoak soilik aztertzen. Aitzitik, areago joan nahi du, arazoa desagerrarazi nahi du. Borondate eraldatzailea dauka, bere baliabideak erabiltzeaz gain, arazoak jasaten dituztenek konponbidea berez aurkitu dezaten ahalegintzen da eta.

Gizarte-langintzaren objektua, hortaz, erreala eta zehatza da, esku-hartzea eskatzen duena; jarrera intelektual bat, aldi berean, teoria sendo bat eskatzen duena.

6.2. TESTUA: GIZARTE-ARAZOAK

Natalio Kisnerman: *Pensar el Trabajo social*, 160-162 or.

Nolanahi, gizarte-arazoak ebidentziak bezala agertzen zaizkigu. Pobrezia existitzen denik ezin da ukatu. Hala ere, nabaria izatea, bere existentziaz datuak edukitzea, ez da nahikoa, datuok ez baitigute esaten zer gizarte-irritzi dagoen pobreziaz. Ezta nola erreakzionatzen den ere pobreziaaren aurrean. Norbait negarrez ikusten badugu, sufritzen ari dela uler dezakegu. Baina poztasunez ere egin lezake negar. Ebidentziak, hortaz, iruzur egin diezaguke.

Objektua, beraz, ez da a priori bat. Objektua harreman-sare batean eraikitzen da, sozialaren adierazpen bezala, eta jende multzo jakin batentzako arazo bat dago. Era batera edo bestera definitzeak zehaztuko du, neurri handi batez, arazoari nola aurre egin. Arazoak pertsona edo pertsona talde murriztu mailan agertzen dira, baina beti dira sozialak.

Egoera bat gizarte-arazo bihurtzen da pertsona multzo bati eragiten dionean, edo pertsona multzoa desantolatu nahiz desorekatzen duenean. Egoera horrek, berez konpondu ezin daitekeen oztopo bezala bizi denak, arazoa existitzen delako kontzientzia hartzen uzten digu, eta asebetetzea eskatzen duen beharizan gisa, dei egiten du parte hartzera eta arazoari argi aurre egitera. Onartzea, hausnartzea eta profe-

sional baten laguntzaz edo orientaziopean arazoak konpontzen saiatzea osasun mentalaren adierazle da beti. Aldiz, ukatzea, saihestea edo modu magikoan konponduko direla itxarotea kontrakoa da, eta berdin esan dezakegu jokaera patologiko bat onartzeaz; dena dela, kontuan hartu behar dugu, herritar oso izateko funtsezkoa ukatzen zaien gizarte honetan, zerbait izan nahi badute, geratzen zaien aukera bakar gisa hautatu behar izaten dituztela bide horiek pertsonen.

Arazo-egoera bat muturreko egoera bat da, gizakien errealizazio osorako balazta bezala ari delako. Egoera horiek gaintzeko oztopo nagusia baliabide falta izaten da, ekonomikoa gehienbat, baina baita arazoaren izaera edo arazoari aurre egiteko bitartekoak ez ezagutzea, emozio-blokeoak, eta abar ere. Ez dute arrazoi bakar bat edukitzen; aitzitik, askotariko kausak biltzen dira ager daitezzen, eta errekurtsibitate batek indartu egiten ditu. Horrela uler dezakegu Halfdan Mahler doktoreak gizarte-arazoen *deabruaren espirala* izendatu zuena.

Aurretik ere seinalatu dugu pobrezia aurrean dugun gizarte-arazo nagusi bezala. Pobre izatea ikasketa-maila baxua edukitzea da, eta, ondorioz, lan-kalifikazio baxua ere bai; horrek langabezia, azpienplegua edo aldi baterako lan egitea dakar. Soldata baxua edukita, etxebizitza, eta jan- eta elikadura-baldintza eskasak egoten dira, eta, ondorioz, osasuna, produktibitate ekonomikoa eta bizitza-itxaropena gutxituz joango dira. Espirala atal horietako edozeinetatik hasten da, eta seme-alabengan birsortu ohi da; haiek, familiaren errealitate ekonomikoak bultzaturik, laster sartuko dira lan-merkatuan, eskola-desertzioen zerrenda handitza, langabezia edo delituzko bizitzan, droga edo alkoholetan, prostituzioan, eta abar. Espiralak birak ematen ditu, behin eta berriro, eta birsortu egiten du gizarte-sistema.

Gizarte-arazoak egitura sozioekonomiko, kultural eta politikoa batetik sortzen dira beti. Ageriko egiten dira larritasunean eta gatazka pizten denean, baina funtsean harremanetan kokatzen dira, eta aberastasuna, boterea eta aukerak gaizki banaturik dauden gizartea islatzen dute. Gizarte-langileak barrurantz eraiki den egoera deserai behar du, itxuran ageri den larritasunetik loturak askatuz eta, tartean dauden pertsonenik batera, prozesuaren jatorria ebatzi arte. Horrela bakarrik eraiki ahal izango du lan egingo den objektua.

6.3. Gizarte-langintzaren helburuak

Zientzia baten objektua mugatu ondoren, zientzia horri ezartzen dizkiogun helburuak azaldu daitezke; hau da, zer lortu nahi dugun zientzia horren bidez. Helburuak zentzua ematen dio zientziari, gauzak zertarako egiten diren adierazten baitio. Hala ere, helburuak agerikoak edo ezkutatuak izan daitezke, eta sarritan kontraesan sakonak egoten dira bien artean, ageriko helburua ez baita inondik inora egia: espetxeak jendea bergizarteratzeko direla esatea, esate baterako.

Helburuak zenbakarriak dira, eta, oro har, gizakien ongizaterik zabalena bilatzen dela esan daiteke. Baina, batez ere, dimentsio kualitatiboa daukate. Helburuak balioekin daude harremanetan, eta oso zaila da, hortaz, zein diren zehaztea, momentuko gizartearen balio eta beharrezanen eta gizarte-langilearen balioen arabekoak izango baitira (Kisnerman, 1998: 163-164; Escartin eta Suarez 1994:108).

Aurrekoaz gain, gizarte-langile bakoitzaren jarrera ideologikoa ere hartu behar da kontuan. Batzuentzat, gizarteak sorrarazten dituen disfuntzioak konpontzea da helburua; besteentzat, aldaketa, gizartearen arazoei aurre egiteko aldatu beharra dagoelako. Eta aldaketaren beharri dagokionez ados egonda ere, nolako aldaketa nahi den ere eztabaidatu egiten da: batzuek aldaketa erreforma gisa ulertzen dute, eta besteek aldaketa arazoaren gaintze edo eraldaketa gisa (Escartin eta Suarez, 1994: 109). Teoria filosofikoak aipatu ditugun bezala, funtzionalismoak, marxismoak, teoria konprentsiboek eta teoria berriek bakoitzak bere helburuak bilatzen dituela esan daiteke.

Hala ere, horrez gain, gizarte-langintzaren eguneroko jardunean bi esku-hartze mota nabaritzen dira, eta horiek ere helburu desberdinak dituzte, oro har. Hauexek dira, Conderen arabera (2003: 298-300):

Alde batetik, gizakiaren autonomia eta sustapena bilatzen dituen esku-hartzea dugu. Gizakiaren pertzepzio- eta jokaera-bideak hobetzen ahalegintzen da. Gizarte-ezinegonari aurre egiteko, arrazionalizatzeko gaitasuna indartzen saiatzen da. Garrantzi handia ematen dio erabiltzaileak bere arazoez hartzen duen pertzepzioari. Horren harira, egoeraren autoebaluazioa egitea eta egoerari aurre egiteko ekimenak autokudeatzea indartu nahi ditu. Balio bezala, giza duintasuna eta autodeterminazioa bultzatzen ditu. Gizarte-langileak aholkulari/ hezitzaile papera bereganatzen du.

Beste aldetik, gizakiarekiko laguntza eta prestazioak bilatzen dituen esku-hartzea dugu. Gizakiaren garapena oztopatzen duten inguruneko baldintzak aldarazten ahalegintzen da. Aldaketa horretarako, gizarteak onartuta dituen eskubideak eta laguntza-formak (zerbitzuak, instalazioak) ahalik eta gehien zabaltzen saiatzen da. Laguntza materiala (dirua, lana, etxebizitza, zerbitzuak) eta intelektuala (kultura, aisialdia...) bermatzea bilatzen du lehendabizi. Balio gisa gizarte-justizia, diskriminazio eza eta gizarte-ondasunen banaketa proposatzen ditu. Gizarte-langileak gizarte-politikak diseinatzeko eta praktikara eramateko ardura hartzen du paper nagusi modura.

6.4. Gizarte-langintzaren balioak

Gizarte-langileak ezartzen dituen helburuak desberdinak izan daitezten arrazoi nagusietako bat norberaren abiapuntu ideologiko eta etikoa dira, guk gizartean hobesten ditugun balioak, alegia. Gizarte-langintzarako markatzen dugun ereduak guk gizartea ulertzeko dugun moduarekin bat egin dezala nahiko dugu. Eta, horren arabera, gizarte-langintzarako nahi ditugun helburuak markatuko ditugu. Helburuak eta balioak ez dira unibertsalak, beraz. Hala ere, hausnarketa edo kritika sakonik egin gabe, batzuetan dimentsio absolutua ematen zaio hainbat baliori, mundu guztiak onartu beharrekoak izango balira bezala.

Hala gertatu da gizarte-langintzan ere. Gogoetarik egin gabe, gizarte-langintzan ohikoak eta oso erabiliak diren ideia batzuk absolututzat hartu ditugu, gure jarrera ideologikotik abiatuta. Era horretan, gizarte-langintzak humanismoaren eragin handia jaso du, eta horrek isla eduki du helburuetan, modu ia inkontziente batean: gizakia ezagutu beharra, gizartean gizakiak duen portaera, giza eskubideak eta demokrazia... Berdin esan genezake eragin hori marxismoarena izan denean, eta abar.

Nolanahi ere, kontzeptu batzuk etengabe irteten dira egile guztiengan, eta pentsatu behar da gizarte-langintzak bereganatu egin dituela kontzeptu horiek. Aipa ditzagun, Zamanilloren eta Gaitanen iritziz, zein diren kontzeptuok (1991: 60 t. hur.):

- Gizakiaren duintasuna eta bere bizitza balio handiko ondare bezala.
- Gizakia hobetu egin daitekeela.
- Zoriontasuna norbanakoaren helburu legítimo bezala.
- Gizaki batzuek besteekiko duten erantzukizuna.
- Sufrimendua arintzeak, maitasuna bultzatzeak, gorrotoa gerarazteak, beldurra eta antsietatea mugatzeak berez duten garrantzia.

Erabilitako erreferentziak

- Conde, Rosario (2003): «Naturaleza, objeto, objetivos y funciones del Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 277-312 or. Alianza.
- de la Red, Natividad (1993): *Aproximaciones al trabajo social*. Siglo XXI.
- Escartin, Mari Jose, eta Suarez, Esperanza (1994): *Introducción al trabajo social. I (Historia y fundamentos teórico-prácticos)*. Aguaclara.
- Kisnerman, Natalio (1998): *Pensar el Trabajo social. Una introducción desde el construccionismo*. Lumen Humanitas.
- Moix, Manuel (2006): *Teoría del trabajo social*. Síntesis.
- Ramos, Clarisa (2003): «Las necesidades sociales. Conceptos. Perspectivas en el análisis de las necesidades sociales. Problemas sociales y necesidades», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 340-372 or. Alianza.
- Rubi, Carmen (1992): *Introducción al trabajo social*. EUGE.
- Zamanillo, Teresa, eta Gaitan, Lourdes (1991): *Para comprender el trabajo social*. Verbo Divino.
- Zubillaga, Nerea eta Berasaluze, Ainhoa (2021): «Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-langintza: zein da zein?». *Zerbitzuan* 75: 43-55 or.

Autoebaluazioa

- 1) **Zientzia ezagutzarekin dago harremanetan, eta horretarako beharrezkoak dira honako aldagai hauek:**
 - a) Subjektua, objektua, harreman praktikoa eta testuinguru historiko espaziala.
 - b) Subjektua, dirulaguntzak, kode ontologikoa eta testuinguru historiko espaziala.
 - c) Dirulaguntzak, objektua, karitatezko erakundeak eta sakoneko elkarriketa.
- 2) **Gizarte-beharrizana(k)...**
 - a) Gabezia-egoera bat da gizakiaren garapenean.
 - b) Oinarrizkoak direnean norbanakoak beharrezkotzat jo ditzake, baina ez diete erantzuten benetako beharrizanei.
 - c) Subjektiboak dira, eta ez daude arrazoi historiko eta egoera bati lotuak.
- 3) **Escartinen eta Suarezzen arabera...**
 - a) Gizarte-arazoak abstrakzioak dira denboran eta espazioan.
 - b) Gizarte-langintzak desagerrarazi egin nahi ditu gizarte-arazoak.
 - c) Gizarte-langintzak soilik aztertu egin nahi ditu gizarte-arazoak.
- 4) **Gizarte-langintzaren helburuak erdiesteko, bi esku-hartze proposatzen dira (hautatu okerreko aukera)...**
 - a) Gizakiaren autonomia eta sustapena bilatzen dituen esku-hartzea.
 - b) Gizakiarekiko laguntza eta prestazioak bilatzen dituen esku-hartzea.
 - c) Limosna forman, gizakiaren menpekotasuna erreproduzitzen duen esku-hartzea.
- 5) **Gizarte-langintzaren balio gisa onartzen dira honako ideia eta kontzeptu hauek:**
 - a) Gizakia ezin da hobetu.
 - b) Balio handiko ondare dira gizakiaren duintasuna eta bere bizitza.
 - c) Norbanakoak ez du erantzukizunik ingurukoen bizitzetan.

7.

Metodoa gizarte-langintzan

Ikusi ditugu gizarte-langintzaren ezaugarri batzuk, eta nolako helburuak dituen. Hala ere, jakin behar da nola eraman nahi dituen aurrera helburu horiek. *Nola* hori metodoak jorratzen du. Gai honetan, gizarte-langintzak darabilen metodoaz jardungo dugu.

Tradizionalki, gizarte-langintzari metodoan gehiegi ez sakontzea leporatu zaio, eta horrek arazo nabarmenak ekarri ditu; adibidez:

- Praktikari eta esperientziari askoz garrantzi handiagoa ematea teoriari baino.
- Praktika eta esperientzia gutxi lantzea teoria berriak sortzeko.
- Beste diziplinen materialak ondo landu eta hausnartu gabe erabiltzea, eta ondorioz erabilera okerra egitea.
- Ikerketa kuantitatiboari arreta txikia jartzea.
- Eta argienetakoa: metodoa esku-hartze mailarekin nahastea. Hau da, metodo bera hiru maila nagusitan erabili da, eta horietako bakoitzari *metodo* izena eman zaio. Horrela agertzen dira banakako eta familiako gizarte-langintza, taldeko gizarte-langintza eta komunitateko gizarte-langintza. Argi dago maila horiek jokatzeko modu desberdinak eskatzen dituztela, baina horrek ez du esan nahi metodoa desberdina denik.

Gizarte-langintzaren metodoan funtsezkoa da teoriaren eta praktikaren arteko uztarketa: gertaera jakin batzuetatik teoria osatzen dugu, eta teoria hori gertaera jakin batzuetara aplikatu dezakegu ondoren. Teoria eta praktika batzeko tresna metodoa da (Escartin, Palomar eta Suarez, 1997: 19 t. hur.).

7.1. Zer da metodoa

Nahaste handia egoten da metodoa zer den azaltzean, batzuetan metodologia teknikekin edo ereduarekin berdintzen da eta. Desberdinak dira, ordea.

Metodoa diogunean, ikerketa bat egiteko, edo gure ezaguera lantzeko, jarraitu beharreko bidea adierazi nahi dugu. Metodoa errealitatea ezagutzeko hautatzen dugun tresna edo bidea da. Baina bide horiek bat baino gehiago izan daitezke: metodo induktiboa, deduktiboa, historikoa, hermeneutikoa, dialektikoa... Ez dago, beraz, metodo bakar bat, eta, ondorioz, ez dago gizarte-langintzaren metodo bakarra ere, edozein egoera eta momentutan erabil daitekeena, eta hautatzen dugun metodoa ere ez dugu zertan erabili modu berean.

Metodologia metodoaren pareko erabiltzen da askotan, baina izatez metodoen azterketaz arduratzen den diziplina da. *Teknika*, azkenik, zientzia batek bere esku dituen prozedurak edo baliabideak dira. Teknika, beraz, metodoaren lagungarri da. Hala ere, teknika batzuk oso aurreratuak izan daitezke, eta eragina eduki dezakete metodoan.

Gizarte-langintzak ez du gehiegi sakondu metodoan; bai, ordea, teknikan. Jatorri desberdinetatik harturik, gizarte-langintzak teknika ugari bereganatu ditu, zein metodori zegozkion kasu handirik egin gabe. Denak dira beharrezkoak, baina nahastu gabe (de la Red, 1993: 199 t. hur.; Ander-Egg, 1992: 108).


Azkenik, *eredua* zer den bereizi behar dugu. Eredu esaten diogu esku-hartze modu jakin bati, metodoak ez baitira beti era berebean erabiltzen. Hortaz, metodo baten barruan hainbat eredu ager daitezke. Eredu horietan honako osagai hauek agertzen dira (Escartín, Palomar eta Suarez, 1997: 30-32):

- Osagai teorikoak, ereduaren azpian daudenak.
- Analisirako osagaiak, errealitate jakin bati aplikatzea azaltzen dutenak.
- Teknikak.
- Osagai funtzionalak, lorturiko emaitzei lotuak.
- Osagai filosofikoak eta ideologikoak.

7.2. Metodoaren faseak

Metodoaren ohiko prozedura bost fasetan bereizi daiteke, baina beste izen edo ñabardura batzuk ematen ahal zaizkio:

1. **Ikerketa / datu-bilketa.** Gure esperientziak eta praktikak arazoak bereiztera eta horren gaineko gogoeta egitera eramaten gaitu. Hortik, hipotesiak eta arazoaren ustezko arazoak osatzen ditugu. Informazioa biltzen dugu, orduan, aztertu nahi dugun errealitatea ezagutzeko.
2. **Diagnostikoa.** Datu-bilketaren gaineko azterketatik, gure ustez gertatzen denari buruzko iritzi osatu bat lantzen dugu. Iritzi bat da, oraindik ez dagoelako frogaturik. Jaso dugun informazioa ordenatu egiten dugu, bai diagnostikoa egiteko, eta bai plangintza diseinatu ahal izateko.
3. **Plangintza.** Aurreko fasean irudikatu dugun errealitatea aldatzeko plangintza bat egiten dugu: epe labur, ertain eta luzean zer egiteko asmoa daukagun pentsatzen dugu, eta nola egingo dugun. Modu arrazional batez sailkatzen ditugu epeak eta bitartekoak, ahalik eta modurik egokienean (helburu errazegiak edo gehiegizkoak ezarri gabe).



13. irudia. Metodoaren faseak.

(Iturria: guk egina.)

4. **Gauzatzea.** Plangintza praktikara eraman behar da. Horretarako, aintzat hartu behar da hainbat kontu:
 - Nork bultzatzen edo eratzen dituen jarduerak eta norentzat eratzen diren.
 - Non beteko diren jarduera horiek, zein lekutan. Komenigarria da jardueraren onuradunak bizi diren inguruan izatea eta parte-hartzea bultzatzea.
 - Noiz bete jarduerak (egunak eta orduak). Onuradunen beharrezanetara egokitu behar da, eta ez administrazioarenetara.
 - Zein metodo eta teknika erabiliko diren.
 - Zein bitarteko dituen gizarte-langileak.


5. **Ebaluazioa.** Egindakoari buruzko hausnarketa egitea beharrezkoa da, eta ez bakarrik amaieran; bitartean ere bai. Ebaluazioak balio du prozedura batean dauden akatsak zuzentzeko, edo eginiko akatsak hurrengo jarduera baterako esperientzia gisa kontuan hartzeko. Atal asko ebalua daitezke, baina, oro har, hiru modu nagusi daude:

- Diseinuaren ebaluazioa. Praktikara pasatu baino lehenagoko ebaluazioa, marko teorikoan, esku-hartzearen bideragarritasuna baloratzeko, hain zuzen ere.
- Programaren ebaluazioa. Alde tekniko guztiak aztertzen dira.
- Emaizten ebaluazioa. Ohikoena. Proposatutako helburuak bete diren, jarduera eraginkorra izan den, eta abar.

Argi utzi behar da, nolana, fase horiek ez direla zurrunik eta nahastu ezinak. Ikusi dugunez, harreman handia dago euren artean (Ander-Egg, 1992: 110 t. hur.; Barbero, 2003: 402 t. hur.).

7.3. Esku-hartze mailak gizarte-langintzan

Gizarte-langintzan hiru esku-hartze maila bereizi ohi dira, euren arteko mugak zehaztea benetan zaila bada ere, 14. eta 15. irudietan ederki islatzen den bezala (ikus, baita ere, de la Red, 1993: 207-208; Escartín eta Suarez, 1994: 47-50).



14. irudia. Gizartearen egitura eta esku-hartze mailak.

[Iturria: Barbero (2003: 423), guk moldatua.]

Kronologikoki, Richmonden *casework* proposamenak itzelezko arrakasta eduki zuen xx. mendearen hasieratik aurrera, eta urte askoan gizabanakoa edo familia izan ziren gizarte-langintzaren ia interes-gune bakarra. Taldearekiko ardura geroago etorri zen, eta esku-hartze forma arrakastatsu bat sortu zen bere inguruan. Eta geroagokoa da, azkenik, komunitatearekiko ardura eta bere inguruan sortu zen esku-hartze forma berria.

7.3.1. Banakako eta familiako gizarte-langintza

Esku-hartze honetan kasu bakoitza bakarka lantzen da. Gizarte-langileak norbanakoarekin edo familiarekin egiten du bere esku-hartzea. Tradizionalki arrakasta handiena izan duen eredu da, eta gaur egun gizarte-zerbitzuen sisteman hobesten da, Mendebaldeko gizarteetan behinik behin. Gizarte-langilea bere bulegoan egon ohi da, eta arazodun pertsonak edo familiek beregana jotzen dute, bakarka. Hortik, norbanakoaren edo familiaren hobekuntza bilatzen duen prozesua jartzen da martxan.

xx. mendearen hasierara arte ez zitzaion garrantzi handirik eman metodoari. Mary Richmond izan zen gai horretaz arduratu zen lehenetarikoa. Hark jakintzaren oinarriak eta prestatutako gizarte-langileak borondatezko jardueretatik bereiziko zituzten teknikak ezarri zituen, eta gizarte-langileek esku-hartze eremu guztietan erabil zitzaizketen trebetasunak identifikatu zituen (Miranda, 2004). Norbanakoaz eta

familiak zeukan interesaren ondorioz, ingelesez *casework* deituriko ereduak nagusitzen hasi zen, kasuz kasu eta prozedura zehatz bati jarraikiz lan egiteari dagokiona. Hura izan zen gizarte-langintzak erabili zuen lehenengo hurbilketa mota eta, orain arte, emaitzarik handiena eman duena.

Hasieran, norbanakoek eta familiek zeuzkaten arazoak konpontzeko, kanpoko eraginean ipini zen arreta. Hala ere, I. Mundu Gerraren ostean, batez ere, psikologiaren eta Freuden psikoanalisiaren eragin nabaria hartu zuen. *Eredu psikosozial* horretan aipagarriak dira Virginia Robinson-en, Gordon Hamilton-en edo Florence Hollis-en ekarpenak.

Psikologiaren eta psikoanalisiaren eragin horrek biziberritu egin zuen gizarte-langintza, baina hainbat arazo ere ekarri zizkion, nahastu egin baitziren helburuak, eta, batzuetan, eragileak psikoanalista gisa aritzen ziren, gizarte-langile gisa baino gehiago. Ordura arteko kezka soziala bazterturik geratu zen, norbanakoaren psikoterapiaren onean. Gizarte-langintza emozio-gaixotasunak sendatzera bideratu zen. Psikologiaren eraginaren barruan, ordea, *Gizarte-langintza funtzionala* izeneko eskola ere sortu zela aipatu behar da, Virginia Robinsonen eskutik, eta horrek eduki sozialagoa hartu zuen.

1940tik aurrera, soziologia, psikologia eta psikiatriaren eraginak nabarmendu ziren, eta 1950eko hamarkadan eredu berriak onartu zituen, orduan garatu ziren pentsaera berrien eskutik: funtzionalismoari edo konduktismoari lotuak, kasu.

7.3.2. Taldeko gizarte-langintza

Esku-hartze honetan, norbanakoaren eraldaketa gizarte-langileak nahita sortutako taldeak baliatuz lortzen da. Norbanakoaren banakako lanketa talde baten baitan eta talde baten bidez egiten da. Arazo berbera partekatzen duten pertsonak batzen dira eta taldean hori lantzen da, bakoitzaren ezaugarri espezifikoak ere kontuan izanda.

Taldeko gizarte-langintzaren sorrera urruna XIX. mendearen amaieran ezar daiteke. Gazteria- eta aisialdi-programetan, haur-kanpamenduen antolaketan, auzo-zentroetan eta, batez ere, liburu honetako hirugarren gaian ikusitako *Settlement* etxeetan leudeke esku-hartze maila honen hastapenak.

Taldeko gizarte-langintzaren sorrera hurbila, berriz, 1930eko hamarkadaren amaieran ezar daiteke, gizarte-langile batzuk konturatu zirenean norbanakoaren harremanetan nolako eragin handia daukan taldeak. Hortik sortu zen oraingo taldeko gizarte-langintza, norbanakoek elkarrekiko duten beharrezan oinarrituta. Izan ere, izaki sozialak gara, eta harremanak behar ditugu nahitaez gure biziraupenerako. Taldearen barruan taldekideen artean sortzen den elkarrekintzak eta, bestalde, taldeak berak gauzatzen dituen ekimenek laguntza ematen diote norbanakoari. Taldeek pentsamenduak, sentimenduak eta esperientziak partekatzeko aukera ahalbidetzen dute, eta isolamendu- zein ukapen-sentsazioak baretzen laguntzen dute. Esku-hartze maila horren arabera, beraz, gizarte-harremanek eragin positiboa eta sendagarria daukate norbanakoarengan, eta esperientzia desberdinek horrela erakutsi dute (Domenech, 2008; Henry, East eta Schmitz, 2004).

Helburu bikoitza dauka taldeko gizarte-langintzak: alde batetik, gizabanakoaren arazoak taldean konpontzea, leuntzea edo gutxitzea bilatzen du. Baina, bestalde, komunitateko arazoak konpontzea edo ekiditea ere badu xede, hala nola bazterkeria-egoerak. Arazo berbera partekatzen duten pertsona talde batekin lan egitean, bakoitzaren ondoeza leuntzea eta ongizatea gehitzea bilatzen da; baina horrek, aldi berean, gizarteko sektore baten hobekuntza ere badakar, eta hori maila global edo dimentsio kolektiboago batean kokatuko litzateke.

Esku-hartze horretan, gizarte-langileek era desberdineko taldeekin egiten dute lan. Batzuetan, pertsonari eta bere garapen pertsonalari loturiko arazoak izango ditugu (Domenech, 1998; Konopka, 1968), eta, beste zenbaitetan, arazoa pertsonatik at egongo da. Helburua legea edo jarrera publikoren bat aldatzea izan daiteke kasu horietan, gizarte-ekintza bilatuz, beraz. Lehendabizikoek helburu indibidualak dituzte abiapuntu eta erdigune. Bigarrenek, ostera, helburu kolektiboak lantzen dituzte, eta horien adibide izan daiteke homosexualen eta lesbianen borroka euren arteko ezkontzak legeztatzeko.

7.3.3. Komunitateko gizarte-langintza

Esku-hartze horretan, komunitate oso batekin lan egiten da: auzo bat, herri bat, edo zehaztutako kolektibo bat. Esku-hartze maila horrek komunitate baten gizarte-ongizatea bilatzen du, bere baliabideak hainbat esparrutan indartuz, hala nola hezkuntzan edo osasunean. Gizarte-langilea komunitatearen eta instituzioen arteko bitartekari aritzen da.

Jatorri urruna du, aspaldikoa baita komunitate-mailan esku-hartzea. Hala ere, modu sistematizatu batez, Estatu Batuetan du jatorria 1920ko hamarkadan, eta batez ere 1940ko hamarkadatik aurrera, gizarte-langile batzuek hausnartu zutenean pertsona batzuen arazoek familian eta inguruan eduki dezaketela jatorria. 1960ko hamarkadan, gaur egun klasikoa egin den Murray Ross-en ekarpena hartu zuen esku-hartze maila horrek. Rossen arabera, komunitateek ahalmen nahikoa dute euren arazoak konpontzeko, eta jendeak parte hartu behar du komunitatean gertatzen diren aldaketetan.

Gizarte-langintza komunitarioaren oinarriko printzipioa da komunitate hori osatzen duten pertsonen inplikazioa lortzea, horrela komunitateko gabeziez jabetu eta horiei aurre hartzeko. Biztanleriak zuzenean eta aktiboki parte hartzen du komunitateari eragiten dioten arazoan azterketan, kontzientziazioan eta ebazpenean, komunitateak bertatik eta komunitatearen baliabideen erabileratik, sustapenetik edo sorkuntzatik abiatuta (Lillo eta Roselló, 2004). Horrenbestez, gizarte-langilearen zereginen artean honako hauek daude: batetik, euren inguruan ongizatea bilatzen laguntzea herritarrei; eta, bestetik, helburu eta ekintza komunak gauzatzeko bideak zabaltzea.

Taldekako gizarte-langintzan ez bezala (normalki norbanakoak baitu lehentasuna), hemen komunitatea da lehentasuna, nahiz eta kide guztien interesak kontuan eduki. Bere barruan ildo bat baino gehiago ageri dira, batez ere gizartea ikusteko ikuspuntutik sortuak: integratzaileak batzuk (jarrera funtzionalista), eta gizartean dagoen gatazka islatzearen aldekoak besteak (jarrera marxistak, eta abar). (Moix, 2006: 294 t. hur.; Zamanillo eta Gaitan, 1991: 81-82; de la Red, 1993: 208 t. hur.; Escartin, Palomar eta Suarez, 1997: 24 t. hur.; Ander-Egg, 1992: 61 t. hur.).

7.3.4. Ohiko esku-hartzeen kritika eta alternatibak: eredu generalista

Ohiko esku-hartze horiei loturik hazi zen gizarte-langintza, eta euren bidez hainbat ekarpen teoriko jaso zen. Hala ere, teoriaren ikuspuntutik, nahiko nahasiak ziren. Escartinek, Palomarrek eta Suarezek (1997) honela laburtzen dituzte egiten ahal zaizkien *kritikak*:

- Errealitatea zatikatu egiten da.
- Ondorioez aritzen dira, arrazoiak bilatu gabe.
- Arazoak arintzeko funtzioa hartzen dute, eraldaketa-asmorik gabe.
- Paternalismo kutsua.
- Ikerketa falta.
- Apolitikotasuna eta neutraltasun ideologikoa bultzatzen duten neurrian, sistema iraunarazten dute.

Urte askoan, bere lanean aritzeko, gizarte-langileak hiru esku-hartze horietako bat hautatu behar zuela pentsatu zen. Baina, aipatu dugun errealitatearen partzelazioa gainditzeko, hainbat metodo alternatibo agertu zen 1960ko hamarkadatik aurrera (de la Red, 1993: 216-218; Torres, 1987: 205 t. hur.):

Esku-hartze klasikoei gizartearen errealitatea kontuan ez hartzea leporatuz, errealitate hori atzemateko eta eraldatzeko asmoz sortu ziren eredu horiek, kausak aztertuz eta ez ondorioei soilik erreparatuz. Ildo horri gizarte-langintza kritikoa deitu zaio. Gizarte-langintzako praktika tradizional eta kontserbadorea gainditu, eta ikuspegi kritiko bat bereganatzea bilatu izan dute, marxismoan oinarriturik (ik. marxismoa 5.3.2. atalean). Marxez «kritika erradikala» kontzeptua erabiltzen du, eta horren helburua fenomenoaren sustraira iristea izango litzateke. Ezagutza kritikoaren (erradikala) helburua, fenomeno bat deskribatzea ez ezik, haren kausak ulertzea ere bada.

Posizionamendu kritiko horrek gizartearen analisia egiteko eta kausak aztertzeko beste ikuspegi zabalago bat ahalbidetzen dio gizarte-langileari, oinarri historiko-sozialak eta teoriko-filosofikoak kontuan hartuz eta praktika profesionalaren potentzialtasunez eta mugez kontzientzia hartuz lan

	BANAKAKO ETA FAMILIAKO GIZARTE-LANGINTZA	TALDEKO GIZARTE-LANGINTZA	KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZA
<p>BEREZITASUN METODOLOGIKOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kasu bakoitza bakarka lantzen da (norbanakoarekin zein familiarekin). - Subjektuaren eta gizartearen arteko norabide bikoitzeko harremanetan eta pertsonalitatean erdiratzen da. - Gizarte-instituzioekin zein beste eragileekin izandako interakzioak izan dezakeen garrantzia azpimarratzen du. - Erabiltzaileek euren gaitasunak ere mobilizatu behar dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> - Norbanakoaren eraldaketa gizarte-langileak nahitara sortutako taldea baliatuz gauzatzen da. - Norbanakoaren banakako lanaketa talde baten baitan eta talde baten bidez egiten da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-egoera kolektiboak lantzen dira antolaturantz eta elkartze-jardueraren bidez. - Talde bat sortu eta mantentzen da, proiektu kolektiboak gauzatu eta aplikatzeko.
<p>ERRONKA PROFESIONALAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Profesional eta pertsonaren artean kalitatezko harremana sortzea bilatzen da: <ul style="list-style-type: none"> * Norbanakoak zein familiak inguratzeko dituzten arazo eta gizarte-egoeren inguruko analisi egoki eta amankomun bat egitea ahalbidetuko duena. * Hobekuntzarako proiektu bat martxan jartzea ahalbidetuko duena. * Subjektuaren gizarte-eremuaren berreraikuntza eta gizarte-baliabideetarako sarbidean (formal eta ez-formalak) profesionalaren bitartekaritza ahalbidetuko duena. 	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-testuinguruak antolatzea (banakako eta taldeko diagnostikoaren bidez taldekideen aukeraketa egin eta horien motibazioa sustatzea). - Saioren gidaritza dinamikoa gauzatzea (funtzionatzen duen moduak ezarri, taldekideen rola zehaztu, taldean gauzatzeko ekintzak pentsatu). - Kide bakoitzaren eta taldearen ebaluazioa egitea (hasierako helburuak gogoratu, prozesuak eta emaitzak aztertu). 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-espazioaren (auzoa, komunitatea, gizarte-kolektibo bat) beharrak eta gaitasunak hautematea. - Jendearekin kontaktua egitea, lan egiteko nahia/kontzientzia sustatzea, beharriaz aurrera egiteko. - Jendea batzea. - Eginkizunak banatzea. - Helburuak ezartzen laguntzea. - Harremanak zaintzea, komunikatzen irakastea. - Taldea aktibo mantentzea.
<p>ESKU-HARTZEAREN HELBURUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-egoera pertsonal eta familiarren hobekuntza bilatzea, barne- eta kanpo-baliabideak aktibatzearen bidez. - Erabiltzailearen eraginkortasuna sustatzea arazoak konpontzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egoera zailetan dauden pertsona eta familiei baimena ematea. - Euren testuinguruarekin modu eraginkorrean jarduteko jarraera pertsonalak, harreman interpersonalak eta gaitasunak lantzea/eraldatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-testuinguruan aldaketa zehatzak gauzatzeko. - Pertsonen arazoei aurrera egiteko konfiantza eta gaitasunak eskuratzen laguntzea. - Gizarte-bizitza trinkotzea (dentsifikatzea). - Dinamizazio soziopolitiko gauzatzeko.
<p>OINARRIZKO TRESNA TEKNIKOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarriketa da teknika nagusia diagnostikoa eta jarraipena egiteko, eta erabiltzaileak mobilizatzeko. - Profesionalaren kudeaketa-lana, era guztietako gizarte-baliabideak mobilizatzeko. - Gizarte-sistema pertsonalak aldatzeko beste eragile batzuekin lan egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-saioa, zeinaren bidez taldekideen arteko interakzioa eta eraginak mobilizatzeko baitira. - Profesionalaren eta erabiltzailearen arteko interakzioa. - Hirugarren pertsonekin lanketa egitea, gizarte-sistema pertsonalak aldatu eta burututako aldatzeko talde-esperezentzien bidez osatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Biltzea da teknika nagusia taldearen/komunitatearen funtzionamendurako. - Kideekin lan egitea, bakoitzak betekota dituen karguak, funtzionatzeko erak eta bestelakoak zehazteko. - Zehaztutako proiektu kolektiboaren lortuenerako, hirugarrenekin kudeatu eta lan egitea.

15. irudia. Esku-hartze mailen ezaugarriak.
[Iturria: Barbero eta Cortes (2005), guk moldatua.]

egitea. Aurrean dugun errealitatea, egiturazko baldintzak eta baldintza instituzionalak, gizarte-politiken atzean dauden balioak problematizatuz lan egingo du gizarte-langileak.

Ikuspegi kritikoa jarduera praktikoaren berehalako ortzimugatik harago doa, zabalagoa den perspektiba batera iritsiz, esplotazioa, desberdintasun sozialak, diskriminazio eta subalternizazio moduak sorrarazten dituen ordena gainditzea bilatuz. Eta jarrera kritiko horrek eraldaketarako bidea ahalbidetzen du, gizarte-langintza alternatibo eta eraldatzaile bat gauzatzeko. Dena den, eta Montañok (2019) kritikatzan duen moduan, praktika kritikoak ez dakar halabarrez eraldaketarik, baina horretarako bideak irekitzen ditu, eta, beraz, eraldaketarako aurrepausoa litzateke. Eztabaida horrek bizirik dirau gaur egun ere.

Bestalde, metodo alternatiboek banakakoa/taldea/komunitatea zatiketa gainditu nahi zuten, eta dena metodo bakarrean egin zitekeela defendatzen zuten. Izen desberdinak hartu zituzten: *oinarrizko metodoa*, *metodo bakarra*, *metodo integratua*, eta abar. Hala ere, ohiko arazo batean jausi ziren, ekintza bereizi egiten baitzen ezagueratik; hau da, errealitatea aurretik erabakitako eskema batean sarrarazten zen (Escartín, Palomar eta Suarez, 1997: 27; 30).

Aukera horietatik at, errealitateak garbi erakutsi du, bere lanean, gizarte-langileak halabarrez pasatu behar duela esku-hartze batetik bestera, eta, hortaz, hiru esku-hartzeak menperatu behar dituela. Hori dela eta, gizarte-langintzaren ikasketetako programetan, hiru esku-hartze horiez jabetzea agertzen da helburu gisa. Horri *ikasketa generalista* esan zitzaion. Dena den, beraren ahuleziak ere agerian geratu dira, orokortasunean irabazten dena zehaztapenean galtzen baita. Batzuetan gertatzen da, horrela, hasierako pausoak eman ondoren, esku-hartze batean espezialista den gizarte-langile bati pasatzen zaiola kasua.

7.1. TESTUA: GAUR EGUN INDARREAN DAGOEN EREDUAREN KRITIKA

Ezequiel Ander-Egg: *Introducción al Trabajo Social*, 181-184

Indarrean dagoen eredia edo paradigma

Gizarte-langintzak herri batzuetan izan duen bilakaeran (Espainian, besteak beste), garapen eta zabaltze profesional nabaria jaso du, gizarte-politikan progresiboki ezarri diren instituzio-ereduen ondorioz, eta, zehatzago, gizarte-zerbitzuen sistema publikoen garapenari loturik. Horrek guztiak ekarri du beharizan/baliabide binomioan oinarritzea edo eraikitzea gizartearen esku-hartzearen eredia edo paradigma.

Eredu horren arabera:

- Bete gabeko gizarte-beharrianak daude, eta horietako batzuk adierazi egiten dira, biztanle-sektore batzuen eskari bihurtuz.
- Beste alde batetik, gizarte-zerbitzuen sistemak baliabide sorta bat eskaintzen du, prestazio eta zerbitzuen formapean.
- Beharizan eta baliabideen artean, gizarte-zerbitzuen sistemaren barruan eragile profesionalak daude, eta horien artean gizarte-langilea, gizarte-zerbitzuek eduki behar duten lehenengo profesionaltzat jotzen dena.
- Gizarte-langileari esleitzen omen zaizkion funtzio eta rol nagusiak kudeatzaile/bitartekari gisa aritzeari dagozkio; bere esku-hartze pertsonalak izaera teknikoa dauka, bere zerbitzuak kontratatzen dituen instituzioan zentratuta.
- Bere helburu nagusia gizarte-ongizatearen problematika orokorraren barruan kokatzen da.

Orain, sistema hori oso burokratizaturik dagoen eratze-egitura batean eraikitzen da, eta horrek zerbitzuak eskaintzeko moduan eragiten du. Era horretara —eta beste faktore batzuen eraginez ere bai— modu ageriko edo inplizituan, kontziente edo inkontzientean, esku-hartze eredu bat osatzen da.

Eredu horretan, gizarte-langilea baliabide-kudeatzaile/-administratzaile huts bihurtzen da. Bere jarduera modua —praktikan ikusten dugunez— honako ildo hauei lotzen zaie:

- Gizarte-zerbitzuen barruan ari den profesionalen arteko bat da; ageri diren arazo jakin eta espezifikoen aurrean, normalean lanbide arteko parte-hartzea egoten da, eta bakoitza arazoaren zati batean ari da.

Horrek zatiketa operatiboa dakar, are larriagoa zatiketa administratiboa ere badagoenean. Gaur egun, egoera hori konpontzeko asmoz, talde-lanaz, diziplinartekotasunaz eta koordinazioaz hitz egiten da, baina... hitz egin, besterik ez da egiten.

- Gizarte-langilea profesional bat da, funtzionario edo teknikari gisa, funtzionamendu burokratikoaren eskakizunen arabera, administrazio publikoak ezartzen duen ordutegia betetzen duena.
- Denbora horretan, bezero/erabiltzaile/onuradunei kasu egiten die; informazioa/aholkularitza eskaintzen du; batzuetan, kudeaketak egiten ditu, eta orientatu egiten ditu erabiltzaileak, euren beharrianak betetzeko behar dituzten baliabideak lortzen edo euren arazoak konpontzen. Noizbait, zuzenean administrazioen dituen baliabideak banatzen ditu.

Merezi du puntu honetan geratzea gogoeta bat egiteko, gizarte-langintzako ikasleak, bere lanbidearen erronkei gutxieneko erantzukizunez eta koherentziaz aurre egin nahi badie, balia lezakeelakoan. [...] Urteak dira Marco Marchionik honako honetaz ohartarazi zuela: «benetan ekintza prebentibo eta komunitarioa aurrera eraman nahi bada, oso zaila da ordutegi burokratikoaren barruan egin ahal izatea [...]. Gauza bat da ziurtagiri bat egitea, eta beste bat gizarte-ekintza egitea».

Eta aurrerago gehitzen du: «Benetan egitea merezi duten lanak nahi ditugu; ikasi dugunaren eta zuzena iruditzen zaigunaren zati batekin, behintzat, koherente izan nahi dugu. Beraz, beste gai batzuk ere barneratu behar ditugu, eta ezin gara gure bulego eder edo itsusietan itxi, eta ordu bietan alde egin, ezarritako ordutegiak hala dioelako».

Espainiako gizarte-zerbitzuen bilakaeran erabakigarri izan den gaietako bati dagokion digresio hori itxirik, indarrean dagoen ereduaren deskripzioari ekingo diogu berriro. Betebeharrak egiteko moduari, hain zuzen ere. Oro har, gizarte-langileak honako eskema honi atxikitzen zaizkio:

- Eskariak eta eskaerak jasotzen dituzte; agerian dauden beharrianak erregistratzen dira.
- Dagoen egoera diagnostikatzen dute, eta eskaerak baloratu, administrazio publikoak ezarritako baremoen arabera.
- Erabakiak hartzen dituzte, euren balorazioarekin eta indarrean dauden xedapen legalen arabera.
- Jarraitu beharreko ekintza edo tratamendua iradokitzen dute.
- Esku-hartzen dute lan egiten duten zerbitzuak ezarritako markoaren barruan.

Egiten dituen esku-hartze multzoari erreparaturik, gizarte-langintza, gizarte-zerbitzuen sistemaren barruan, alde batean baino gehiagotan ageri zaigu. Bakoitzak jarduera zatikatu bat egiten du, eta horrela erantzun egiten zaie, sektorialki edo puntualki, normalean izaera globala duten arazoei. Sarritan, oreka gordetzen ahalegindu behar da gizarte-baliabideen urritasuna eta zerbitzu-eskaera handia suposatzen duen arazo eta beharrian kopuru handiaren artean.

Erabilitako erreferentziak

- Ander-Egg, Ezequiel (1992): *Introducción al Trabajo Social*. Siglo XXI.
- Barbero, Josep Manuel (2003): «El método en el Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 394-438 or. Alianza.
- Barbero, Josep Manuel eta Cortés, Ferrán (2005): *Trabajo Comunitario, organización y desarrollo social*. Alianza Editorial.
- Barrera, Evaristo (2005): *Metodología del trabajo social*. Aconcagua.
- de la Red, Natividad (1993): *Aproximaciones al trabajo social*. Siglo XXI.
- Diagnostikoa eta Esku-Hartze Soziala. *Gizarte Lanerako Baliabide Informatikoa (2006)*. Eusko Jaurlaritza.
- Domenech, Yolanda (1998). «Los grupos de autoayuda como estrategia de intervención en el apoyo social». *Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social* 6: 179-195.
- Domenech, Yolanda. (2008). «El grupo de apoyo como contexto de ayuda para personas con discapacidad en la comunidad valenciana». *Portularia, VIII (1)*: 247-264.
- Escartin, Mari Jose, Palomar, Manuela, eta Suarez, Esperanza (1997): *Introducción al trabajo social. II (Trabajo social con individuos y familias)*. Aguaclara.
- Escartin, Mari Jose, eta Suarez, Esperanza (1994): *Introducción al trabajo social. I (Historia y fundamentos teórico-prácticos)*. Aguaclara.

- Gomez Gomez, Francisco (2003): «La intervención profesional: espacios y prácticas profesionales», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 466-514 or. Alianza.
- Henry, Sue, East, Jean eta Schmitz, Catherine (2004): *Trabajo social con grupos. Modelos de Intervención*. Narcea.
- Konopka, Gisela (1968). *Trabajo social de grupo*. Euramérica.
- Lima, Boris A. (1983): *Contribución a la Epistemología del Trabajo Social*. Humanitas.
- Lillo, Nieves, eta Roselló, Elena (2004). *Manual para el Trabajo Social Comunitario*. Narcea Ediciones.
- Miranda, Miguel (2004): *De la caridad a la ciencia. Pragmatismo, Interaccionismo simbólico y Trabajo Social*. Mira.
- Montaño, Carlos Eduardo (2019): «El trabajo social crítico». *Revista Pensamiento y Acción Interdisciplinaria*, 5 (2): 8-21.
- Moix, Manuel (2006): *La práctica del trabajo social. Síntesis*.
- Payne, Malcolm (1995): *Teorías contemporáneas del trabajo social. Una introducción crítica*. Paidós.
- Torres, Jorge (1987): *Historia del trabajo social*. Humanitas.
- Viscarret, Juan Jesús (2007): *Modelos y métodos de intervención en Trabajo Social*. Alianza.
- Zamanillo, Teresa, eta Gaitan, Lourdes (1991): *Para comprender el trabajo social*. Verbo Divino.

Autoevaluazioa

- 1) **Zer da metodologia?**
 - a) Metodoaren sinonimoa.
 - b) Metodoen azterketaz arduratzen den diziplina.
 - c) Teknikaren sinonimoa.
- 2) **Ebaluazio faseak balio du...**
 - a) Prozedura batean dauden akatsak zuzentzeko edo aurrera begira kontuan izateko.
 - b) Plangintza praktikara eramateko.
 - c) Datu-bilketaren gaineko azterketatik, gure ustez gertatzen denari buruzko iritzi osatu bat lortzeko.
- 3) **Zein da banakako eta familiako gizarte-langintzaren berezitasun metodologikoa?**
 - a) Kasu bakoitza bakarka lantzen da.
 - b) Norbanakoaren eraldaketa gizarte-langileak nahita sortutako taldea baliatuz gauzatzen da.
 - c) Gizarte-egoera kolektiboak lantzen dira antolakuntzaren eta elkartzeko-jardueraren bidez.
- 4) **Zein da taldeko gizarte-langintzaren erronka profesionala?**
 - a) Profesionalen eta pertsonaren artean kalitatezko harremana sortzea.
 - b) Talde-testuinguruak antolatzea.
 - c) Jendearekin kontaktua egitea eta lan egiteko nahia/kontzientzia sustatzea beharriaz aurre egiteko.
- 5) **Zein da komunitateko gizarte-langintzaren oinarriko tresna teknikoa?**
 - a) Elkarrizketa da teknika nagusia diagnostikoa eta jarraipena egiteko, eta erabiltzaileak mobilizatzeko.
 - b) Talde-saioa, zeinaren bidez taldekideen arteko interakzioak eta eraginak mobilizatzen baitira.
 - c) Biltzea da teknika nagusia taldearen/komunitatearen funtzionamendurako.
- 6) **Zein da esku-hartze maila ezberdinei egiten zaien kritiketako bat?**
 - a) Errealitatea ez partzelatzea.
 - b) Paternalismo-kutsua.
 - c) Neutraltasun ideologiko eza.

-langintza egiten duten guztiei eman behar baitzaie izen hori, eta, beste batzuen ustez, berriz, baldintza akademiko-profesional batzuk betetzen dituenari bakarrik (Gaitan, 1991: 73).

Nolanahi ere, gizarte-langintzaren eragile nagusia gizarte-langilea da. Bere lana, oro har esanda, gizartean arreta berezia behar duen jendeari laguntzea da, dakigunez, baina beste pertsona edo kolektibo batzuek ere eragin dezakete horretan. Gizarte-langileak funtzio desberdinak garatu ditzake bere zereginean.

8.1.1. Gizarte-langilearen funtzioak

Laguntzea helburu duela, gizarte-langileak modu batean baino gehiagotan bete dezake zeregin hori. Gizarte-langilearen funtzioak aldatu egiten dira garatzen den rolaren arabera (lan egiten ari den lekuaren arabera, instituzioen arabera, eta abar). Oro har, honako arlo hauek landu ditzake, Charo Ovejasek arabera:

1. **Laguntza.** Klasikoena. Zuzenean esku hartzen da laguntza-eskaera baten aurrean. Horretarako, jakina, kontuan hartu behar da zer baliabide daukan (giza baliabideak, gizarte-baliabideak, materialak edo ekonomikoak), eta horren arabera erabakiko du esku-hartze mota. Hala ere, laguntza-forma ohikoena eta erabiliena informazioa ematea bera da: informazio orokorra, lehen momentuko orientabidea, edo gizarte-eskubideei buruzko aholkularitza.
2. **Ikerketa.** Ezinbestekoa, zientzia modura hazi nahi bada. Helburua gizarte-problematika aztertzea da, baina gizarte-langintzaren ikuspegitik. Era horretara, gizarte-ingurua aztertzen da, arazoaren neurria hartzeko, eta lehentasunak ezartzeko. Bestalde, kasu askotan gizarte-langilea diziplinarteko taldeetan aritzen da, ikerketa zabalagoak bideratzeko.
3. **Plangintza.** Modu eraginkorragoan jokatzeko, eta gizarte-baliabide hobeak sortzeko, oso inportantea da plangintza-programetan parte hartzea. Ikerketan bezala, askotan plangintza interdiziplinarra izaten da, taldean arituta.
4. **Prebentzioa.** Funtzio honen helburua da arazo baten eragina aurreikustea, eta eragin hori ezabatzeke edo murrizteke, aurretik esku hartzea. Hiru maila bereiz daitezke.
 - Lehen maila, arazoa gertatu baino lehenagokoa. Ikerketek eta bestelako datuek errealitatearen argazkia eskaintzen digute, eta, bertan eragiteko, aurretiko esku-hartzeak bideratzen ditugu, askotan informazioari eta heziketari lotuak.
 - Bigarren maila, arazoa zabaldu baino lehenagokoa. Arazo baten aurrean arrisku handiagoan egon daitezkeen pertsonen zuzentzen zaie, ondorio larriagorik gerta ez dadin.
 - Hirugarren maila, arazoa gertatu ondorengoa. Arazo batek kalteturik utzi dituen pertsonen zuzendua. Egoera orokorra azterturik, ondorioak atzeratzea edo mugatzea bilatzen da, eta arazo berririk ez agertzea.
5. **Birgaitzea.** Prebentzioaren hirugarren mailatik beste funtzio hau eratortzen da, krisian dagoen pertsona edo taldea birgaitzea, alegia. Bertan sar daiteke birgizarteratzea bera; zeregin horretan aritzeko kontzientzia sortzea; edo arazoa jasan dutenen artean taldeak sortzen saiatzea.
6. **Heziketa.** Funtzio garrantzitsua da beti pertsonak edo taldeak haien arazoez jabetu daitezen saiatzea, eta, horretarako, heziketa-lana behar da. Heziketaren helburua da pertsonaren edo taldearen baliabideak garatzen laguntzea.
7. **Prestaketa.** Gizarte-langileak teoriaren beharra dauka praktika eraginkorragoa eta aberatsagoa lortzeko. Horretarako, ikerketarekin batera, gizarte-langintzaren teoria eta praktika irakatsi behar dira, profesional berriak sortzeko.

8.1.2. Gizarte-langilearen jokaera etikoa

Gizarte-langileak ikuspuntu teoriko eta ideologiko desberdinetatik garatu dezake bere zeregina, baina jokaera etikoa agertu behar du, edozein modutan. Egia esanda, gizarte-langilearen etika zertan datzan ere eztabaidatzen da, ikuspuntu desberdinen arabera. Ikuspuntu humanista batetik zabalpen

handia lortu zuten, esate baterako, Felix Biestek apaiz amerikarraren irizpideek. Horietan oinarrituta, Gaitanek (1991: 73-75) hauexek proposatzen ditu:

1. **Laguntza.** Beste baten edo batzuen alde egiten den zerbait adierazi nahi du, oro har. Gizarte-langilearen kasuan, asegabe dagoen egoera bat gainditzen laguntzea dakar. Baina dena ez dago bere esku; kontuan hartu behar dira bere trebetasuna, erabiltzaileak dituen aukerak, eta dauden bitartekoak. Bestalde, *laguntza* kontzeptua ez da «zerbait ematea» bakarrik. Gizarte-langilea ez da horretara mugatzen. Alderantziz, elkarlana bultzatzen du, jendea gai izan dadin eskaintzen zaizkion baliabideak bere kabuz erabiltzeko.

Oso garrantzitsua da azpimarratzea gizarte-langilearen laguntza ez dela arlo materialera mugatzen. Ez da, noski, ukatzen, baina laguntza materiala laguntza orokorrago baten zati bezala baizik ez da ikusten. Oker horretan, egia esan, gizarte-langintzaren tradizioak eragin du, historikoki horixe izan baita bere zeregin ia bakarra.


2. **Onarpena.** Gizarte-langileak diren bezalakoak onartu behar ditu beregana doazen erabiltzaileak, aurrebaldintzarik gabe, nahiz eta erabiltzailearen jokaerarekin ez ados egon. Onarpenak ez du esan nahi onartu edo txalotu egiten denik erabiltzaileak egin duena; hala ere, gizarte-langileak ulertu egiten ditu bai testuinguru orokorra eta baita erabiltzailearen egoera partikularra ere, eta, edozein modutan, prest dago laguntzeko.

Ez dago kontraesanik onarpenaren eta gizarte-langintzak duen aldaketa-nahiaren artean. Onartu egiten da abiapuntua, oraingo egoera, baina lan egiten da etorkizunean beste era batekoa izan dadin.

3. **Ulermena.** Zentzu bitan ulertu behar da. Alde batetik, gizarte-langileak bere esperientzia eta jakituria erabili behar ditu aurrean duen arazoaren ulermen oso batera heltzeko, eta era egokiz jokatu ahal izateko. Baina, beste aldetik, gizarte-langileak gai izan behar du ulermen enpatikora heltzeko; hau da, gai izan behar du ulertzeko delako arazo hori erabiltzaileak nola bizi duen. Arazoa, beraz, bere ikuspuntutik eta erabiltzailearen ikuspuntutik ulertu behar du. Horixe da, azken batean, enpatia: beste errealitate batean sartzeko gaitasuna, bestearen sentimenduak, ideiak eta ikuspuntuak ulertzeko gai izaki.
4. **Indibidualizazioa.** Onarpenaren irizpidea osatuz, indibidualizazioaren irizpideak esan nahi du gizabanako edo talde bakoitza modu desberdinean ulertu behar dugula; izan ere, pertsona edo kolektibo bakoitzak era desberdinean bizi ditu arazoak, eta, hortaz, gizarte-langileak modu desberdinean tratatu beharko ditu.
5. **Motibazioa.** Erabiltzailea animatzeko eta bultzatzeko behar diren argudioak bilatzen jakin behar du gizarte-langileak. Jendeak gizarte-langilearengana hurbiltzeko dituen arrazoiak aztertzea komenigarria da, arrazoi horiek interesatzen zaigun ildotik bideratu ahal izateko.
6. **Kontzientziazioa.** Pertsona gisa edo inguruan dugun gizartearen errealitateaz jabetzea dakar, horrek norberarengan edo inguruko gizartean ondorio askatzaileak edukiko dituelakoan. Marxismoari eta Hego Amerikako gizarte-langintzari loturik dago.
7. **Trebakuntza.** Gizarte-langilea ez da konformatzen momentuko parte-hartzearekin. Aitzitik, ahalegintzen da erabiltzaileak trebatzen, gai izan daitezen dituzten arazoak euren kabuz konpontzeko. Hau da, gizarte-langilea bitarteko bat da, eta ahalegintzen da beharrezko ez izaten.

8.1.3. Gizarte-langilearen arazo etikoak

Batzuetan, aztertu behar ditugun egoerak zailtasun handikoak izaten dira ebazteko orduan, hartzen dugun aukera hartzen dugula, beti geratzen baita ondorio kaltegarriren bat. Erabaki horietan eragina izaten dute norberaren irizpide moralek, eta oso zaila da gizarte-langileari horiek aldatzeko eskatzea. Hala ere, Sarah Banks-ek (1997: 24 t. hur.) honela ezaugarritzen ditu:



17. irudia. Gizarte-langileak eduki ditzakeen arazo etiko motak.

[Iturria: Banks (1997), guk moldatua.]

1. Irizpide moralak gizarte-ongizateari dagozkio, eta aldatu egiten dira denboran eta espazioan.
2. Irizpide moralek ekintzarako jarrera eskatzen diote gizarte-langileari. Hau da, gizarte-langilea prest agertu behar da harturiko erabakiarekin bat datozen ekinbideei ekiteko.
3. Irizpide moralak antzeko kasu guztietarako balio beharko luke, desberdintasun nabaririk ez badago.
4. Irizpide moralak justifikagarriak izan behar dira, ahal den neurrian.

Gizarte-langintzan hiru arazo etiko mota ageri ohi da normalean

1. **Norbanakoaren ongizateari eta eskubideei buruzkoak.** Erabiltzaileak ez du onartzen gizarte-langileak pentsaturiko irtenbidea. Talka egiten dute gizarte-langileak erabiltzailearen ongizaterako pentsaturiko irtenbideak eta erabiltzaileak erabakitzeko duen eskubideak. Adibidez: gizarte-langileak adikzio-arazoa duen erabiltzailea desintoxikazio-zentro batera joatera bultzatu nahi du, baina erabiltzaileak ez du nahi. Laguntza-harremanarekin jarraitzeko, gizarte-langileak baldintza modura jarri nahi du tratamendua.
2. **Ongizate publikoari buruzkoak.** Gizarte-langileak harturiko erabakiak mesede egin diezaioke ongizate publikoari, baina arazoren bat sortu erabiltzaileari. Talka egiten dute ongizate publikoak eta norbanakoaren ongizateak. Adibidez: gizarte-langileak jarraitu egin behar ditu administrazioak ezarritako protokoloak, eta, ondorioz, kaltea eragin erabiltzaileari (delitu bat ikustean salatzeraz behartua dagoelako, adibidez).
3. **Bereizketa eta zapalketari buruzkoak.** Gizarte-langileak harturiko erabakiak on egin diezaioke erabiltzaileari, baina arazoak sortu (kulturalak, estrukturalak) bere inguruan. Talka egiten dute norbanakoaren ongizateak eta taldearen egonkortasunak. Adibidez: hainbat arrazoi dela eta, familia batek ez du onartzen bere alaba lesbiana denik, eta indarkeria pairatzen ari da senideen aldetik. Gizarte-langileak egoera salatu dezake, baina familiarekin gatazka areagotu egin daiteke horrela.

Arazo etiko hauek testuinguru historiko eta espazialean kokatu behar dira. Batzuetan, harridura edo ezinulertua sortzen digute iraganeko edo beste kultura batzuetako jokaerek, baina, beren testuinguruan kokaturik, osotasunean uler ditzakegu.

Testuinguru horretan ulerturik, proposamen bat baino gehiago egin da gizarte-langintzaren irizpide moralak zein izan beharko lirakekeen zehazteko. Proposamen bat baino gehiago egoteak berak

absoluturik ez dagoela adierazten digu, baina momentuan balio handikoak izan daitezke. Zein dira gaur egun proposatzen diren irizpideak? Salcedok (2003: 323) honako hauek zehazten ditu:

1. **Norbanako, talde eta komunitateen eskubideen errespetua eta sustapena.** Edozein egoeratan eta inolako diskriminaziorik gabe (ez jatorriagatik, ez sexuagatik, ez ezintasunengatik, eta abar).
2. **Berdintasuna.** Profesionalen aldetik, eta erabiltzaile eta instituzioen arteko harremanetan.
3. **Gizarte-justizia.** Erabiltzaileak injustiziatik defendatuz, laguntzak zuzentasunez banatuz, eta injustiziak gainditzeko ekimenak sustatuz.

8.1. TESTUA: **DILEMA ETIKOAK. ERASOTZAILEEKIN ENPATIA?**

Mónica Hernando: *Gainbegiratzea gizarte-langintzan: aldaketarako metodologia bat, 71-80*

Orain dela urtebetetik, 40 urteko gizon bat artatzen dut, udalerrian 10 urtez bizi dena eta gizarteratze-maila egokia duena. Gizarte-zerbitzuetara etorri da gizarte-laguntza ekonomikoen eske; izan ere, ez du lanik eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen du.

Bigarren elkarrizketan jakinarazi dit 18 urteko neska batekin ezkonduko dela; aspaldidanik familia-inguruan ezagutzen du neska hori. Nik ez dut gustuko adin-diferentzia hori. Emaztegaia udalerritik kanpo bizi da, eta hilabete gutxi igaro dituzte bikote gisa. Gizonak ez dit familia-egoerari buruzko datu askorik eman nahi; izan ere, gai pertsonala dela eta, bere intimitatearen parte dela uste du. Berak behar-beharrezko altzariak erosteko laguntza ekonomikoa behar du, etxea egokitu nahi du bere emaztegaia bertan bizi aurretik, neskak ez baitu gizonaren behar-egoeraren berri. Pozik dago.

Dauden gizarte-laguntzen eta horiek eskuratzeko baldintzen berri ematen diot, baina horretarako beharrezkoa dela etxera bisita egitera joatea azaltzen diot. Artatutako gizona ez dago ados eskaera-prozesuarekin, eta, horrela bada, ez du laguntza ekonomikorik eskatuko. Planteatutako egoera emaztegaia aitarekin konponduko duela dio.

Hirugarren elkarrizketan gizona jada ezkonduko dago, eta emaztearen dokumentazio pertsonala dakar; izan ere, laguntza ekonomikoa jasotzen du, eta beharrezkoa da familia-unitatean izandako edozein aldaketen berri ematea.

Hilabete batzuk geroago, laugarren hitzorduan, gizonak bizikidetzako egoera desberdina dela esaten dit. Emazteak etxetik alde egin du, eta ez daki non dagoen. Asko kostatu zaio egoeraren berri ematea, bere bizitza pribatuaren parte dela dio. Azkenik, minez beteta eta negar-zotinen artean azaltzen dit bizikidetzako ona zela, biak oso ondo zeudela, bera asko kezkatzen zela neskaz, ez zitzaizela ezer falta, etab. Baina egun batean bere emaztea ez zen etxera itzuli, eta gizonak desagerpen-salaketa jarri zuen. Egundak batzuk geroago, indarkeriagatik salaketa jaso zuen, emakumeak salatuta, eta bertan honako gertaera hauek salatzen ziren: etxean itxita zeukala, ez ziola irteten uzten edo zeraman arropagatik iraindu egiten zuela. Emakumeak aita ere salatu du, baimenik gabe ezkontzera behartu duelako.

Gizona engainatuta sentitzen da. Egoerak jota utzi du. Ez du bere burua erasotzailatzat hartzen, eta salaketan jasotzen diren gertaera guztiak ezeztatzen ditu.

Egiten diodan elkarrizketan, nik, profesional gisa, ez dudala ulertzen esaten dit, eta bere bertsioa zalantzan jartzen ari naizela uste du. Egia esan, arrazoi du. Nik ezin diot sinesgarritasunik eman kontatzen duenari. Ezin nuen berarekin bat egin. Burura etortzen zitzaidan 18 urteko neska horren egoera, udalerrira berriki etorritakoa, eta babes-sare bakarra senarra zuena.

Hala ere, berak kontatutakoa entzuten dut, eta hitz egiten uzten diot. Azaltzen diot laguntza psikologikoko zerbitzu bat dagoela, gizon erasotzaileengan espezializatua; berak badu horren berri, baina esaten du bera ez dela erasotzailea eta, beraz, ez dagoela joateko prest.

8.1.4. Kode deontologikoak

Proposamen pertsonalez gain, gizarte-langintza arduragarrantsuak hartzen dituen lanbidea da, eta, medikuntzan edo zuzenbidean egiten den bezala, inguru bateko (estatu batekoak, esate baterako) gizarte-langile guztiek bete beharreko araubide batzuk ezarri ditu, jokaerak eta iritziak argitzeko eta bateratzeko asmoz: kode deontologikoak.

Kode deontologikoak gizarte-langilearen jardunbidea arautzen du: bateratu egiten du gizarte-langileen jokabidea, eta horrek indarra eta sinesgarritasuna ematen dizkio lanbideari. Gainera, kasu zailtan nola jokatu erakuts diezaioke gizarte-langileari. Horrez gain, mesedegarri izan dezakete erabiltzaileak edo beste lanbideetako profesionalak ere, gizarte-langilearengandik zer itxaron dezaketeten jakingo dute eta.

Baina kode deontologikoek ere badituzte arazoak (Salcedo, 2003: 321-322). Kritika mota nagusi bi zabaldu dira. Batzuek diotenez, kodeak alferrikakoak dira askotan, gizarte-langileek lan egiten duten instituzioek euren arauak dituzte eta. Gizarte-langileak instituzioaren arauak bete behar ditu hala-koetan, eta kodea, orduan, bigarren mailan geratzen da, bete ezinik, instituzioak onartzen ez badu. Bestalde, beste kritika batek esaten du kode deontologikoek kolegiatuen estatus eta pribilegioak gordetzeko balio dutela, eta ez gehiago: erabiltzailea testuingurutik kanpo agertzen da, eta kodeak ez du inolako araurik ezartzen injustiziari aurre egiteko.

Hona Espainiakoaren atal bat.

8.2. IRAKURGAIA: **GIZARTE-LANGINTZAKO KODE DEONTOLOGIKOA**

[2012an Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak onarturiko testua]

II. atala. Lanbidearen irizpide orokorren aplikazioa

7. artikulua. Gizarte-langintza balio zatiezin eta unibertsal diren giza duintasunean, askatasunean eta berdintasunean oinarritzen da, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, erakunde demokratikoetan eta Zuzenbide-Estatuan jasota dauden moduan. Horietan oinarritzen da lanbide-jarduera, honako irizpide hauek onartuz:

Oinarrizko irizpideak:

1. Duintasuna. Gizakia bakarra eta bortxaezina da, eta bere baitan du balioa, bere interesekin eta helburuekin.
2. Askatasuna. Gizakiak, giza ahalmenen jabe delarik, inork derrigortu eta eragotzi gabe egiten ditu bere egintza guztiak.
3. Berdintasuna. Gizaki guztiak eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, bakoitzak bere berezitasunak eta berezitasunak izanagatik bateragarriak direnak.

Oinarrizko irizpide horietatik, irizpide orokor hauek sortzen dira:

Irizpide orokorrak:

1. Errespetu aktiboa gizakiari, taldeari edo komunitateari, esku-hartze profesional ororen ardatz gisa.
2. Gizakia onartzea, gizakia den neurrian, bere berezitasun eta berezitasun guztiekin.
3. Aurrez finkatutako eskemetatik sortutako kategorizazioak gainditzea.
4. Balio-judiziorik ez egitea, ez gizakiari buruz ez gizakiaren baliabide, motibazio eta beharrei buruz.
5. Indibidualizazioa; esan nahi baita, esku-hartze profesionala gizaki, talde edo komunitate bakoitzaren berezitasunetara egokitu beharra dagoela.
6. Pertsonalizazioa; horrek eskatzen du onuraduna objektutzat ez baizik eta eskubideak eta betebeharrak dituen subjektu aktibotzat hartzea esku-hartzea egiten denean.
7. Gizakiaren promozio integrala, gizakia bere osotasunean hartuz, izan ditzakeen ahalmenetatik hasi eta hainbat eta hainbat barne- eta kanpo-faktore zirkunstantzialetara arte. Horrek dakar ikuspegi partzialak, aldebakarrekoak, gainditzea, eta baita esku-hartzea diziplinartekotasunaren bidez integraztea ere.
8. Aukera- eta eskubide-berdintasuna, ekitea eta parte-hartzea, ziur izanda gizaki bakoitzak bizi-kalitate hobea izateko gaitasunak dituela.
9. Elkartasuna, baztertzen ez duen gizarte bat lortzen inplikatzeko, eta gizakia baztertzen, estigmatizatzen edo azpian hartzen duten egoera sozialei aurre egiteko betebeharra.
10. Justizia soziala gizartearekin, oro har, eta lanean dihardugun gizakiekin. Jardunbide profesionala bideratuko da gizaki, talde eta komunitateei euren garapenean laguntzera, eta gatazka pertsonalak eta/edo sozialak eta haien ondorioak konpontzen laguntzera.

11. Giza eta gizarte-eskubideak aitortzea, eta haien zehaztea benetan aplikatzerakoan.
12. Autonomia, profesionalak dituzten gaitasunetikiko konfiantzan oinarrituz erabilia, kanpoko koakziorik gabe.
13. Autodeterminazioa, gizakiaren askatasunaren eta, beraz, haren egintzen eta erabakien erantzukizunaren adierazpide gisa.
14. Erantzukizuna eta erantzukidetzak gizaki onuradunarekin, esku-hartze profesionalan parte hartzen duten subjektu guztiekin eta erakundeekin.
15. Koherentzia profesionala, proiektua eta lan egiten duen erakundearen arautegia ezagutzuz eta errespetatuz.
16. Lankidetzak profesionala, aktiboa, konstruktiboa eta solidarioa onuradunarekin diharduten beste profesionalarekin. Gauza bera gizarte-langintzako profesionalen autoantolaketarako, haien elkargo-egituretan.
17. Osotasuna; horrek profesionalari eskatzen dio erabiltzailearekin duen konfiantzazko harremanaz ez abusatzea, bitzta pertsonalaren eta profesionalaren arteko mugak ezagutzuz, eta bere posizioaz ez aprobetxatzea onura edo etekin pertsonalak lortzeko.

III. atala. Gizarte-langileen eskubideak eta betebeharrak

10. artikulua. Gizarte-langintzako profesionalak etikoki justifikatutako erabakiak hartzen dituzte, kontuan hartuz Printzipio Etikoei buruzko GLNFAren Nazioarteko Deklarazioa, Gizarte Langileentzako Nazioarteko Irizpide Etikoak eta Kode Deontologiko honetan jasotzen diren gainerako guztiak.

15. artikulua. Gizarte-langintzako profesionalak, erabiltzaileen konpromisoa eta inplikazioa sustatuz, haien erantzukizuna ahalbidetzen dute erabakiak hartzerakoan eta beren bitzitei eragin diezaieketen egintzak gauzatzerakoan, hirugarrenen eskubideak eta interes legitimoak urratzen ez badituzte betiere. Ahalik eta gutxien erabiliko dituzte neurri hertsatzaile legalak. Izan ere, halako neurriak gatazka bateko aldeetako baten alde hartuko dituzte bakarrik, alde bakoitzaren arazoibideak sakon ebaluatu eta gero.

19. artikulua. Baldin eta, hainbat arazoirengatik, erabiltzaileari dagozkion gaien inguruan adostasun batera iristea ezinezkoa bada, profesionala prozesu hoberenak aukeratzeaz arduratuko da, erabiltzailearen interes, desio eta beharretatik koherentea den erabakia hartzen dela ziurtatzeko.

20. artikulua. Erabiltzailea beste zerbitzuren batera eraman behar baldin bada, gizarte-langintzako profesionalak harentzat ahalik eta modurik erosoenean bideratuko du, esku-hartzeak etenik izan gabe.

21. artikulua. Erabiltzailearen egintzak edo jarduerak berarentzat edo besteentzat benetako edo balizko arrisku larria (aurreikusten dena edo berehalakoa) baldin badakar, profesionalki jardungo da, eta taldearen baimenarekin, autodeterminazio-eskubidea behin-behinean mugatzeko eskaera egingo zaio dagokionari.

IV. atala. Konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala

48. artikulua. Konfidentzialtasuna gizarte-langintzako profesionalaren betebeharra eta erabiltzailearen eskubidea da, eta profesionalak bere esku-hartze sozialean, modu batean edo bestean, jasotzen duen informazio guztiari aplikatu behar zaio.

49. artikulua. Hauek bete behar dute sekretu profesionala:

1. Gizarte-langintzako profesionalak, edozein dela ere duten titulazioa, jarduera-eremua edo lanbidean jarduteko modalitatea.
2. Gizarte-langintzako profesionalarekin elkarlanean ari diren profesionalak, baldin eta beren esku-hartzeagatik eta beren lanbidea kontuan hartu gabe, informazio konfidentzialaren berri izaten badute.
3. Praktiketara ari diren gizarte-langintzako ikasleek eta aldizka gizarte-langilearekin lanean aritzen diren boluntarioek.

Gizarte-langintzako profesionalak diskrezioa eskatuko die laguntzaileei, administrazioko langileei, ikasleei, boluntarioei edo beste edonori, duten lanbideagatik informazio konfidentziala erabiltzen badute; eta jakinarazten die halako informazioen inguruan isiltasuna gorde behar dutela, ahaztu gabe isilik egoteko betebeharraren klausulak sinatu beharko dituztela, datuak babesteko araudiaren arabera.

54. artikulua. Konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren salbuespena.

Gizarte-langintzako profesionalak erabiltzailearen bizia, segurtasuna eta osotasun fisikoa, psikologikoa eta soziala lehenetsiko ditu, eta behar-beharrezko informazio konfidentziala esku-hartze profesionalarekin zerkusua duen ahalik eta pertsona talde txikienari emango dio.

Profesionalak sekretu profesionala hautsi ahal izateko, salbuespenezko oso egoera larria gertatu behar da, hots, erabiltzailearentzako, gizarte-langilearentzako edo hirugarrenentzako aurreikus daitekeen berehalako arriskua dakarrena.

Dena den, profesionalak ez du sekretu profesionala hautsiko:

- a) Erabiltzaileak, haren ordezkariak edo oinordekoek sekretu profesionaletik libratu badute, idatziz.
- b) Legeak edo organo judizialen batek hala aginduta, gai konfidentzialen berri emateko agindua jasotzen badu. Hala eta guztiz ere, eskatutako informazio konfidentzialaren mugen inguruan zalantza izanez gero, aholkua eskatu ahal izango dio dagokion elkargoko Batzorde Deontologikoari, eta planteatu ere bai aurrez edo judizioan edo espedientearen bertan, agintari judizial edo administratiboaren aginduz betebeharrak horretatik salbuesteko.
- c) Erabiltzaile batek salaketa jartzen badio delitu edo falta bat egiteagatik, edo kode deontologikoa hausteagatik, defendatzeko beste modu eraginkorragorik ez badago betiere. Lekuko moduan agertzen bada, ordezkapena eska lezake, b) puntuaren arabera.
- d) Erabiltzaileari edo hirugarren pertsonari modu bidegabean eta larrian eragin badiezaieke.
- e) Esku-hartze soziala taldean egiten denean, horretarako behar den informazioari dagokionez, berdin diolarik gizarte-langileak izan ala ez. Ez badira, sekretu profesionala edo isiltasuna gorde beharraz ohartaraziko zaie.

8.2. Beste eragile batzuk

Gizarte-langileaz gain, beste eragile askok esku hartzen du gizartean ageri diren arazoei aurre egiteko, nahiz eta batzuetan ezkutaturik geratu.

8.2.1. Administrazioiko teknikariak eta zuzendariak

Ohikoena, gaur egun, administrazioan lan egitea izaten da gizarte-langileentzat. Administrazioak egitura konplexua edukitzen du: leku zabalak izaten dira, eta beste arlo batzuetako langileak ere egoten dira. Hori dena kudeatzeko, administrazioa sailka banatu ohi da, eta sail horietan gizarte-langilea beste profesional batzuekin batera aritzen da lanean. Horien buruan, zuzendariak egon ohi dira (National Institute for Social Work, 1992: 200 t. hur.):



18. irudia. Administrazioiko teknikari eta zuzendarien funtzioak.
(Iturria: guk egina.)

Zuzendariak hiru funtzio nagusi betezen dituzte:

1. **Kudeatzea.** Administrazio-lanak, oro har. Jakin behar du alde guztien nahiak eta helburuak betezen: erabiltzailearenak, teknikarienak eta saila sustatzen duen erakundearenak. Oso interes kontrajarriak egoten dira, batzuetan, alde horien artean.

2. **Koordinatzea.** Barrura eta kanpora begira. Hau da, instituzioan dauden kideen berri edukitzea eta euren parte-hartzea bilatzea, barrura begira; eta instituzio desberdinen berri edukitzea eta ekintza edo programa berberak ez errepikatzen ahalegintzea, kanpora begira.
3. **Suspertzea.** Bere karguan dauden langileak suspertu behar dira, era eraginkorragoz bete dezaten euren lana. Esku-hartzea era askotakoa izan daiteke: animatzeko batzuetan, aholkua edo prestaketa, besteetan.

Horretan guztian, erabakigarria da zuzendariaren eta gizarte-langileen arteko harreman ona egotea. Behin baino gehiagotan, gizarte-langileak kexatu izan dira lotura egokirik ez dagoelako alde bien artean.

8.2.2. Politikariak

Erakunde batzuk pribatuak dira, eta zuzendarien gainera erakundearen arduradunak egoten dira, zuzendariak eurak batzuetan. Baina beste erakunde asko publikoak dira, eta horietan, teknikariek eta langile egonkorrez gain, politikariak izan ohi dira goiko postuetan.

Politikariek hauteskundeetan alderdiek publikoki defendaturiko programa aurrera erotea dute helburu. Alderdiaren arabera, hortaz, administrazioak era bateko edo besteko politika jarraitu dezake: alderdi kontserbadore batek politika kontserbadoreak garatuko ditu, eta alderdi aurrerakoi batek, politika aurrerakoiak. Modu berean, teknikariak eta zuzendariak gusturago senti daitezke alderdi batzuekin besteekin baino, eta horrek eragina edukiko du alde bien arteko lankidetzan. Izan ere, askotan tirabirak sortzen dira politikoen eta administrazioen langileen artean planak aurrera eroteko moduan.

Gizarte-langilearen pentsaera politikoa eta alderdi politikoen jokaera. Batez ere Administrazioan lan egiten duenean, politikarien ekinbideak gizarte-langilearen lana mugatu edo baldintzatu dezake. Zer gertatzen da gizarte-langileak bat egiten ez duenean alderdi politiko baten ideologiarekin? Edo, pentsatu, gizarte-langilearen ustez, indarrean dagoen alderdi politiko baten programa justizia sozialaren aurka doanean? Edo estigmatizazioa eta diskriminazioa indartzen duen politika soziala bultzatzen duenean? Edo, begiratu beste aldetik, zer gertatzen da gizarte-langile baten ustez agintean dagoen alderdi politikoaren jarrera oso ezkertiarra denean? Zelan jokatu behar du gizarte-langileak halakoetan? Zer uste duzu?

Politikariek epe mugatu baterako betetzen dute harturiko ardura, aldiro-aldiro hauteskunde-prozesuak gertatzen baitira, eta emaitzen arabera aldaketak izan ohi dira. Horrek nolabaiteko iragankortasuna ematen die politikariei, batzuetan ez baitira aditu izaten harturiko arduraren. Halakoetan, teknikari eta zuzendarien boterea handitu egin ohi da, politikariek garatu nahi zuten programaren kaltetan, batzuetan.

8.2.3. Boluntarioak

Gizarte-langintzari oso loturik egon dira historikoki. Izatez, beste izen batekin izanda ere, gizarte-langileen forma zaharrenak dira. Gizarte-langilea, ordea, profesionalizatuz joan da, eta, gaur egun, boluntario bezala ulertzen dugu, besteak beste, kobratu gabe, eta horretara inork behartu gabe, gizarte-arloko laguntza eskaintzen duena.

Lau boluntario mota hauek bereiz ditzakegu (National Institute for Social Work, 1992: 123 t. hur.):

1. **Sare informala.** Familia- edo adiskidetasun-loturez egiten dena: zaharren, haurren, adimenez urrikoen, eta abarren laguntza sartzeko da hemen. Historikoki erabili den laguntzeko forma da. Ezin da zenbatu, baina ugariena da, eta ordezkaezina. Gizarte-langileak sare hauek baliatu behar ditu lan eraginkorragoa egiteko: noizbait aholkuak eman diezazkieke, eta beharrezkoa denean zerbitzu espezializatuera bideratu.
2. **Ohiko boluntarioak.** Ongintzara dedikatzen den erakunde bati modu desinteresatuan zerbitzua eskaintzen diotenak. Askotan, emakume helduak izaten dira, etxetik kanpo ordu batzuk eskaintzeko prest daudenak. Sare informal eta ofizialen arteko zubia izan daitezke.
3. **Autolaguntza-taldeak.** Arazo baten inguruan laguntza eskaintzeko batzen den jende multzoa. Arlo batean baino gehiagotan jarduten dute, maila lokalean edo nazioartekoan: Alkoholiko

Anonimoak, esate baterako. Noizbait profesionalak edukitzen dituzte, gizarte-langileak barne. Askotan, gizarte-langileak talde horien sorrera bultzatzen du, eta, behin sortuta, laguntza eskaintzen du: materiala, informazioa, aholkuak, eta abar.

4. **Gobernuz Kanpoko Erakundeak.** Hainbat arlotan ekiteko, maila lokalean edo nazioartean aritzen diren erakundeak. Boluntarioen forma berriagoa da, eta eragin handia eduki dezake iritzi publikoan. Gizarte-konpromiso handiagoa erakusten dute, eta batzuetan planteamendu eraldatzaileak egoten dira. Administrazioan ari diren gizarte-langileek baino independentzia eta espezializazio handiagoa eduki dezakete. Normalean, profesionalak eta boluntarioak batzen dira halako erakundeetan. Batzuetan tentsioak sortzen dira gizarte-langileekin, baina bateragarriak dira.

Boluntarioen lana agerikoa da, eta gizarte-arazoetan eragile garrantzitsuak dira. Hala ere, sarritan eztabaidatzen da euren egitekoaren inguruan. Batetik, *aldeko iritziak* jasotzen ditu, gauza batzuk gizarte-langileak baino hobeto egin ditzake eta (National Institute for Social Work, 1992: 135-136):

- Jende arruntari gizarte-laguntzara dedikatzeko aukera ematen dio.
- Zerbitzu alternatiboen arteko hautaketa-aukera eskaintzen dute.
- Zerbitzu ofizialak baino malguagoak izan daitezke; arrisku gehiago onar ditzakete.
- Zerbitzu ofizialak baino kokapen hobean egon daitezke kasu batzuetan laguntzeko (ordute-giagatik, lekuagatik...).
- Zerbitzu ofizialak baino irudi zabalagoa aurkez diezaioke jendeari, eta erakargarriago izan.

Boluntarioak, beraz, aukera handiak eskaintzen ditu, gutxi eskatuta. Baina, bestetik, *kontrako iritziak* ere jasotzen ditu:

- Boluntarioak Administrazioak bere gain hartzen ez dituen arazoak konpontzen ditu, eta, beraz, haren aurpegia garbitzeko balio du, Administrazioaren utzikeria salatu beharrean.
- Boluntario batzuen asmoa boterea lortzea edo jendea manipulatzeko izan daiteke.
- Boluntarioak gizarte-langileari dagokion lana egin dezake, baina ezer kobratu gabe. Hori dela eta, gizarte-langile batzuek ez dute nahi izaten boluntarioen laguntzarik.
- Boluntarioak gizarte-langintzaren ohiko ikuspegi paternalista iraunarazten du, behartuei eta ezinduei laguntza hutsa ematera mugatzen dena, eta horrek talka egiten du gizarte-langintzak aldarrikatzen duen joera eraikitzaile eta aktiboagoarekin.

Zaila da eztabaida hori argitzea. Are gehiago, gizarte-langilea bera boluntario izan daiteke bere lanetik kanpo (bere auzoan, eskolan, talde batean); edo boluntario gisa ari direnak beste arloetako profesionalak izan daitezke (medikuak, psikologoak, pedagogoak...), eta euren lana, hortaz, oso modu eraginkorrean bete. Hala ere, argi dago boluntarioen eta gizarte-langilearen arteko osagarritasuna proposatu beharko litzatekeela, konfrontaziorik bilatu gabe.

8.3. TESTUA: **BOLUNTARIO-LANA**

David Rieff: *Una cama por una noche*, 37-38, 300-301, 343. or.

Cornelio Sommaruga Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen presidente ohiak esan zuen bezala, «politikariak eta gobernua neurriz kanpo baliatu dira humanitarismoaz, beren arduetatik aldentzeko, eta, hori egitean, anabasa larri eta izugarria eragin dute». Utzikeria horri aurre egiteko, langile humanitarioek gero eta gehiago onartu dute beren lanak politikoa ere izan behar duela; hala, politikaren kontrako humanitarismoaren kontzeptua alde batera utzi, eta humanitarismoaren politikari heldu diote. Beharbada, prozesua saihetsezina izango zen. Baina behar bezala politizatu al liteke balio unibertsalean eta neutraltasun hertsian oinarritutako ideal bat? Transformazio horren ordaina altua izango da oso; altuegia, agian.

Hala, humanitarismoaren funtsa dena —bizia barne— galdu dutenei edo galtzeko zorian daudenei eta laguntza ezinbestekoa dutenei laguntzeko bokazioa da oraindik ere. Zalantzarik gabe, baliteke laguntzaren interpretazio politizatuagoa nagusitzea. Baina gerta liteke gaur egungo humanitarismoa, azken hogeita hamar urteotan izan dena, desagertzea ere. [...]

Gerrek, goseteek eta errefuxiatuen lekualdatze masiboek eragindako ondorioak latzenak arintzeko zerbait egiteari uko egin zioten gobernuek, eta horri aurre egiteko sortu zen humanitarismoa hirurogeiko hamarkadan. Laurogeita hamarrek hamarraldiaren amaierarako, ordea, katastrofeei aurre egiteko gobernuek abian jartzen zuten erantzun ofizialaren osagai humanitario bihurtu zen. Eta erakunde gehienek gustura hartu zuten aldaketa. Mugarik Gabeko Medikuen zuzendaritza ezik, beste GKE-en zuzendaritzak ez zituen atsekabetu norabide horretan hain urrun heltzek, aldaketa handiagoa ez izateak baizik. 1998an, Vienan, Bakearen Nazioarteko Akademiaren aurrean, David Bryer Oxfamen zuzendariak hauxe galdetu zuen: «Globalki, barne-gatazkei politika koherenteak aplikatzeko aukera gehiago izango al genituzke baldin eta Segurtasun Kontseiluak (herritarren eskubideak defendatzeko ardura handiena duen erakundeak) bere egituran zati humanitarioa guztiaren zatizat hartuko balu gerretan —gerra zibilak barne, gaur egun gehienek onartzen duten bezala—, laguntza humanitarioari, diplomaziari eta, beharrezkoa balitz, bakeari eusteko ekintzei helduz, misio bakar batean?». Baiezkoa erantzun zuen, garaipen-keina eginez. Bryerren azalpenaren arabera, humanitarismoa ezin da eraginkorra izan nazioarteko laguntza zabalagorik ez duten krisietan. Ikuspuntu hori izan zen, hain zuzen, hirurogeita hamarrek eta laurogeiko hamarkadetako humanitarismoaren joeretako bat, baina ez bakar, zalantzarik gabe. [...]

Utz diezaiozun bizitza batzuk salbatzen, bidean sinatu behar dituen konpromisoak direnak direla ere; utz diezaiozun biktimei laguntzen eta munduko txoko honetako jendea gogorazten baduela nahiko zorion milioika pertsonak beren bizitzako egun guztietan sentitzen duten kalkulatu ezineko agonian, sufrimenduan, miserian eta nahigabeen ez bizitzeko. Hain gutxi al da hori benetan? Etsipenagatik, moda intelektual edo moral batekin ados daudelako, edo oinarriak gabeko itxaropena dutelako, behin eta berriz saiatu behar al dute humanistek betiereko bakearen, eskubide unibertsalaren edo, are gehiago, Oxfamen formulaziorik apalaren arabera, mundu justuago baten Arkimedesen palanka izaten?

8.2.4. Gizarte-langileak eta gizarte-mugimenduak

Gizarte-langintzaren esparru boluntarioan zehazki sartzen ez badira ere, badago gizartean hainbat mugimendu modu batez edo beste gizarte-arazoei aurre egin nahi diena. Auzoetako problematika, sozialismoa, anarkismoa, ekologismoa, feminismoa, integrazioa edo halako beste hainbat ataletan jarduten dute, modu boluntarioan, eta erreferentzia argia bihurtzen dira jarduten duten inguruan. Ezkerraren pentsamenduari loturik egoten dira askotan, eta diharduten gizarte atalaz gain, gizarte osoarentzat eredu alternatiboa bilatu ohi dute.

Gizarte-langilearentzat ere erreferentzia garrantzitsua izan daitezke, askotan interes berdintsua bila dezakete eta, helburuak desberdinak izan arren. Feminismoaren arloan, adibidez, talde feministek eta gizarte-langileak oso lan osagarria planteatu dezakete. Berdin etorkinek jasan dezaketen diskriminazioari aurre egiteko bidean ere, arlo horretan ari diren mugimenduekin, eta abar. Hala ere, alde bien arteko talka ere gerta liteke. Izan ere, gizarte-mugimenduek egitura autonomoa edukitzen dute, eta baliteke kasu batzuetan ikuspegiak, interesak edo estrategiak ezberdinak izatea. Baliteke, adibidez, mugimendu sozialaren jarrera instituzioen aurkakoa izatea, eta horrek gizarte-langilearen papera auzitan jartzea; edota gizarte-langileari eskatzea jarrera kritikoa izateko, edo bere praktikak zalantzan jartzeko, besteak beste.

Hori guztia dela eta, gizarte-langileak hurbil-hurbiletik ezagutu eta jarraitu behar ditu bere inguruan ari diren gizarte-mugimenduak. Euren lanaren berri zehatza eduki behar du, bestearen esparruan ez sartzeko, egiten dutena ez errepikatzeko, edo erabiltzaileekin baliatzeko. Edozein modutan, gizarte-langileak elkarlanerako aukera egokia aurkitu dezake gizarte-mugimenduetan.

8.4. TESTUA: **BOLUNTARIO-LANA ETA ELKARTASUNA**

James Petras: *elkarrizketa* (in *Berria*, 2004-6-2, 32. or.)

James Petras filosofian doktorea eta New Yorkeko Binghamton Unibertsitateko irakaslea da. Soziologia eta politika gaien inguruan asko idatzitakoa da, eta, bereziki, Latinoamerikako gaietan da aditu. Bere lan intelektualen artean, gizarte maila ezberdinen arteko gatazkei buruz eta inperialismoaren eta iraultzen inguruan idatzitakoak nabarmendu behar dira.

Gauza bera al dira elkartasuna adieraztea eta karitatea egitea?

Elkartasuna ikuspegi politiko bera edo helburu berdinak dituzten pertsonen artean ematen den espresioa da. Pobrezia, errepresioa edo beste gaitzak amaitzea bilatzen du elkartasunak; ez du nahikoa gaitz horien guztien azaleko zantzuen kontra egitearekin. Ezin da pobrezia amaitu bakar-bakarrik pobreei begiratuta, aberastasunaren kontzentrazioak eragiten duelako pobrezia. Elkartasunak osoki egiten du pobrezia kontra, eta karitateak, aldiz, partzialki. Hala, ez du pobrezia eragiten duen estrukturan kontra egiten.

Karitatea egitea baino gehiago da, beraz, elkartasuna.

Bai. Elkartasunak pobrezia eragiten duen estruktura hori ezereztea du helburu. Karitatea, baina, jabetza eta aberastasun estruktura horretako parte bat da. Sistemarekin ados ez daudenak lasaitzea eta nahigabe hori baretzea du helburu.

Noiz eman zen karitate kristautik elkartasun laikorako saltoa?

Orain urte asko. Greziako antzinatean, Erromatar inperioaren garaian, Erdi Aroan... beti egon dira altxamen-
duak. Paternalismoa eta karitatea egitea nahikoa ez zirela salatzen egin ziren altxamendu horiek guztiak. Aberatsek emandako limosnarekin ezin zitezkeen izurriak kontrolatu, ezta gosez hiltzen ziren haurren biziak salbatu ere. Limosna ematea ogi apurra ematearen parekoa da.

Zein puntutaraino dira osagarriak, baina, bi kontzeptu horiek?

Osagarriak barik kontrako kontzeptuak dira karitatea eta elkartasuna. Karitateak aberastasunaren zati bat erabiltzen du, botereari eusteko; elkartasunak, aldiz, aberastasunak partekatzea bilatzen du, han eta hemen berdin bizi ahal izateko.

Zenbait autoreren ustez balore moral bat da elkartasuna, eta horregatik, haien ustez, norbanakoak baino ezin dira izan solidario.

Ez nago ados. Erakundeek elkartasunaren adibide asko dauzkagu. Euskal Herrian, esaterako, gizarte erakunde eta sindikatu asko agertu dira euskal alderdi politiko bat ilegalizatzearen kontra. Horietako batzuek ez liokete ziurrenik alderdi horri emango euren botoa, baina aldiz, askatasunez aukeratzeko esku-bidea aldarrikatzen dute guztiak. Hori alderdi politiko eta gizarte erakunde ezberdinen arteko elkartasunaren adibide bat da. Elkartasunaren kontzeptuaren atzean badago beste pertzepzio bat ere: 'gaur haiei gertatu zaien hori, bihar guri gerta dakiguke'.

Zer da elkartasuna, altruismoa edo norberekeria?

Bietatik dauka elkartasunak. Iruditzen zait bi kontzeptu horiek mugatuegiak direla. Batek egin dezake bizi-lagunen eskubideen alde, bereak ahaztu barik. Norbere interesak babestea eta bertute morala izateak ez dute zertan kontrakoak izan.

Elkartasunak justizia soziala al dakar beti?

Bai. Justizia sozialak autodeterminazioa, antikolonialismoa, askatasuna... hartzen ditu aintzat. Hiru dimentsio dauka. Lan baldintzekin, bizitzeko baldintzekin, eta jabetzarekin du zerikusia eta aberastasunaren kontzentrazioa ematen denean, ez dago baldintza horiek ematerik. Aberastasuna gutxi batzuen esku dago egun, eta horiek bitarteko guztiak erabiltzen dituzte gehiengoak baztertzeko.

Zein paper betetzen du elkartasunak globalizazio garaian?

Globalizazioa berba ez dut gustukoa, ez duelako jasotzen jaso beharko lukeen guztia. Ez du esaten, adibidez, kapitalaren mugimenduak hiru potentzia handiren esku daudenenik. Ekonomia kontrolatzeko eta euren inposatzeko modu horri inperialismoa deitzen zaio. Zapalkuntzaren eta kanpo zorraren bidez, herri batzuen aberastasunaren jabe egiten dira horiek. Elkartasunak lekuri duen? Bai, noski. Hor daude globalizazioaren aurkako taldeak eta sareak, edo kolonialismoaren kontrako erresistentziak.

Zer funtzio betetzen dute Gobernuz Kanpoko Erakundeek?

Denetarik dago. Botere handiko nahiz txikiko erakundeak daude. Indartsuenak ez dut uste gobernuz kanpokoak direnik, gobernuak dirulaguntza handiak ematen dizkietelako. Gobernu neoliberalak eta Mundu Bankuak, esaterako, bitarteko moduan erabiltzen dituzte erakunde horiek, merkatuen konkistarako. Badira, bestalde, tokian tokirako politika egiten saiatzen diren GKEak ere; ustez, politika apolitikoa egiten saiatzen direnak. Oso gutxi dira, baina, tokian tokiko herri mugimenduen menpe lan egitea onartzen duten GKEak. Gutxi dira eta indar gutxi dute, ez dutelako gobernuen edo bankuen laguntzarik jasotzen.

GKE asko enpresa pribatuei lotuta jaio dira. Ba al dago lanerako aukerarik baldintza horietan?

Egon badago. Kontua da GKE erakunde oso gutxi egoten direla prest lekuan lekuko mugimenduen menpe lan egiteko. Ez dute, esaterako, eskola publikoetako irakasleek aurrekontuaren murrizketen kontra hasitako borrokan parte hartzen, gobernu neoliberalak finantzatzen dituztelako. Ez dute ezertarako balio, mugimenduak zatitu, atentzioa desbideratu eta atzerriko funtzionarioekiko mendekotasuna sustatzen dutelako. Pobreziaren kausak lausotzen dituzte horiek.

Elkartasunez jokatu barik limosna ematen dute horiek, beraz?

Askok bai. GKE progresistak AEBen inperialismoaren kontra ari dira Iraken; edo jernalarien alde Espainian. Gehienek, baina, eskola txikiak edo erietxeak sortzeko erabiltzen dute jasotzen duten dirua. Programa osoak garatu beharrean, herriari antolatzen lagundu beharrean, zatitu egiten dute herria. Ez dute pobreziaren azaleko zantzuetatik haratago jotzen.

8.3. Erabiltzaileak

Izen bat baino gehiago erabiltzen da gizarte-langintzaren hartzailea izendatzeko. Historikoki *bezero* terminoa erabili izan da, eta erabiltzen jarraitzen da, baina errezelo handia dago hitz horrekiko, duen merkatu- eta diskriminazio-esanguragatik. Hala ere, ez da agertu ezer bateraturik hitz hori ordezkatzeko, eta gaur termino bat baino gehiago erabiltzen da. Horietako bat *erabiltzaile* da, eta duen arazoa da hitz hori beste arlo askotan ere erabil daitekeela. Hitz hori entzutean, beraz, ez da lotzen bat-batean gizarte-langintzarekin. Nolanahi, hemen, zerbait hautatzekotan, *erabiltzaile* hitza hartuko dugu.

Gizarte-langileak laguntzen duen aldea osatzen du erabiltzaileak. Behin eta berriro esaten ari garenez, ez da pertsona bakar bat, halabeharrez, kolektibo bat ere izan daiteke eta. Horrez gain, erabiltzailea pertsona bakarra izanda ere, argi eduki behar da bere arazo horretan pertsona bat baino gehiago sartzen dela, gizartea bera ere bai.

Nor da gizarte-langileak aurkituko duen erabiltzailea, zer soslai dauka? Escartinek eta Suarezek (1994: 119 t. hur.) bi soslai bereizten dituzte, bata arazo materialei lotua, eta bestea arazo pertsonal subjektiboei. Begira ditzagun.

1. **Arazo materialak: erabiltzaile behartsua.** Pobrezia ez da ekonomiari soilik atxikirik dagoen kontzeptua, nahiz eta bere osagai nagusietako bat izan. Baina arlo gehiago ditu, gizarteari, hezkuntzari, kulturari, osasunari, eta abarri lotuak. Pobreziak bazterketa, gutxiespena eta dependentzia daramatza berarekin. Pobreziaren adierazleak soldata baxuak edo langabezia izan daitezke, baina baita instituzioetan parte ez hartzea, haurtzaro normalik eduki ez izana, edo bazterketa.

Familia edo pertsona behartsuetan egoera ekonomikoa ez da ezaugarri bakarra, egoera horretan bizitzeak bestelako ondorioak ekartzen baititu, pertsonalitateari dagozkionak, esate baterako. Halako familietan hazten diren pertsonak desorekatuak egoten dira askotan, familian ez baitago ondo markatutako arau eta rolik. Emozioak ukatu egiten dira, errua gizarte osoari leporatzen zaio, eta batzuetan delinkuentziara jotzen da.

2. **Arazo pertsonalak: erabiltzailea krisian.** Laguntza eske datorren pertsona tentsio handiko egoeran etortzen da askotan. Ordura arte normal ari bazen ere, halako batean desorekatuak

geratzen da. Horri esaten zaio krisian egotea, eta halako egoerak garapen-prozesu guztietan gertatzen dira.

Krisia oso arrunta izaten da gure bizitzaren fase desberdinetan, adibidez, heriotza, istripu larri edo banaketa bat dagoenean; nahi ez dugun gertaera larria gertatzen denean gure bizitzan; edo, oro har, faktore asko direla eta, desmoralizazioa gertatzen denean.

Krisiak mehatxu modura bizi izaten dira, eta sentimendu nahastuen segida bat sorrarazten dute: ziurtasun eza, larritasuna, antsietatea, beldurra eta depresioa. Egokitzeko erreazio-segida bat ere eramaten du berarekin: txokea, ukapena, amorrua, haserrea eta onarpena.

8.3.1. Erabiltzailea eta esku-hartzeari loturiko irizpideak

Gizarte-langileaz hitz egitean, kontuan hartu beharreko jokaera etikoa aipatu dugu, eta horri loturik, irizpide batzuk. Horietako batzuk berrartuko ditugu, baina erabiltzailearen ikuspuntutik begiraturik oraingoan. Lourdes Gaitani (1991: 75-76) jarraiturik, hiru agertuko ditugu:

1. **Autodeterminazioa.** Erabiltzaileak erabakiak era askez hartzen dituela adierazten du; horrek esan nahi du, alde batetik, horretarako baldintza demokratikoak badaudela, eta, bestetik, norbanakoa bere indibidualtasunaz kontziente dela.
2. **Parte-hartzea.** Erabiltzaileak, gizarte-langilearekin batera, parte hartzen du gizarte-langintzan sortzen den harremanean. Parte-hartze autonomoan, erabiltzailea oso aktibo ageri da, eta harremanaren nondik norakoa markatzen du. Parte-hartze zuzenduan, erabiltzaileari non eta nola hartu parte adierazten zaio.
3. **Autolaguntza.** Norbera izatea norberaren arazoak konpontzeko motorra. Eragilearen lana da erabiltzailea fase horretara heltzen bultzatzea.

8.5. TESTUA: GIZARTE-LANGINTZAREN ETORKIZUNA

Zygmunt Bauman: *¿Soy yo acaso el guardián de mi hermano?*, 28-36 or.

Jainkoak Kaini galdetu zionean Abel non ote zen, Kainek, haserre, beste galdera batekin erantzun zion: «Anaiaren zaintzaile ote naiz, bada, ni?». xx. mendeko filosofo etikorik garrantzitsuenak, Emmanuel Lévinas-ek, esan zuen Kainen galdera sumindu horixe dela ezmoraltasun ororen abiapuntua. Jakina neba-arreben zaintzaile naizena; eta pertsona morala naiz eta izango naiz, izateko arrazoi berezirik behar ez dudana bitartean. Onartu edo ez, neba-arreben zaintzaile naiz, neba-arreben ongizatea egiten dudana edo ez dudana baitan baitago. Eta pertsona morala naiz, mendekotasun horren jakitun bainaiz, eta horrek dakarren ardura onartzen baitut. Mendekotasun hori zalantzan jartzen dudana unean, eta, Kainek bezala, interpelatua sentitzeko arrazoiak eman diezazkizaten eskatzen dudanean, nire arduraz arnegatzen dut eta subjektu moral izateari uzten diot. Neba-arreben mendekotasunak bihurtzen nau izaki etiko. Mendekotasuna eta etika kideak dira, zorionean eta zoritxarrean.

Ondo aztertuz gero, Lévinasen epai irmoa ez da berria. Milaka urtez doktrina judu-kristauen gune gogor izan zena beste hitz batzuekin azaldu baino ez zuen egin. Hain zuzen ere, doktrina horiek eratu eta hornitu zuten gizateria eta zibilizazioa ulertzeko dugun modu komuna. Lévinasen interpretazioaren arabera, besteren beharrak, eta behar horiek asetzeko ardura, dira moralitatearen giltzarria; eta ardura hori onartzea da pertsona moralaren jaiotza-agiria. Alabaina, Lévinasen epaia berria ez bada, mendekotasunarekiko isekan, erdeinuan eta estigmatizazioan bilatu beharko dugu berritasuna. Zibilizazio judu-kristauak bere historia luzean aurrez aurre izan duen berritasunik sakonena eta erradikalena da, beharbada. [...]

Gaur egun, Kainen galdera bera Europa osoan egiten da, hainbat bertsio eguneratutan, eta ongizate-estatuari alde guztietatik erasotzen zaio; hain zuzen ere, ongizate-estatua bera ezartzea eta gizarte modernoaren egoera natural gisa agertzea eta esperimintatzea ekarri zuten faktoreen konbinazio ezohikoa birrindu delako gertatzen da hori. [...]

«Anaiaren zaintzaile ote naiz, bada, ni?» galdera, orain gutxi behin betiko ebaztitzat hartu eta apenas planteatzen zena, berriz egiten da gaur egun, tonu ozenagoan eta beligeranteagoan. Eta baiezko erantzuna nahi dutenak ahalegintzen dira, haserre bizian, arrakasta-berme txikiena ere izan gabe, itxura sinesgarria

ematen interesen hizkuntza hotz eta pragmatikoan. Horren ordez, termino zehatz eta irmoak erabiliz, ongizate-estatuaren funtsa berretsi behar lukete, horixe baita ongizate-estatuak gizarte gizatiar eta zibilizatuko presentzia justifikatzeko behar duen motibazio bakarra. Argumentu etikoa oso sinesgarri izateko bermerik ez dago gaur egungo gizartean. Lehiakortasuna, kostuen eta mozkinen kalkulua, errentagarritasuna eta merkatu libreko beste agindu batzuk nagusitzen dira. [...]

Ez da harrizkoa ikustea Herbehereetan eta beste herrialde batzuetan gizarte-langileei erakutsi dietela sinesten prozedurazko arauen letran eta espirituaren interpretazio egokian bilatu behar dutela eta aurkituko dutela beren lanean arrakasta lortzeko sekretua. Lan bat gauzatze bidean gidari gisa erabiltzeko, «prozeduraren egikaritzeak» «juizio morala» ordezkatzen duenean, ondorioz agerikoenetako eta eman-korrenetako bat izaten da behar larria sortzen dela arauen zehaztasuna areagotzeko eta anbiguotasuna murrizteko, interpretazio posibleen sorta mugatzeko, eta erabakiak kasu guztietan zehaztuta egoteko eta «arauei jarraiki» aurreikusteko modukoak izan daitezten. Horrekin batera etortzen da dena burutu daitekeelako konfiantza, eta, hala izan ez bada, deskuiduaren, utzikeriaren edo gizarte-langileen eta haien nagusien ikuspegi laburraren erruz izan delako konfiantza. Sinesmen horiek direla eta, beren buruari begiratzen diote gizarte-langileek, ongizate-estatuaren kontrako kritiken marea gero eta handiagoaren azalpena beren akatsetan bilatzeko. [...]

Nire ustez, sinesmen eta itxaropen horiek ilusioak baino ez dira; eta ilusio-izaera hori agerian geratzen da gogoratzen dugunean gizarte-laguntza, beste ezer baino lehen, besteen ongizatearen eta zoriaren gainean dugun ardura ezin erosizkoaren jabe egiteko keinu etikoa dela; eta, halaber, gogoratzen dugunean bestea zenbat eta ahulagoa eta ezgauzagoa izan demandatzeko, auzitan ibiltzeko eta jarduteko, orduan eta handiagoa dela gure ardura. Denok gara gure neba-arreben zaintzaile, baina ez dago batere argi horrek zer esan nahi duen. [...]

Gizarte-langintza mehatxatzen duen ziurgabetasuna ardura moralari atxikitako ziurgabetasuna da, ez besterik. Irauteko bokazioa du, eta kontzientzia etikoarekin batera baino ezin da neutralizatu. Gure garaiko beste teologo handi batek, Aarhus Knud Logstrup-ek, esan izan duen bezala, zaintzaren edo kezkaen «isileko mandatu» deritzonari dagokionez, «beti da posible gatazka». Nahitaez ibili behar dugu bi mutur arriskugarriaren artean. Alde batetik, Logstrupek ohartarazi zuenez, «gerta liteke pertsona batek espero izatea eta nahi izatea nik modu batean joka dezadan beragatik, eta nik justu kontrako jokabidea hartzea horrela baino ezin diedalako benetan mesede egin haren interesei». Bestalde, nolana ere, «beste pertsona baten itxaropenak eta desirak betetzea baino ez balitz kontua, biok elkartzeak ekarriko luke, hain zuzen ere, ni modu arduragabeen beste baten zerbitzurako tresna bihurtzea».

Erabilitako erreferentziak

- Banks, Sarah (1997): *Ética y valores en el trabajo social*. Paidós.
- Bauman, Zygmunt (2002): «¿Soy yo acaso el guardián de mi hermano?» *Inguruak* 32: 27-36.
- Escartin, Mari Jose, eta Suarez, Esperanza (1994): *Introducción al trabajo social. I (Historia y fundamentos teórico-prácticos)*. Aguaclara.
- Gaitan, Lourdes (1991): «Los elementos constitutivos del trabajo social», in Zamanillo eta Gaitan (zuz.), *Para comprender el trabajo social*. 51-88 or. Verbo Divino.
- Hernando, Mónica (2020): «Voces en supervisión. ¿Empatizar con agresores?», in Berasaluze, Ariño, Ovejas eta Epelde (koord.), *Supervisión en trabajo social: una metodología para el cambio*. 71-80 or. Thomson Reuters Aranzadi.
- Moix, Manuel (2006): *Teoría del trabajo social*. Síntesis.
- National Institute for Social Work (1992): *Trabajadores sociales: su papel y cometidos*. Narcea.
- Salcedo, Damián (2003): «Los valores en la práctica del trabajo social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 313-372 or. Alianza.
- Zamanillo, Teresa, eta Gaitan, Lourdes (1991): *Para comprender el trabajo social*. Verbo Divino.

Autoebaluazioa

- 1) **Aukeratu gizarte-langintzaren jarduerarekin positiboki lotzen ez den kontzeptu bat duen zerrenda:**
 - a) Laguntza, onarpena, ulermena.
 - b) Pertsonalizatua, trebakuntza, motibazioa.
 - c) Kontzientziazioa, enpatia, bazterketa.
- 2) **Kode deontologikoak...**
 - a) Gizarte-langilearen jardunbidea arautzen du, eta kasu zailetan nola jokatu erakutsiko dio hari.
 - b) Gizarte-langilearen soldataren oinarritzko irizpideak zehazten ditu.
 - c) Gizarte-langilearen curriculumarekin du zerikusia.
- 3) **Administrazioko teknikariek eta zuzendariek hiru funtzio nagusi betetzen dituzte:**
 - a) Kudeatzea, suspertzea eta koordinatzea.
 - a) Kudeatzea, suspertzea eta animazioa.
 - b) Kudeatzea, komunikazioa eta animazioa.
- 4) **Aukeratu esaldi zuzena...**
 - a) Gizarte-langilearen egunerokotasunean ez du eragiten politikarien jarduerak.
 - b) Gizarte-langileak hurbil-hurbiletik ezagutu eta jarraitu behar ditu bere inguruan ari diren gizarte-mugimenduak.
 - c) Boluntarioak oso garrantzitsuak izan ziren Gizarte-Langintzaren sorreran, baina gaur egun boluntariorik ez da existitzen.
- 5) **Pobreziaren adierazleak hauexek izan daitezke (aukeratu erantzun okerra):**
 - a) Mugikorrean igarotzen dituen ordu kopurua.
 - b) Langabezia eta soldata baxuak.
 - c) Bazterketa eta babes falta.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Ander-Egg, Ezequiel (1984): *Historia del Trabajo Social*. Humanitas.
- Andres, Teodoro eta Sánchez, Gaspar (2003): «El estudio de la historia para comprender el Trabajo Social. La ayuda al necesitado en la Antigüedad de Oriente a Occidente», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 22-49 or. Alianza.
- Banks, Sarah (1997): *Etica y valores en el trabajo social*. Paidós.
- Bauman, Zygmunt (2002): «¿Soy yo acaso el guardián de mi hermano?» *Inguruak* 32: 27-36.
- Barbero, Josep Manuel (2003): «El método en el Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 394-438 or. Alianza.
- Barbero, Josep Manuel eta Cortés, Ferrán (2005): *Trabajo Comunitario, organización y desarrollo social*. Alianza Editorial.
- Barrera, Evaristo (2005): *Metodología del trabajo social*. Aconcagua.
- Calvet, Jean (1977): *Lluisa de Marillac*. CEME.
- Celedon, Carmen (2003): «El concepto de Trabajo Social. El Trabajo Social como profesión: la identidad del Trabajo Social. El Trabajo Social como disciplina científica. La tecnología y el Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 201-276 or., Alianza.
- Conde, Rosario (2003): «Naturaleza, objeto, objetivos y funciones del Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 277-312 or. Alianza.
- de la Red, Natividad (1993): *Aproximaciones al trabajo social*. Siglo XXI.
- de Miguel, Estíbaliz eta Mendia, Irantzu (2022). *Inquietudes feministas en el Trabajo Social*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Diagnostikoa eta Esku-Hartze Soziala. *Gizarte Lanerako Baliabide Informatikoa (2006)*. Eusko Jaurlaritza.
- Domenech, Yolanda (1998). «Los grupos de autoayuda como estrategia de intervención en el apoyo social». *Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social* 6: 179-195.
- Domenech, Yolanda. (2008). «El grupo de apoyo como contexto de ayuda para personas con discapacidad en la comunidad valenciana». *Portularia, VIII (1)*: 247-264.
- Escartin, Mari Jose, Palomar, Manuela, eta Suarez, Esperanza (1997): *Introducción al trabajo social. II (Trabajo social con individuos y familias)*. Aguaclara.
- Escartin, Mari Jose, eta Suarez, Esperanza (1994): *Introducción al trabajo social. I (Historia y fundamentos teórico-prácticos)*. Aguaclara.
- Fernández, Tomás, eta Rondon, Luis Miguel (2003): «Aportaciones de las ciencias sociales al Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 201-228 or. Alianza.
- Friedlander, Walter (1984): *Dinámica del Trabajo Social*. Pax-Mexiko.
- Gaitan, Lourdes (1991): «Los elementos constitutivos del trabajo social», in Zamanillo eta Gaitan (zuz.), *Para comprender el trabajo social*. 51-88 or. Verbo Divino.
- Gaviria, Mario (1995): «Una relectura de Mary E. Richmond», in Richmond, Mary: *El caso social individual*. 9-68 or. Talasa.
- Geremek, Bronislaw (1998): *La piedad y la horca. Historia de la miseria y de la caridad en Europa*. Alianza.

- Gomez, Francisco (2003): «La intervención profesional: espacios y prácticas profesionales», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 466-514 or. Alianza.
- Henry, Sue, East, Jean F., eta Schmitz, Cathryne L. (2004): *Trabajo social con grupos. Modelos de Intervención*. Narcea.
- Hernández, Gregoria (1996): «Octavia Hill. Figura señera del Trabajo Social». *Trabajo Social Hoy* 12: 90-94.
- Hernando, Mónica (2020): «Voces en supervisión. ¿Empatizar con agresores?», in Berasaluze, Ariño, Ovejas eta Epelde (koord.), *Supervisión en trabajo social: una metodología para el cambio*. 71-80 or. Thomson Reuters Aranzadi.
- Kisnerman, Natalio, eta Iankideak, (1981): *Introducción al Trabajo social*. Humanitas.
- Kisnerman, Natalio (1998): *Pensar el Trabajo social. Una introducción desde el construccionismo*. Lumen Humanitas.
- Kohs, Samuel C. (1966): *Las raíces del trabajo social*. Paidós.
- Konopka, Gisela (1968). *Trabajo social de grupo*. Euramérica.
- Lima, Boris A. (1983): *Contribución a la Epistemología del Trabajo Social*. Humanitas.
- Lillo, Nieves eta Roselló, Elena (2004). *Manual para el Trabajo Social Comunitario*. Narcea Ediciones.
- Malagon José Luis eta Sarasola José Luis (2003): «Nacimiento y evolución del Trabajo social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 78-109 or. Alianza.
- Maurandi, Remedios (2000): «Jane Addams: una figura clave en el origen del Trabajo Social». *Revista de Trabajo Social, Servicios Sociales y Política Social* 52: 57-78.
- Meschini, Paula eta Hermida, María Eugenia (2017). *Trabajo social y descolonialidad. Epistemologías insurgentes para la intervención en lo social*. EUEM Editorial de la Universidad Nacional de Mar del Plata.
- Miranda, Miguel (2004): *De la caridad a la ciencia. Pragmatismo, Interaccionismo simbólico y Trabajo Social*. Mira.
- Moix, Manuel (1991): *Introducción al trabajo social*. Trivium.
- Moix, Manuel (2006): *Teoría del trabajo social. Síntesis*.
- Montaño, Carlos Eduardo (2019): «El trabajo social crítico». *Revista Pensamiento y Acción Interdisciplinaria*, 5 (2): 8-21.
- Moran, José María (2003): «Corrientes filosóficas y teóricas que han influido en el Trabajo Social: funcionalismo, marxismo y teorías comprensivas», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 153-200 or. Alianza.
- Moreno, Luis (2000): *Ciudadanos precarios. La «última red» de protección social*. Ariel.
- Munuera, Pilar (2003): «Precedentes del Trabajo Social: precursores y reformadores sociales», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 50-77 or. Alianza.
- National Institute for Social Work (1992): *Trabajadores sociales: su papel y cometidos*. Narcea.
- Ochando, Carlos (1999): *El Estado del bienestar: Objetivos, modelos y teorías explicativas*. Ariel.
- Orcajo, Antonino eta Perez, Miguel (1981): *San Vicente de Paul. II. Espiritualidad y selección de escritos*. Biblioteca de Autores Cristianos.
- Patiño, Marisol (2017). «Tejiendo conocimientos en los círculos senti-pensantes: hacia un Trabajo Social Decolonial y del Bien Vivir», in Hermida eta Meschini (zuz.), *Trabajo Social y Descolonialidad. Epistemologías insurgentes para la intervención en lo social*. 77-100 or. EUEM.
- Payne, Malcolm (1995): *Teorías contemporáneas del trabajo social. Una introducción crítica*. Paidós.
- Ramos, Clarisa (2003): «Las necesidades sociales. Conceptos. Perspectivas en el análisis de las necesidades sociales. Problemas sociales y necesidades», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 340-372 or. Alianza.
- Richmond, Mary (1995): *El caso social individual*. Talasa.
- Richmond, Mary (2013): *Zer da kasuzko gizarte-langintza? Sarrera gisako deskribapen bat*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Rubi, Carmen (1992): *Introducción al trabajo social*. EUGE.
- Salcedo, Damian (2003): «Los valores en la práctica del trabajo social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 313-372 or. Alianza.
- Soydan, Haluk (2004): *La historia de las ideas en el trabajo social*. Tirant lo Blanch.
- Sullivan, Louise (1991): *Spiritual writings of Louise de Marillac*. New City Press.
- Torres, Jorge (1987): *Historia del trabajo social*. Humanitas.

- Vazquez, Octavio (2003): «Teorías de las principales figuras del Trabajo Social», in Fernández eta Alemán (zuz.), *Introducción al trabajo social*. 110-130 or. Alianza.
- Viscarret, Juan Jesús (2007): *Modelos y métodos de intervención en Trabajo Social*. Alianza.
- Vives, Juan Luis (1985): *Del socorro de los pobres*. Marsiega
- Zamanillo, Teresa, eta Gaitan, Lourdes (1991): *Para comprender el trabajo social*. Verbo Divino.
- Zubillaga, Nerea eta Berasaluze, Ainhoa (2021): «Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-langintza: zein da zein?». *Zerbitzuan* 75: 43-55.

UNIBERTSITATEKO ESKULIBURUAK
MANUALES UNIVERSITARIOS

INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argitaletxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea